




Arantzasuko
Parketxea: natura,
kultura...

Nahia Gartzia
biologoari
elkarriketa



"Arrasatera joateko arrazoia ez da izan Valogreen; Garagartza izan da lehen aukera hasieratik" / 8

ESTHER KORTA
DIKAR KOOPERATIBAKO
ZUZENDARI NAGUSIA



"Benetako aginte postuetan emakume gutxi dago oraindik; gauza asko geratzen da egiteko" / 26

MARI KARMEN AYASTUY ETA
JOSE LUIS ELKORRO
MONZON-GANUZA SARIA 2022

Taberna, 40 bat lagunendako jatetxea eta lau apartamentu turistiko ditu Araozko ostatu berriak / 34

SINADURAK

	JOANES PLAZAOLA / 28
	OIHAN VITORIA / 12
	AITOR UGALDE / 36
	MARIXE RUIZ DE AUSTRI / 15
	AINZANE OIARBIDE / 48



"ZUEI ESKER, GU ETA GURE UMEAK SEGURU SENTITZEN GARA"

Oñatiko Larraña Etxean dauden 110 errefuxiatuetatik hamazazpi dira ukrainarrak; azken astean heltzen hasi dira, gerratik ihesi / 6

Ksenija Vynnychenko eta Ksenija Lezhnina, euren familiakoekin, Oñatiko Larraña etxean, eguaztenean. JOKIN BEREZIARTUA

Hemen garbiketak

Inoiz baino garrantzitsuagoa

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

ESKORIATZA
T. 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

VOLKSWAGEN ID4 ELEKTRIKOA

TEKNOLOGIA ETA ETORKIZUNA

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Martitzen iluntzean, Emakumeen Nazioarteko Egunean, eskualdeko feministek kaleak hartu zituzten, emakumeekiko "zapalkuntza sistematikoa" salatzeke eta "antolakuntza feministara" batzeko.

Mobilizazioak izan ziren herria guztietan, mugimendu feministek deituta, eta baita egunaren bueltako ekimen osagarriak ere. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren deialdiarekin bat, *Zapaltzen gaituen sistemari sua, antolakuntza feminista gure gerra* leloa izan zen nagusi Debagoieneko martxetan ere.

Bestetik, Itaiak Bergaran deitutako manifestazioan batu ziren eskualdeko gazte sozialistak.

"Antzuola feminista" aldarri

Andramanuelak taldeak deitutako manifestazioan batu ziren antzuolarrak, *Antzuola feminista eraikitza goaz* lelopean. Bandera moreak hartu eta herriko kaleak zeharkatu zituzten. Bukaeran, ohi bezala, irakurketa egin zuten. Herri feminista lortzeko bidean, beste hainbat ekintza egiten ari dira antzuolarrak: bihar bertan, dantza garaikide tailerra izango dute; eta domekan, film emanaldia eskainiko dute Torresorotan.

Feminismo doinuak Aramaion

Kultura etxean batu ziren aramaioarrak manifestazioari hasiera eman eta herriko plazara iristeko. Bidean, baina, geldialdia egin zuten musika eskolan; bertan, Ethel Smyth konpositore eta sufragistaren bizitza eza-gutu zuten, bi ikasleren eskutik. Bukatzeko, plazan, amaiera ekitaldia egin zuten. Irakurketan, "jarri gaitezen martxan, antolatu gaitezen" dei egin zuten fe-



Antzuolako manifestazioaren irudi bat. MIREIA BIKUÑA



Aretxabaletako neska gazteak, ke urdin artean. MIRARI ALTUBE



Martxantere deitutako mobilizazioa. JONE OLABARRIA



Aramaioarrak, mobilizazioa hasi aurreko unean. UXUE IGARZA



Arrasateko manifestazioa biribilgune batean. JOKIN BEREZIARTUA



Betaurreko moreak Elgetako plazan. LARRAITZ ZEBERIO

ministek, eta, ostean, herriko abeslariak eta dantzariak hartu zuten lekukoa.

Aretxabaletan, zaintza hizpide

Aretxabaletan, antolakuntza feministaren bitartez "zaintza sistema irauli beharra" aldarrikatu zuten. Horretarako, manifestazioan zehar hainbat ekintza egin zituzten feministek, gaia-ekin lotutako hainbat errealtate bistartzeko: emakumeen gain dagoen etxeko zaintza eta haurren zaintza, migratzaileei esleitzen zaizkien zaintza lanak, neska gazteen egoera... Gainera, mobilizazioa hasi aurretik, GSR adinekoen egoitzara joan ziren herritarrek, bertako langileei babesa adierazteko.

Arrasatearrak saretzeko deia

"Itzuli gara, nahiz eta sekula ez garen joan". Hori esanez hasi zuten komunikatua arrasatearrek. Manifestazio jendetsuaren ostean, "sareak josteko" dei egin zuten: "Ezagutarazi eta elkarbanatu ditzagun borroak, zapalkuntzak, aldarrikapenak zein proposamenak; urtez urte erakutsi baitugu elkarrekin geldiezinak garela". Bestetik, nabarmendu nahi izan zuten "faxis-morik eta arrazismorik gabeko jendartea" eraiki nahi dutela, eta baita "planetaren suntsiketa geldituko duen bizitzeko eredu bat" ere. Horretarako giltza "feminismo anitza" dela azpimarratu zuten.

Mezu ugari Bergaran

Askotariko aldarrikapenak eginenez, jende mordoa batu zen Bergaran. Martxantere zaintza lanak, pentsiodunen borroka, etxebizitza eskubidea, osasun sistema publikoa eta migratzaileen erregularizazioa izan zituz-

Mugimendu feministaren suari ez zaio garrik falta; "sistema" erre nahi du

Patriarkatuari aurre egiteko modua "antolakuntza feminista" dela aldarrikatu dute eskualdeko mugimendu feministek Emakumeen Nazioarteko Egunean, Martxoaren 8an

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

'BIZI GIPUZKOA!' BERTATIK BERTARA

MARTXOAREN 11AN, EGUENEAN,
21:30EAN ETA 23:30EAN
UROLA GARAIAIN ETA GOIERRIN BARRENA
JULEN LANDALUZ EK ARKEZTUTAKO SAIOA

goiena
Zu hemen zaude.



ten hizpide. Horrez gain, erakunde publikoei zuzendutako mezua ere helarazi zuten: "Ez du balio bandera morea astintzeak soilik; feminismoarekin ahoa bete eta kito. Neurriak eta baliabideak behar ditugu. Ardura kolektiboa eraiki; agenda politikoan benetan sartu". Amaitzeko, gainerako herrietako mugimenduekin bat eginez, "aliantzak egiteko unea" dela azpimarratu zuten.

Elgetan, betaurreko eta guzti

Elgetako plazan betaurreko more handi batzuk eta *Zapaltzen gaituen sistemari sua!* zioen pankarta jarri zituzten feministek. Mobilizazioa hasi eta gutxira, eskolako hamaika neska-mutikok hartu zuten hitza. Hainbat mezu helarazi zituzten: "Berdintasunean jaio gara eta bizi nahi dugu"; "Txikitatik aukera, eskubide eta baldintza berdinak denontzat; etxean, eskolan"; "Denok eskubide berdinak izatea".

Leihoetatik ere, martxarekin bat

Fernando Eskoriatza plazan batu, eta herriko auzo eta kaleak zeharkatu zituzten feminista



Jose Arana guneko balkoi bat, aldarriz beteta. IMANOL BELOKI




Oñatiarrak, mugimendu feministaren leloarekin. JON IRIZAR

eskoriatzarrek: San Pedro, Intxaurtxueta, Aranburuzabala kalea... Bidean, Arizmendiko Jose Arana gunekoek ere bat egin zuten mobilizazioarekin: balkoira atera eta ke morearekin agurtu zuten martxa. Bukatzeko, komunikatua irakurri zuten, borrokan jarraitzea beharrezkoa dela ikusaraziz.

Leintz Gatzaga, apainduta

Manifestaziorik egin ez zen arren, ludotekako gaztetxoek aste oso batez jardun dute kartel aldarrikatzaileak egiten. Hala, Emakumeen Nazioarteko Egunean, kolore morez, puxikekin, kartelekin eta lelo indartsuekin esnatu zen herria. *Ni ez naiz inorena eta inor ez da nirea. Ni*



Ludotekako gazteek egindako kartel bat. IMANOL BELOKI



Itaiak deitutako mobilizazioa, Bergaran. JONE OLABARRIA

emakumea naiz, emakume askea zioen kartel batek.

Oñatin mobilizazio jendetsua

Oñatiar ugarik egin zuten bat Martxoaren 8ko mobilizazioarekin. Musika lagun abiatu ziren plazatik, eta toki berean amaitu zuten. "Mugimendu feministak bultzatutako borrokek garaipe-

nak lortu dituzte. Hala ere, ezin da ukatu diskurtso feminista faltsuen hedapena eta erabilera maltzurra egin denik; instituzio, multinazional eta komunikabideen partetik, besteak beste", zioten. Mezu nagusiak zaintzari eta antolakuntzari lotutakoak izan ziren: "Zaintzaren garrantzia plazaratu eta feminismoan antolatzea beharrezkoa dela azaleratu nahi dugu".

Eskualde mailako manifestazioa

Emakume langileok askatzeko, sozialismoa eraiki! mezura batuta, Deba bailarako sozialistek Bergaran egin zuten hitzordua. "Emakume langileok pobrezia egoerara kondenatuta gaude", salatu zuten, besteak beste. Hala, funtsezkotzat jo zuten "emakume langileen interes politikoak lehen lerroan jartzea" eta "emakume langilea subjektu politiko bihurtuko duen antolakuntza politiko" indartzea; izan ere, sozialistek komunikatuan esan zutenenez, "proposamen feministak ez du kontuan hartzen emakume langileen zapalkuntza harreman kapitalistetatik eratorritako egiturazko zapalkuntza dela".

Neinor HOMES

Bizi nahi
dugun
etorkizuna

Gimnasioa
Gourmet aretoa
Terraza zabalak

SAN ANDRES HOMES • ARRASATE

ERAIKITZEN



900 11 00 22 • neinorhomes.com



Egitasmoko partaideak, Aretxabaletako udaletxean alkatearekin batera. MIRARI ALTUBE

Hizkuntza gutxituak, biziberritze lanetan

Asteazkenean, Garabide Elkartek abiatutako HIBIL ikastaldiaren harrera ekitaldia egin zuten Aretxabaletako udaletxean. Bertan, hamar komunitate linguistikotako kideak elkartu ziren: maputxeak, kitxeak, amazigak, guaraniak, kitxuak...

Uxue Igarza ARETXABALETA

Euskal Herrira etorri dira Afrikako eta Amerikako hamar komunitate linguistikotako partaideak, HIBIL Ikastaldian parte hartuz. Oraindik beste bi komunitetako kideak espero dituzte, baina pandemiari lotutako arazoak direla-eta, momentuz, ez dira iritsi. Garabidek abiatutako egitasmoaren helburua "mundu mailako sare proaktibo" sendotzea da, hizkuntza gutxituetan bizi diren komunitateak batzeko eta horrela beraien hizkuntzak biziberritzeko.

Azken bi urteetan ezin izan dute egitasmoa martxan jarri, baina aurten berriz heldu diote. Ikastaro teorikoak eta euskalgintzari lotutako erakundeetara bisitat dira HIBILen baitako dinamikak, eta, Maddi Iñarra arduradunak azaldu duenez, oraingoan "modu berriak" asmatu behar izan dituzte aurrera egiteko: "Azarotik otsailera bitartean online egin dituzte saio teorikoak, eta orain, Euskal

Herrira etorri dira bisitak eta irteera didaktikoak egitera".

Harrera-ekitaldia, Aretxabaletan

Eguaztenean, Unai Elgoro Aretxabaletako alkateak eta Eñaut Agirre Garabideko koordinatzaileak harrera instituzionala egin zieten egitasmoko partaideei. Agirrek azaldu duenez, Garabideko kideak "pozik" daude egonaldiak berrartu dituztelako: "Parte-hartzaileek diote oso interesgarria dela, eta guretzat ere bai, jakina. Garabideren ardatza da formakuntza hau".

Ekitaldia bera "oso hunkigarria" izan zela adierazi du Agirrek: "Bakoitzak bere komunitatearen izenean hitz egin zuen, norberaren hizkuntzan, eta

opariak ere ekarri zituzten. Giro polita sortu zen". Maputxeak, amazigak, kitxeak, tutunakuak, nahuatak, nasak, guaraniak, kitxuak, Yukatango maiak, nahuat pipilak eta tseltalak ari dira HIBIL egitasmoan parte hartzen, eta aurten, lehenengo aldiz Melillako amazig bat dago bertan.

Euskal eragileekin lanean

Garabidek azaldu duenez, Euskal Herriko hamar eragile "ez-tradizionalek" hartu dute parte komunitate indigenekiko eza-gutza-trukean. Sarea "sendotzen" ari dela azpimarratu dute: "Hizkuntzen galeraren fenomeno globala eta horri erantzuteko ekimen lokalak ardatz hartuta, elkarlan-sarea indartu da".

Aurreratu bezala, datozen egunetan 20 erakunde eta enpresa bisitatuko dituzte parte-hartzaileek; tartean, Arrasateko AEK, Emun, Txatxilipurdi, Arizmen-di Ikastola, Luiz Ezeiza Herri Eskola eta Goiena.

Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko asteen	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	28	20	8.577	%39,22	217
Eskoriatza	10	3	1.554	%37,62	316
Bergara	7	19	5.428	%37,22	172
Aramaio	6	4	552	%37,91	675
Oñati	6	24	4.554	%39,85	261
Aretxabaleta	3	1	2.601	%36,59	56
Antzuola	1	3	828	%39,79	183
Elgeta	0	0	303	%26,56	0
Gatzaga	0	1	73	%34,60	427
DEBAGOIENA	61	75	24.470	%38,23	212

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Bailaran ez, baina Hego Euskal Herrian gora egin dute kasuek

Debagoieneko Ospitalean martitzenaz geroztik ez dago inor koronabirusaren eraginez ingresatuta

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Duela bi urte, gaurko egunez, Osasunaren Mundu Erakundeak pandemia izaera eman zion COVID-19ari. Ordutik, sei olatuk astindu dute bailara, baina, aldaera berrien edota txertoen eraginez, desberdina izan da horietako bakoitza.

Azken olatuari dagokionez, aste honen hasieran kutsatzeak egonkortzen ari ziren Hego Euskal Herrian, baina azken datuek goranzko joera erakutsi dute. Igo egin da kutsatu kopurua Araban, Bizkaian, Nafarroan eta, batez ere, Gipuzkoan. Debagoiena, momentuz, salbuespena da; aurreko astean baino hamalau kasu gutxiago hauteman dira oraingoan.

Bi herri "berde" bailaran

Esan bezala, behera egin dute positiboek eskualdean -75etik 61era-, eta, horiekin batera, intzidentzia-tasek. Hala, Aretxabaleta eta Elgeta eremu berdean dira -60tik beherako intzidentzia-tasa metatua dutelako-.

Bailarako datu orokorrari dagokionez, 212,42koa da tasa; duela astebete baino ia 100 puntu txikiagoa.

Ospitaleetan presioak behera

Hego Euskal Herriko ospitaleetako egoerak hobera egin du azken astean. Esan behar da Zaintza Intentsiboetako Unitateetan ez dela aldaketa handirik egon -39 zeuden eguaztenean-, baina plantako ospitaleratzeak nabarmen jaitsi dira: zazpi egunetan 261etik 189ra egin du behera zenbatekoak.

Debagoieneko Ospitalean, berriz, Zuzendaritzak adierazi duenez, ez dago koronabirusaren eraginez ospitaleratutako inor martxoaren 8az geroztik.

**TXI KUNG
TERAPIA
PERTSONALIZATUA**

Zaindu zaitzez!



**Rafael de la Maza
679 64 24 91**

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKO
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK 2022-2023

Eskaintza akademikoa	Ate irekien jardunaldiak
•Automatizazioa eta Robotika Industrial	Martxoak 24 18:00
•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa	Martxoak 24 18:00
•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua	Martxoak 23 18:00
•Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa	Martxoak 23 18:00
•Mekatronika Industrial	Martxoak 23 18:00

www.mondragon.edu/lanbideheziketa • onarpena.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683

GEROA EREIN



Irene Souto
MGEP GMHZ Fabrikazio Mekanikoko
Diseinuko ikaslea

Ni albaitaria naiz eta, gainera, betidanik izan nahi nuen albaitari, baina, urteekin, asko sufritzen dela konturatu nintzen, eta oso zaila dela lana eta familia bizitza uztartzea. Horregatik, beste gauza bat ikastea erabaki nuen. Argi neukan osasun mundutik urrun jardun nahi nuela, baina ez nekien oso ondo zertan. Orain dela urte asko, lagun batek Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko zikloa ikasi zuen eta nik neuk ere MGEPn bi ikastaro egin nituen bere garaian, lan egiten nuenean, konkretuki, diseinua zer zen jakiteko. Bat SolidWorks-i buruzkoa izan zen eta bestea, marrazki teknikoari buruzkoa. Asko gustatu zitzaidan esperientzia, eta, buru-belarri, helburua horretan jarri nuen.

Zergatik aukeratu zenuen Mondragon Goi Eskola Politeknikoa?

MGEPn ikastea erabaki nuen erreferentzia onak nituelako, irakasleengatik, instalazioengatik eta etorkizuneko aukerengatik. Hala ere, informazio gehiago biltzeko, ate irekietan parte hartu nuen, eta Idoia Urrutibeascoa koordinatzailearekin zuzenean egon nintzen nire zalantzen inguruan hitz egiten. Asko eskertu nuen berak azalduzako gertutasuna eta konpromisoa. Gainera, zortea izan nuen Maitane Uriberekin ikaskide gisa bat egiteagatik; berari esker, zikloa oso eramangarria izan da eta ikasketak, ardurak eta, noski, postasunak batera eraman ditugu. Honetaz gain, bizitza osorako lagun bat lortu dut.

Heziketa ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue; hau da, talde-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer-nolako erronkak egin dituzue?

Lehen mailan, zilindro pneumatikoaren erronka egin genuen; eta kurtso amaieran, vending makina baten erronka. Bigarren mailan, 3DExperiencerekin lan egin dugu ingurune kolaboratibo batean, plastikozko injektore baten zatiak diseinatze eta muntatzeko.

Azken erronkan, skate bat diseinatu, ekoiztu edo fabrikatu eta muntatu dugu, taulatik hasi eta truckeraino. Benetan oso erronka bete izan da. Esperientzia ona izaten ari da, asko ikasi dugun sententzia da: bai diseinuko eta simulazioko programak erabiltzen -injezioa, forja-lana-, bai txostenak egiteko tresnak erabiltzen, lan-ingurunean oso erabilgarriak izango zaizkigulako etorkizun hurbilean eta, noski, baita epe luzean ere.

DUALa egin duzu? Nolako izan da esperientzia?

Eskoriatzako Fagor Automationen fabrika sartzeko zortea izan nuen. Kalitate sailean lan egiten dut eta oso pozik nago, lana askotarikoa delako eta lan-giroa oso ona delako. Lehen egunetik harrera izugarria egin didate lankideek. Fagor Automationen encoder-ak eta erregelak egiten dira lantegian eta guk Eskoriatzako fabrikara sartzen diren piezen kontrola egin behar dugu, baita Arrasatera, Usurbilera eta Txinara doazenenak ere.

Fabrikara iristen edo irteten diren piezak plano bakoitzeko jarraibideen arabera kontrolatu behar ditugu, hainbat tresna eta makina erabiliz egiaztapenak egiteko. Kalitate-kontrolan jarraibidea betetzen ez duten piezak aurki ditzakegu, eta, beraz, piezen lotea deuseztatu egin behar da ondorengo muntaketan akatsik ager ez dadin edo amaierako bezeroari akatsik ager ez dakion, zuzeneko salmentarako badira.

Batzuetan, beharrezkoa izan daiteke jarraibideetan edo osagai jakin batzuen ekoizpenean aldaketak egitea. Kalitate saila etengabe dago harremanetan enpresako beste sail batzuekin, hala nola I+Dekin eta salmentekin.

Egia da une batzuetan gogorra egin dela ikasketak eta lana bateragarri egitea, baina uste dut merezi duela esfortzua, lehen eskutik ezagutzen baita zikloa amaitu ondoren egin ahal izango dugun lana, eta gure ibilbidea arlo baterantz edo besterantz bideratzen lagun diezagukeelako.

Zer ikasi duzu enpresan?

Enpresan aplikatzen duzu eskolan landu dugun talde-lanaren garrantzia, guztion laguntzarekin ateratzen baita aurrera lana. Baloratuta sentitzen naiz, eta hori ere garrantzitsua iruditzen zait gure onena emateko eta lan egiten duen enpresaren parte sentitzeko. Zikloan eskuratutako ezagutzak erabiltzen ditugu enpresan, hala nola planoak interpretatzea, tresnak maneiatzea, fabrikazio-metodoak ezagutzea piezetako marka normalak balioesteko eta abar.

Hemendik aurrera, zein da zure asmoa?

Nire asmoa arlo horretan lanean jarraitzea da, baina ez dut baztertzen ikastaro laburragekin prestatzen jarraitzea, nire ezagutza une oro hobetzeko.



Oñatiko Larraña harrera-etxean ostatu hartu duten zenbait ukrainar, asteazkenean. JOKIN BEREZIARTUA



Anna Mertel ukrainarra —erdian—, lagun oñatiarrekin. ZORIONE GALDOS

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Hamabost egun igaro dira Errusiak Ukrainaren inbasioa hasi zuenetik. Ziurgabetasun eta urduritasun handiz bizi dituzte egunok ukrainarrekin lotura estua duten familiek. Joan den zapatuan, komunikazio-dorreak suntsitu zituzten errusiar tropek, ukrainar zibilei kanpoaldearekin harremanak eteteko helburuarekin. Bien bitartean, gerraren hasieran herrialdetik ihes egitea lortu zuten zenbait ukrainarrek Debagoienera lortu dute babes probisionalala.

Ksenija Vynnychenko eta Ksenija Lezhnina, Larraña harrera-etxean dauden errefuxiatuak:

"JASANEZINA DA ATZEAN UTZI BEHAR IZAN DITUGUN SENIDE ETA LAGUNEK BIZI DUTEN EGOERA"

Zehar-Errefuxiatuekin erakundeak kudeatzen duen Oñatiko Larraña etxera heldu berri diren bi familiak testigantza gordinen berri eman zuten asteazkenean. Ksenija Vynnychenkok hiru seme-alabak hartu eta ihes egin behar izan zuen bere autoa hartuta. Ez du senarrik, baina maita duen jendea utzi behar izan du han; tartean, bere ama: "Bonbetatik babesteko soto batean gordeta egotera behartuta dago".

Ksenija Lezhninak azaldu zuen, besteak beste, ihes egin zuen hirian "hamahiru egunetan

Iritsi dira ukrainar batzuk, baina zaildu egin da hango komunikazioa

Oñatiko Larraña harrera-etxeak 17 errefuxiatu jaso ditu asteon, eta Debagoienera bizi diren ukrainarren zenbait senitarteko ere heldu dira dagoeneko. Beste askok Ukrainan jarraitzen dute, bertatik irten ezinik eta hemengoekin ezin komunikatuta

Errusiako tropek 50 bat ume" erail zituztela. Horrez gain, esker oneko hitzak ere izan zituen: "Zehar-Errefuxiatuekin erakundearen lanari esker eta Oñatiko Larraña etxeko langileei eta bertan bizi diren pertsoneri esker, gu eta gure umeak seguru sentitzen gara".

Agerraldian parte hartu zuten, baita ere, Xabier Legarreta Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo zuzendariak eta Carmen Chaconek, Zehar-Errefuxiatuekin erakundeko zuzendariak. Legarretak zehaztu zuen Oñati, Berriz eta Tolosako harrera-etxeetan 27 ukrainar errefuxiatu jaso dituztela, eta Irunen "prest" dituztela edozein momentutan martxan jartzeko errekurtsoak. Chaconen hitzetan, "iritxi diren errefuxiatu gehienek nolabaiteko loturaren bat zuten aurretik, eta horregatik heldu ahal izan dira".

Anna Mertel, Oñatira etortzen den 13 urteko neska:
"LUR AZPIAN BIZI GARA, ETA ZOPA ETA OGIA BESTERIK EZ DUGU JATEKO"

Joan den zapatuan, Euskadi Irratiko *Amarauna* saioan elkarriketatu zuten udan eta neguan Zorione Galdos oñatiarraren etxera joan ohi den Sucachi herriko Anna Mertel gaztea. Familiarekin etxeko sototik atera gabe pasatzen dute denbora gehien. "Ura eta argia falta zaizkigu, eta jateko zopa eta ogia bakarrik daukagu; kanpoan tankeak daude, nire etxe alboan pistolen balak aurkitu ditugu". Izan ere, "desiratzen" dago Oñatira itzultzeko, baita bere familia oñatiarra hura eta bere senideak jasotzeko ere: "Putinen hasierako mehatxuen aurrean,

adostu genuen hiru seme-alabak eta ama etortzea. Hegaldiak begiratzen genbiltzala bi aireportuak itxi zituzten", aipatu du Galdosek. Elkarren berri izateari utzi zioten zapatuan.

Antzeko egoera bizi du Ainhua Muraak. Haren familiak 12 eta 11 urte dituzten bi neska ekartzen ditu urtero, Chernobil elkartearen bitartez. Dio "prest" daudela bi neskak eta euren ahizpa txikia Oñatin jasotzeko, baina "beharrezkoa" dela adinez nagusikoa den gertuko senide batekin etortzea. Chernobil elkartetik egunero bidaltzen diete gerran gertatzen ari denari buruzko informazioa: "Korridoreak borrokak dauden tokietan irekitzen dituzte; Irpindik, adibidez, lortu dute batzuk irtetea. Baina borrokatik kanpo dauden herriak setiatuta daude eta bertan ez dira korridoreak antolatzen". Harriduraz azaldu du

Ukrainako lagunei janaria bidaltzea lortu zutenekoa: "Otsailan bidali genien atuna, oilaskoa eta halakoak, eta ez dugu sinisten nola iritsi zitzaizaien otsailaren 24rako; justu, inbasioaren lehen egunean". Bestela ere, "negurako kontserbak jaten" bizirauten dute.

Tania Sirosh, Arrasaten bizi den ukrainarra

"NIRE HERRIKO IRUDIAK ERRUSIAKO MEDIOEN BIDEZ IRITSI ZAIZKIT EGUNOTAN"

Errusiako tropek inguratuta jarraitzen du Bielorrusia eta Kiev artean dagoen Tania Sirosh-en herriak. Amaren eta lagun berririk ez du, aitarena bakarrik, erreserbista militarra delako. Baina bere herrikideen berri jakin ahal izan du komunikabide errusiarren bidez: "Iruditzen zait elkarriketatu dituztenei xantaia egin dietela errusiarrek, aurpegi ona jarri eta hitz politak esateko". Gaineratu du Bielorrusiara joateko korridoreak ireki dizkietela, baina bide hori hartzeaz ez direla fio, erasotuak izango direlakoan. Lagun bat dauka bi semerekin Polonian, "diru gabe eta motxila batekin", eta hona etorri nahi dute: "Mugetara doazen boluntarioei laguntza eskatu nahi diet, nire lagunarekin kontakta dezaten". Bere telefono-zenbakia jarri du eskura: 626 10 77 11.



Victoria eta Olga Skotnytska ahizpak, Arrasateko Herriko Plazan. H.L.

Olga Skotnytska, Arrasatera iritsi berri den ukrainarra "VLADIMIR PUTIN HUMANITATERIK GABE JOKATZEN ARI DA"

Duela egun gutxi iritsi ziren bailarara Victoria Skotnytska arrasatearraren bost senide; tartean, bere ahizpa Olga. Otsailaren 22an alde egin zuten Kievetik, autoan, 3.000 kilometro baino gehiagoko bidaia hasiera emateko. Olgak aipatu du "urduritasunagatik" berdin zitzaiela zenbat kilometro egin, eta "euren bizitza salbatzea eta laguntza jasotzea" zela garrantzitsua. Hala, Polonian eman dituzte bost egun, Alemanian pare bat, eta Frantzian eta Donostian egonaldi laburra eginda iritsi dira Arrasatera.

Gaineratu du Gabonen ostein sumatu zutela jendea Ukrainako hiriburutik alde egiten, egun batetik bestera trafikoa asko jaitsi zelako. "Emakumeok alde egitea erabaki dugu, baina gizonetakoak, nire senarra, tartean, han geratu dira".

Orain, aldi baterako etxebizitza bila dabilta, eta Arrasateko Udalak eskaintako baliabideen berri badaukate: "San Frantzisko elizako eta Aita Menniko instalazioak ikusi ditugu, eta baliteke, agian, azken horretan ostatu hartzea; aukera hori baloratu bitartean, ezagunen etxetan moldatuko gara modu probisionalean". Bien bitartean, euren beste lau senidek zer egin

zain daude, Alemanian baitaude gaur egun, "bertan geratu edo hona etortzeko zalantzarekin".

Izan ere, Olga eta haren familiakoak jabetu dira zenbait hilabetez geratu beharko dutela hemen. Dokumentazioak errazteko aldi baterako babesari buruzko legea onartu dute Europar Batasuneko gobernuak, baina Victoriak adierazi du oraindik ez dagoela indarrean: "Asteazkenean Polizia Nazionalekin batu ginen, Zehar elkartearekin ere bai, eta esan ziguten astelehenera arte ezin zigutela ezer esan. Gurutze Gorriak datuak hartu dizkigu, baina oraindik antolatzen ari direla esan digute. Zenbat denborarako? Gauza asko lotu beharra dugu, ez baitakigu zer egin dezakegun eta zer ez".

Gerrari buruzko iritzia galde-tuta, Errusiako presidentea Vladimir Putin "humanitaterik gabeko giza txarra" dela adierazi du Olgak: "Sotoetan dauden umeei eta erditzen ari diren emakumeekin gupidarik gabe jokatzeko dihardu. Ez ditu korridoreak erraztu gura; baietz esaten du hasieran, baina gero, tropa errusiarrak zibilak tirokatzen hasten dira".

Gaineratu du ezin daitekeela mundu osoa Errusiako presidenteari ikarututa egon: "Ukrainar herria heroi gisa jokatzeko ari den momentu latz hauetan, munduko herrialde guztiak batu eta gerra honi behin betiko amaiera eman diezaiotela eskatzen dugu".

Eudel-en elkarretaratzeak

Aretxabaleta, Arrasate eta Eskoriatzako udal ordezkariak bat egin dute Ukrainari babesa eskaintzeko Euskal Udalen Elkarteak (Eudel) deitutako deialdiekin, eta bost minutuko isiluneak egin dituzte. Eudelek adierazi du Erkidegoko udalek "600 plaza baino gehiago" eskaintzen dituztela euskal udalerrietan Ukrainako biztanleak hartzeko.



UXUE IGARTZA



"Ikasle, irakasle eta profesionalengandik ikasten dugu"

Leire Pérez (Arrasate, 20 urte) Mondragon Unibertsitatea - Basque Culinary Center-en dabil, Gastronomía eta Sukaldaritza Arteak graduko hirugarren maila egiten.



Non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu zaletasunik?
Arrasaten ikasi dut. Mendiz inguratuta gaudenez, mendira joatea dut gustuko. Baina nire deskonexio puntua txikitatik izan da sukaldaria. **Zergatik aukeratu zenuen Gastronomía eta Sukaldaritza Arteak gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**
Lehenengo momentutik nekien ez nuela jatetxe batean sukaldari gisa lanean bukatuko. Horregatik aukeratu nuen Mondragon Unibertsitateko gradua. Sukaldaritza gain, gastronomiarekin zerikusi duen dena ikasten delako. Mila irteera ditu. **Nola baloratuko zenuke orain arte bizi izandako esperientzia?**
Unibertsitatean ikasten denaz gain, praktikak ere

lehen mailatik izan genituen. Bertan ikasi nuen zer den sukaldaria bateko langile izatea. Hondarribian izan nituen nire lehen praktikak, handik Madrilera joan nintzen eta laster Bolivian beste abentura bat bizi izango dut. **Nola definituko zenuke Basque Culinary Centerren jasotzen duzun ikasteko metodologia?**
Metodologia oso berriak erabiltzen ditu. Formakuntza erdia praktikoa da, eta sekulako instalazioak ditu tailerrak eta formakuntzak garatzeko. Bertako jatetxeak askotariko menuak eskaintzen ditu egunero eta hainbat kurtsotako ikasleek ematen dute zerbitzua. Ikasleengandik, irakasleengandik eta profesionalengandik ikasten dugu. **Unibertsitateak zer gustatzen zaizu gehien?**

Gehien gustatzen zaidana ikasle aniztasuna da. Kanpoko jende pila bat etortzen da eta kultura ezberdin asko nahasten dira. **Zer-nolako ekarpena egiten dizu praktikak egiteak?**
Praktikekin ikasten duzu zer den lan egitea, eta zenbat kostatzen den gogotsu egotea daramazun nekearekin. Aurtengo praktikak ezberdinak izango dira: espezializatze ordua iritsi zaigu, eta atzerriko irteerako aukera ematen digu unibertsitateak. **Etorkizunari dagokionez, zeintzuk dira zure asmoak?**
Especializatuko naiz janariaren teknologian eta garapenean, laborategian zein sukaldean. Ikasitakoa praktikan jarriko dut Bolivian eta horren ondoren ikusiko dut norantz jo.

Julen Iriondo M. de Zuazo BERGARA 2017a ezkerro zuzendari nagusi, Esther Kortak (Arrasate, 1973) kargua hartu zuenetik hona bikoiztu baino gehiago egin ditu Dikarrek salmentak. Ehizarako eta kirol tiraketarako armak egiten dituzte: CVA markarekin dihardute urte luzeetan –liderrak, lehenak, dira AEBetan aurrekargako errifleetan; negozioaren %40 da, gaur egun–, eta zortzi urte daramatzate Bergara markarekin bestelako armak egiten. Hazten, eta hala jarraitzeko aurreikuspenarekin, tokialdatzeko erabakia "mugarri berezia" dela dio kooperatibako –Mondragon taldekoa– buruak; "proiektu polita" dutela esku artean, eta "bultza egiteko gogoz" dagoela lantaldea.

Martxoaren 8a pasa berritan... Oraindik gutxiengoa dira emakume bat buru duten enpresak; zuen kasuan, hala da.

Bai. Kooperatibetan, emakumeek eta gizonek aukera berberak edukitzen ditugu. Beste gauza bat da oraindik aurrerapauso handiak eman behar direla ikasketen arloan, segun eta ze ogibidetarako, emakumeok ez dugulako oraindik geure burua ikusten, edo inor ez dugulako ezagutu, edo ez dugulako erreferentziarik izan. Baina aukerak, behintzat, berdin-berdin ematen dira.

Denbora bat bada enpresak leku handiagoaren beharra adierazi zuela, eta berriki gauzatu da Garagartzako erosketa. Ez dirudi seinala txarra.

Dikarrek hazkunde handia izan du azken bost urteotan, eta, aurrera begira jarraipena izan dezakeela ikusita, eutsi egin behar genion horri; duela hiru urte hasi ginen zerbaiten bila, eta, azkenean, Garagartzara joateko erabakia hartu da. Erabakia Batzar Orokorrak onartu zuen, eta erabili ditugun irizpideak izan dira gure balioetan eta negozioan pentsatuta. Gure aktibitatea ikusita, hazkunde honetarako erabaki errazena AEBetara joatea izango litzateke: gure jarduerarako muga gutxiago daudelako, leku berri batean handitzea errazagoa litzatekeelako, armekiko ezagutza handiagoa dagoelako... Baina gu kooperatiba gara, eta gure inguruko ongizatea dugu helburu, eta hori lanaren bitartez lortzen dela ulertzen dugu. Eta lanaren bidezko aberastasun



Esther Korta, Dikarreko bulegoan. J.I.

"Hasieratik izan zen Garagartza gure lehenengo aukera"

ESTHER KORTA DIKAR KOOPERATIBAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Nahikoa toki barik, eta hazteko asmoz, Fagor Etxetresnenak izandako 72.000 metro koadroak erosi dituzte, Bergaran –Larramendin– geratzea ere aztertu zuten arren

hori hemen mantentzea da gure apustua.

Ze arrazoi daude azken urteotan halako hazkunde izateko?

Historian zehar aktibitate desberdinak izan ditugu: ehizarako eta kirol tiraketarako, aisiarako, armen sektorean gaude; baita aire libreko aisian –kanpin dendak; bizikletarako, korrika egiteko... motxila eta osagarriak, Columbus markarekin–. Aurreko krisi finantzarioarekin, fit-

nessarekin lotuta genuen aktibitatea, Txinakoa, itxi egin behar izan genuen. Gure ezagutza armen munduan zegoen, eta hor dibertsifikatzen hastea izan zen apustua. Aurrekargako armei atzekargakoak gehitu, eta tiro bakarrekakoak eta morroiloak. Eta hor oraindik bide handia dago.

Eta hori garai gorabeheratsuak bizi ditugula: 2008ko krisia, COVIDa, energiaren eta lehengaien prezioen

gorakada, egungo ziurgabetasuna Ukrainakoarekin lotuta...

Inork espero ez genituenak pasatu ditugu, eta orain dugu beste momentu bat, hau ere inork espero ez zuena. Unean unekoari heldu behar izaten zaio. COVIDarekin zailtasun handiak izan ditugu, kudeaketa oso zaila da: %20ko prezio igoerak izan ditugu; logistika aldetik ere, Columbus produktu gehienak Txinan eta inguruan egiten dira

[Dikarrek merkaturatu egiten ditu], eta ezin ekarri ibili gara, atzerapen oso luzeekin, eta hornidura eta ekoizpen gai hori nahikoa zaila gertatzen ari da. Guk apustu egin genuen COVIDak aisialdia bermatuko zuela; lehen bi hilabeteetan ez genekien, baina gero ikusi zen hor ez genuela arazorik izango, eta apustua ondo joan zaigu. Guretzako palanka beti da kalitatezko produktua, bezeroei begira, zerbitzu ona emateko: armetan, zehaztasuna; eta produktu bakoitzean dugu zerbait desberdintzen gaituena, eta horrek dakar erostera doan bezeroak gure marka bat nahi izatea eta aurrera egitea.

Eta, orain, Garagartzara joateko erabakia.

Hazkunde handia izaten ari gara. Nik zuzendaritza hartu nuenean 40 milioiko salmentak genituen taldean, eta 2021a itxi dugu 93 milioi euroko salmentekin. Hazkunde hau ez da hemen bukatzen. Produktuen dibertsifikazioak oraindik bere bidea badauka. Orain dela gutxira arte, aurrekargaren bakarrik geunden. Aurrekargaren merkatu-nitxoa AEBak dira, han bakarrik saltzen da, araudi berezi bat dagoelako han; munduan beste inon ez da saltzen, zero. Morroiloetan sartu garenean, horrek ahalbidetu digu mundu osora zabaltzea. Beraz, dibertsifikazioa, produktuetan, merkatuetan... eta horrek oraindik bere bidea du egiteko. Hala, fabrika handitzea da gure beharra. 20.000 metro koadro behar genituen orain; baina halako mugimendu bat ez da egunero egiten, eta, behin mugituta, hazi ahal izateko aukera ere eman behar zigun. Eta, zergatik Garagartza? Negozioak eskatzen duen guztia betetzen du, eta Batzarrak erabaki du: informazio guztia izan du aukera desberdinena, eta erabakia hori izan da. Duela pare bat urte ere erabaki zuen Batzarrak hara joatea: orduan ere merkatuan zegoen Garagartza, beste baldintza batzuekin; guk baietza eman genuen, baina bankuek ezetz esan zuten, eta beste zerbaiten bila hasi behar izan genuen. Baina gure lehen aukera Garagartza izan da lehenengo momentutik. Orain, berriz merkaturatu zen, beste planteamendu batekin, eta berriz ere baietz irteten da.

Larramendikoa baino aukera hobea zen, beraz.

Garagartzak aukera ematen digu hasieratik nahikoa metro gehiago edukitzeko, eta azkartasuna ere baloratu dugu: espero dugu urtebete han egotea, 2023. urte hasieran mugitzen hastea; Larramendirako denbora gehiago beharko genukeen. Ikusi duzue gure lantegia: leku premia agerikoa da. Abantaila hori bazuen Garagartzak; horrez gain, dena solairu baten egon ahal izatea, gero ere hazteko aukera ematea... Oso aukera ona zen.

Esan zen Larramendira ez joateko arrazoia izan zela Valogreene bertan kokatzeko aukera.

Erabakia ez da izan hor Valogreenek arazoren bat sor zeza keelako. Mahai gainean genituen aukeren informazio osoa kontuan izanda hartu dugu erabakia.

Bergararentzat galera da?

Bergarak ulertu dezake horrela. Dikarren ikuspegitik, gure in-

guruan lana sortzen jarraituko dugu: Bergara edo Arrasate... bailara bera da, eta langileak Arrasatekoak ditugu, Bergara-koak, Eibarkoak, Azpeitikoak, Donostiakoak, Bilbokoak... Ez dugu kalterik sortuko gure inguruan. Izan ere, kaltea izango litzateke Ameriketako Estatu Batuetara joatea.

Zuen negozioaren ze portzentaje dagokio armagintzari?

Salmenten %98.

Eta Bergara markarekin sartu zarete dibertsifikazioan.

CVA da gure marka tradizionala, aurrekargarena, AEBetara soilik saltzen dena. Dibertsifikatzeko, beste marka batekin egin dugu apustua, eta Bergara da, bai, mundu mailarako dugun marka. Eta *outdoor* ekintzarako dugu Columbus. Azken hori %2 soilik da, esan bezala; nik uste dut ez dela oraindik



Dikarreko hainbat langile, beharrean. J.I.

bere momentua iritsi: estrategia da mantentzea, eta behin beste markak herrialde guztietan sartzaren direnean, beste geruza bat gehitzeko aukera emango digu horrek. Izan ere, elkarrekin konektatuta daude: *outdoor*-eko hamaika aktibitate daude, bizi-kleta, mendia, korrika, ehiza... Ez da gauza bera, baina badu lotura gure aktibitate nagusiko produktuekin, eta aukera izango dugu Columbusi bultzada emateko.

Langile aldetik ze hazkunde espero duzue?

250 inguru gara, gaur, taldean; horietatik, 160 inguru ginen 2021ean Dikarren. Taldean 350era iristeko modua ikusten dugu, eta Dikarren 250-270 ingurura; 100 bat langile bazkide gehiago, beraz.

Ze epetarako aurreikuspena da?

Datozen bost urteotarako edo. Ez dago jakiterik Ukrainarekin zer gertatuko den, baina asmoa hori da.

Horregatik 20.000 metro behar eta 72.000 eskuratzea?

Aukera zabalik uztearren. Datozen bost urteetan 20.000rekin

ondo egongo garela uste dugu, baina halako mugimendu bat egitea ez da erraza, eta gero-rako ere zabalik utzi nahi izan dugu aukera. Gainera, lehen aldiz erostekotan izan ginenean 20.000 ginen erostekoak, baina orain dena erosi beharra zegoen.

Lehen Etxetresnena izandako dena.

Bai, dena. Eta Dikar guztia joango da hara.

Ukraina aipatu duzu. Ze beldur duzue horrekin?

Motzera, energiaren garestitzea. Bestalde, gure arma guztiak probatzen ditugu, eta merkatuan ez da muniziorik egongo. Ehiz-tariekin muniziorik ez dute edukiko, kirol tiraketan ezingo dute entrenatu nahi beste... eta hori ez da ona izango gure industriarentzat.

Zeuek ere hasi behar izan omen duzue dagoeneko bala-zorroak berrerrabiltzen.

Bai, bertan errekaratzen ditugu. Horretarako, baimen bereziak behar dira, eta langileek formazio berezia jaso behar izaten dute. Munizio faltak halako irtenbideak topatu beharra dakar.

"BOST URTEAN 250-270 LANGILERA IRISTEKO ASMOA DUGU; 100 BAT GEHIAGO, BERAZ"

"GUK ARMA GUZTIAK PROBATZEN DITUGU, ETA EZ DA MUNIZIORIK EGONGO, UKRAINAKOAGATIK"

ERRESERBA EGIN ERRIOXAN

Informazio gehiago

La Rioja
lariojaturismo.com

D2030: ELKARRIZKETA

Miren Arregi ARRASATE

Mondragoneko Iraunkortasuneko eta Eraldaketa Sozialeko arduraduna da Ibon Antero. Kooperatibek gizarte eraldaketarekiko duten konpromisotik dihardu elkarrizketan, bai eta Debagoiena 2030ek eraldaketari egin diezaiokkeen ekarpenaz. **D2030eko Gobernu batzordean eta batzorde teknikoan dago Mondragon Taldea. Zein balio ikusten diozu ekimenari?**

Eskualdeko eraldaketa sozialerako epe luzeko eta inpaktu handiko estrategia sendoa eta iraunkorra bultzatzeko, ezinbestekoa da lankidetzarako marko iraunkorrek eraikitzea. D2030 ekimenak eskualdeak behar duen lankidetzarako sare ireki hori eskaintzen du, non eragile mota guztiek zein norbanakoek gaur egungo gizarte erronka partekatu batzuen inguruan batera ekiteko aukera duten. **Zein arlotan elkar elikatu daitezke Mondragon eta D2030 bera?**

Oinarrian elementu komun asko daude –garapen komunitarioan sakondu, eraldaketa digitala, berdea, soziala, lankidetzak...–, bai eta D2030en bueltan definitu diren proiektuen portfolioan ere: lanaren etorkizunarekin lotuak dauden erronkak, iraunkortasunarekin... Bestalde, kooperatiba ez diren beste eragile publiko eta pribatu batzuekin lankidetzan aritzeko espazioa eskaintzen du D2030ek. Eskualdeko kooperatiben artean nahiz bestelako eragileekin elkarlanean aritzeak eragiteko ahalmena eta inpaktua biderkatu egiten ditu. **Lanaren munduak zein alorretan ditu erronka nagusiak datazoen urteetan?**

Aurrean ditugun erronkak ez dira makalak. Ziurgabetasuna etengabea da, ikusi besterik ez dago egoera geopolitikoa, eta horri gehitu behar dizkiogu, gainera, enpresen trantsizio beharrak: mundu mailan lehiakorrek izango diren produktu, zerbitzu eta sektore berrietara zuzentzea; industriaren deskarbonizazioa eta eredu zirkularra; pertsona bakoitzaren erantzukizun

"Sarritan, elkarlanaz hitz egitea baino zailagoa izaten da aritzea, hor dago erronka nagusia"

IBON ANTERO MONDRAGON TALDEA

Debagoiena 2030 ekimenarekin elkarlanean dihardu Mondragon Taldeak hainbat arlotan. Izan ere, helburuetan eta egiteko moduetan bat datoz kasu askotan



Ibon Antero. MONDRAGON

aktiboa izango duten etengabeko prestakuntza praktiko, labur eta iraunkorrek; trantsizio hauek guztiak azkartuko dituzten finantzaketa mekanismo iraunkorrek...

Digitalizazioak, iraunkortasunak... ekarriko dituzten aldaketei aurre egiteko gertu dago Mondragon? Digitalizazioa eta iraunkortasuna zeharkakoak diren bi erronka nagusi dira, eta Kongresuak definitutako

2021-2024 Politika Sozioenpresarialean jasota daude. Negozio eta lanpostu askoren eraldaketa eta berrien sorrera ekarriko dituzte disrupzio hauek, lana eta prozesuak eraldatuz eta berriak sortuz. Epe luze edo ertaineko ikerketa eta transferentzia beharrezkoa da, eta epe motzera eragiten duten proiektuak. Horretan ari gara. **2050erako adimentsua, inklusiboa eta klimatikoki neutroa izango den eraldaketa bultzatzea du helburu D2030ek. Enpresek zein ekarpen dute egiteko norabide horretan?** Hiru ardatz horietan daude enpresek egin dezaketen ekarpena: adimentsua-eraldaketa digitalaren bidez; inklusiboa, sozialki justua den eredu batekin eta klimatikoki neutroa, produktu eta prozesuen ingurugiro inpaktua neurtuz, gutxituz eta konpentsatuz. **Gai horiekin lotuta, kooperatiben eraldaketa prozesua zein puntutan dagoela esango zenuke?**

Sektorearen araberako abiadura ezberdina da, baina pausoak jada ematen hasita daude kooperatiba gehienak. Eraldaketa digitalean prozesu eta sistemen berritzearekin batera, pertsonen gaitasunen hobekuntza programak garatzen ari gara. Eta berdin industriaren deskarbonizazioan, hainbat lantalde jarri dira martxan Ingurumen Foroaren bidez. Genero Berdintasun Foroa ere martxan dago. Bidea egiten ari

gara, erritmo ezberdinetan bada ere; norabide bererantz joatea da kontua.

Zein dira gakoak trantsizio horiek indartu daitezke? Elkarlana izan daiteke horietako bat?

Bai, hala da. Elkarlana trantsizio hauek hobetu eta azkatu ditzakeen osagaia da. Eta ezinbestekoa, gainera, eskualdeko eskala batean, eragiteko ahalmena eta inpaktua biderkatu nahi bada. Hala ere, elkarlanaz hitz egitea baino, aritzea izaten da, sarritan, zailagoa, eta hor dago erronka nagusia.

Debagoienari berari balio erantsirik ikusten diozu trantsizio hori bideratzeko orduan?

Arrasateko kooperatibismoa pertsonak eta ingurua eraldatzeko proiektu gisa sortu zen. Enpresa eredu berri bat sortzetik haratago, kooperatiba eraldaketa sozialerako egitura edo baliabide gisa ulertu zen. D2030 plataformaren izaera horretan oinarritzen da, XXI. mendeko beharrei erantzuna eman eta gizarte justu eta jasangarriagoa eraikitzeko helburuarekin. Abiapunturako minbre onak daude. Orain arte sortutako ekosistema eskala handiko gizarte berrikuntza adibide bakarrenetakoa da munduan. Hobekuntzak beharko ditu, baina balioan jartzeko elementuak ditu oinarrian. Aukera eskaintzen digu erronka eta balio berrien aurrean Arrasateko Kooperatiba Esperientzia berrinterpretatzeko eta hurrengo belaunaldien eskuetan uzteko gizartearen ongizatean eta ingurumenaren babesean oinarritzen den enpresa eta garapen eredua duen eskualde bat.

"KOOPERATIBA ERALDAKETA SOZIALERAKO BALIABIDE GISA ULERTU ZEN"

"ZIURGABETASUNA ETENGABEA DA, IKUSI BESTERIK EZ DAGO EGUNGO EGOERA GEOPOLITIKOA"

Fukushima, pil-pilean

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Oraindik bakailaoa pil-pilean egiteko egiteko besteko berotasuna dago
Fukushiman; erradiaktiboa irtengo litzatekeela, seguru, eta auskalo jaten ditugun arrainak zenbateraino

kaltetuta dauden erradioaktibitateagatik.
Japoniako autoritateek onartzen dute kontrolatu gabe kutsatutako ur asko joan zela itsasora, eta argumentu bezala erabiltzen dute kontrolatutako ur kutsatua botatzen hasteko; izan ere, toki barik gelditu dira, egunero sortzen baitute 150 tona ur erradiaktibo, depuratu

ondoren deposituetan gordetzeko.
Hamaika urte daramatzate ura botatzen kaltetutako uranioari; urak zirrikituetatik ihes egiten du eta mendiko urarekin nahasten da. Ur zati bat berrerabiltzen dute zentrolean eta beste zati bat depuratu egiten dute, baina zeharo ez, oraindik ez da-eta asmatu tritioa kenduko duen teknologiarik.

Oraindik energia nuklearra erabiltzen duten argindar-enpresei erosten diezula argindarra?

Eskerrik asko, Ndank Ndank!

KHADY NDONG

BERGARA

Khady Ndong naiz.
Dakarren, Fann erietxean, bihotzeko

polibalbulopatia zuzentzeko ebakuntza egin berri didate. Urte askoan ibili naiz ebakuntza atzeratzen, baliabide faltagatik. Eskerrik asko, nire familiaren eta nire partetik, Ndank Ndank elkarteari, laguntzeko kanpaina martxan jartzeagatik, eta ekarpena egin duzuen guztioi.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Salaketa-gutuna
Eskertza-gutuna
Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali **gutunak@goiena.eus** helbidera!

Erantzun-gutuna
Aldarrikapen-gutuna
Kexa-gutuna



ZABALIK

OIHAN VITORIA

Kazetaritza, beti galtzaile

Ez dira garai samurrak ekosistema mediatikoaren botere asezinari men egiten ez dioten medioentzat. Ezta kazetaritzaren zorrotasunean eta informazio iturri fidagarrietan sinisten dutenentzat ere. Galde diezailetela, bestela, Ukrainako gatazka belikoaren ondorioak jasaten ari direnei. Gerraren nondik norakoak zuzenean jarraitzeko premiazko lana egiten dute freelance kazetariak, eta, paradoxikoki, egia da gerraren lehen biktima.

Espioitza delitua leporatu diote Pablo Gonzalez euskal kazetariari, eta behin-behinean espetxeratu dute Polonian, Ukrainako errefuxiatuen iritsieraren berri ematen ari zela. Frogarik ezean, kazetariaren sortetria, lan egiten duen hedabidea, hizkuntza gaitasunak edota soinean zeraman kreditu txartela *argudio* bezala baliatu dituzte kazetaria atxilotzeko.

PABLO GONZALEZEK ASTEBETE DARAMA INKOMUNIKATUA, ABOKATUAREKIN HITZ EGIN EZINIK

Astebete darama inkomunikatua, senideekin eta abokatuarekin hitz egin ezinik.

Ez da adibide bakarra, zoritxarrez. Guztioi eragingo diguten zigorrak ezarri eta Errusia ekonomikoki itotzeko ahaleginak biderkatzeaz gain, Russia Today (RT) eta Sputnik hedabideen emisioak

eten ditu Europako Batasunak, "propagandarako tresna" direlakoan. Kontrapuntu gisa, nazioarteko hainbat komunikabidek Errusiatik informatzeari utzi diote, Putinek "informazio faltsuei" aurre egiteko eta "adierazpen askatasuna babesteko" onartu berri duen legearen beldur.

Mikel Aiestaran EITBren berriemailearen Twitter kontua ere desaktibatu dute ordu luzez, eta Gipuzkoako Auzitegiak Tele5 eta Mediaset zigortu ditu *prime time*-an EH Bilduren aurka eginiko akusazio larriengatik. Auzitara jo, eta arrazoia eman diote indar subiranistari: esandakoa zuzentzera eta gastuak ordaintzera derrigortu du epaileak Ana Rosa Quintanaren saioa, gogoz kontra bada ere.

Azken asteko kasuok balio dezatela botere mediatikoen gehiegikeria, eraso eta gezurren aurrean ez kikiltzeko; are gehiago, medio konbentzionalen mandatuei kargu hartzen dieten podcast kritikoak ugaritzen diren honetan. Denak ez baitu balio adierazpen askatasunaren izenean.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Zer egin hildakoen gauzeekin

OSKIA UGARTE

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Ama hil zenean, diru-zorroa oinordetzan jaso nuen. Amaren gauza guztiak atera nituen nireak sartzeko, Atenasera egin zuen bidaian erositako zigilu bat izan ezik. Seguruenik, diru-zorroan ahaztuta zuen eta ez zion inongo garrantzirik ematen, baina ez naiz hortik ateratzera animatu; horrela, diru zorroa irekitzen dudan bakoitzean ama nirekin zegoen garai hura berreskuratzen dudala iruditzen zait. Sineskeria hutsa izanen da, baina amak

utzitako zerbait aldatzen dudanean haren zati bat ahaztea bezala da. Aldiz, goma itsaskorra duen papertxo hura diru zorroan ukitzean eta berak egindako mugimenduak errepikatzerakoan gure gorputzek bat egiten dutela sentitzen dut.

Zer egin hildakoen gauzeekin? Ione Ateneak bere azken filmean egiten duen galdera da hau. Puntu de Vista jaialdiaren irekiera ekitaldian estreinatuko da *Los caballos mueren al amanecer* lana, eta gaur egun bizi den etxean aurkitu zituen objektuei eta haien jabeei buruz ari da. Etxebizitza horretan sartu

zenean, han bizi izandako hiru anaia-arreben objektu pertsonal guztiak aurkitu zituen: arropa, kaseteak, argazkiak... Hirurak artistak izan ziren eta etxea sorkuntza espazio bihurtu zuten. Objektu hauek manipulatzeari iraganeko zati bat ekartzen du Ionek orainaldira, familia honen kideen memoria eta gorputzak orainaldira deitzen ditu. Memoria eta artxibo lan ederra egin ohi du zuzendari honek, giro intimo hurbilean garatzen dira bere filmak eta prozesuaren pultsioa azaleratzen da. Pertsonala unibertsal bihurtzen du, pribatua dena politikoa dela aldarrikatuz.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagomaa,
Amaia Martinez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Berdintasun Lege berriak ia arlo guztietan eragiten du"

ELENA LAKA ABOKATUA

Imanol Beloki Unamuno DEBAGOIENA Berdintasun Legearen erreforma onartu berri du Eusko Legebiltzarrak. 2005a ezker indarrean zen legea egokitu eta berritu egin du berriak. Elena Laka abokatuak arau berriak ekarri dituen aldaketa nabarmenenak zeintzuk izan diren azaldu du, asteon, Goienako platoan.

Lege berria ezarri da, baina ez dago indarrean, ezta?

Eusko Legebiltzarrak martxoaren 3an onartu zuen legea, baina orain falta da aldizkarian agertzea, eta biharamunean sartuko da indarrean. Laster egingo da, baina oraindik ez.

Aldaketa nagusia izenean berean dakar lege honek. Formulatu egiten du indarkeria matxista; hau berria da, ezta?

Kontuan izan behar da 2005eko Berdintasun Legetik abiatzen dela. Aitzindaria izan zen Euskal Autonomia Erkidegoa Berdintasun Lege bat ezartzen, eta hortik etorri



Elena Laka abokatua Goienako platoan, asteon. IMANOL BELOKI

ziren berdintasun plangintzak, administrazio osoan berdintasuna txertatzea... Baina oraingo aldaketa honek 2005eko lege hori goitik behera aldatzen du, nahiz eta oinarri

horietatik abiatu. Oraingo legearen izena da: *Emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legea*. Hortik aurrera formulatzen dugu indarkeria matxista zer den, hainbat

neurri jartzen ditu... baina izenburutik adierazten du nondik nora joango den.

Biolentzia bikarioa ere kontuan hartzen du legeak, ezta?

Legeak esaten duena da emakumeen kontrako indarkeria matxista lehenengo mailako arazo soziala dela. Hau da, gizarte osoaren arazo moduan ipintzen du, eta giza eskubideen urraketa bat dela dio. Aitortza bat dago, eta horrela formulatzen du emakumeen kontrako indarkeria matxista. Gainera, indarkeria hori zenbait baliabideren bitartez egin daitekeela esaten du; fisikoa izan daiteke, psikologikoa, baina baita ekonomikoa ere. Adibidez, emakume bati umeentzako pentsioak ez ordaintzea izan daiteke indarkeria egiteko modu bat. Baina ez hori bakarrik: biktima horiek defendatzeagatik indarkeria sufritzen dutenek ere, hori ere indarkeria matxista dela dio, eta hor sartuko litzake biolentzia bikarioa. Eta, gainera, emakume guztien kontra egiten dena; kode penalean, bikotekide edo bikotekide ohia izatean adierazten da indarkeria matxista, baina lege honetan askoz zabalagoa da.

Zaintza aitortzen du legeak?

Zaintza ez-ordainduaren aitortza bat egiten du. Nekez ikusi daiteke orain arteko legeetan halako aitortza bat. Lan eta zaintza ez-ordaindua zenbatetsi egin beharko duela esaten du legeak, gizartearen zenbat ordu ematen diren zaintza ez-ordainduan eta etxeko lanetan kontabilizatuz. Ez du bermatzen zaintzaren sistema publiko bat; esaten du sustatuko dela, baloratuko dela... pertsona orok duelako zaindua izateko eskubidea... Zaintzaile ez-profesionalek aisia eta atseden eskubidea dutela ere esaten da, eta neurriak bultzatu beharko direla. Legeak erabiltzen dituen hiztegiari erreparatuz –*sustatu, bultzatu...*–, ez dira neurri zehatzak jartzeko lekua, horiek gero dekretu edo erregelamendu bidez garatu beharko dira.

Osasun arretari buruz jasotzen du ezer?

Bai, jasotzen du. Esparru zabala hartzen du legeak, eta ia gizartearen arlo guztiak hartzen ditu. Guztietan txertatu beharko da genero ikuspegia, eta neurri konkretuak hartu beharko dira. Hala, osasunean ere jarri beharko dira neurriak; arreta publikoa bermatu beharra dago, eta aurreikusten du legeak jasotzea.

ITURRI ONETIK

Abbadia saria 25ean jasoko du Fagor Taldeak

Martxoaren 25ean jasoko du Fagor Taldeak 2021eko Abbadia saria. Arrasaten, Kulturolako sarreran, egingo den ekitaldi berezian banatuko du saria Markel Olano diputatu nagusiak. Kepa Errasti aktore aretxabaletarrak aurkeztuko du saioa eta umorea eta musika izango ditu osagai nagusi. Goienak zuzenean emango du, bai *Goiena.eus*-en eta baita Goiena telebistan ere, 11:00etan hasita. Lan esparrua euskaratzeko egindako lanaren aitortza jasoko du Fagor Taldeak.

ALBISTE IZAN ZEN



2016-03-10

Hiriburuetak alkateekin euskaraz

Mahai-inguru historikoa antolatu zuen Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Euskara Batzordeak, lehenengo aldiz, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetak eta Iparraldeko bateko alkateak euskal hiztunak direla aprobetxatuta. Juan Mari Aburto, Joseba Asiron, Mixel Etxebeste, Eneko Goia eta Gorka Urtaran batu ziren, *Euskararekiko harremana eta etorkizuneko erronkak* aztertzeko.

HAU BE BADOGU!

Erregaiaren prezio igoera, hizpide sarean

Erregai fosilen igoerak txantxa ugariz bete ditu sare sozialak:

@torrealdai: "-Kaixo mailegu bat eskatzera nator. -Oso ondo, zertarako? -Furgonetako gasolina depositua bete nahi dut".

@tirodegracia: "Auto bat zorabiatu egin da gasolinaren prezioa ikustean".

@paulaaramos: "Barkatu Daddy Yankee, jada ez zaigu gasolina gustatzen".

@xabikarri: "Gasolina bota behar dudun aldiro organo bana saldu behar badut, laster hutsik nago".

@ixasti: "53 litro gasolina: 102 . 53 litro kalimotxo: 66 ".

Gobernuak auzoetan egin du inbertsioen %78

EAJren eta PSE-EEren Gobernuak, agintean den azken zazpi urteetan, ia hamabi milioi euro inbertitu ditu herriko auzoetan, erdigunera bideratutakoa baino lau aldiz gehiago. Izan ere, erdigunean 3.310.000 euro inbertitu ditu, eta egindako inbertsio guztien %22 da hori

Eneko Azurmendi ARRASATE

Agintean den azken zazpi urteetan 35,5 milioi euro bideratu ditu Udal Gobernuak inbertsioetara. 35.500.000 euro horietatik, kultura eraikinetara bideratu du gehien: 13.350.000 euro; urbanizazio lanetara, berriz, 6.634.000 euro; igogailu publikoak ezartzera, 5.384.000 euro; haur parkeen berritzera, 2.135.000 euro; kirol inbertsioetara, 862.000 euro; asfaltatze lanetara, 783.000 euro eta espaloien konponketa- ra, 500.000 euro.

Maria Ubarretxena alkateak adierazi du azken 30 urteetan Arrasateko auzoak "guztiz abandonatuta" egon direla. "Udal Gobernuan sartu ginenean, asko zegoen egiteko eta oraindik ere asko dago egiteko", dio.

Hori hala izanik, ia hamabi milioi euro bideratu dituzte auzoetara, inbertsio guztien %78. "Datu horiek mahai gainean jartzearekin batera, herritarrei adierazi gura diegu Gobernu honen irizpidea dela bide bere- tik jarraitzea. Izan ere, badaki- gu auzoek behar handiak dituz- tela, eta auzoetan inbertsio nagusiak egiten jarraituko dugu", gaineratu du alkateak.

Arrasaten "auzo altu asko" daudela eta, igogailu publikoetan egin dituzte inbertsio nagusiak. "Azken batean, adineko herritar asko daude eta goiko auzo ho- rietan irisgarritasuna falta zen".

Gehien, San Andresen

San Andres auzoan inbertitu dute gehien: 2.852.000 euro; Er- guin-Gorostiza auzoan, 2.802.500 euro; Santa Teresa auzoan, 2.200.000 euro; Makatzena-Obe- nerrekan, 1.733.000 euro; landa auzoetan, 890.000 euro; Uribe Eta Uribarri Etorbidean, 631.000 euro; Musakolan, 505.864 euro; Munar auzoan, 491.000 euro; eta erdigunean, 3.310.000 euro. In- bertsio guztien zerrenda *Goiena. eus*-en dago ikusgai.



lazko uztailen inauguratu zituzten Erguingo igogailuak. E.A.

Bi parke berritzeko prozesua, abian

Udal Gobernuak Uribe auzoko eta Legarra plazako parkeen diseinu berria aukeratzeko prozesu parte-hartzaile bat jarri du martxan. Izan ere, instalazio horiek berrituko ditu 120.000 euroko partida batekin, 2022ko udal aurrekontuan jasota dagoen moduan: 40.000 euro Uribe parkerako eta 80.000 euro Legarra plazarako.

Gobernuak azaldu duenez, hamabost urtetik gora dituzten parkeak dira biak, eta "eraberritze sakona" behar dute. Uribeko parkeak 375 metro koadro ditu eta Legarrakoak, 745. Proiektatutako aukerak 27 dira: hamahiru Uribe auzoarentzat eta hamalau Legarra plazarentzat. "Proposamen guztiek dibertsitate funtzionala dutenei egokitutako elementuak dituzte". *Arrasate.eus* webgunean eta BAZen bozkatu daiteke, martxoaren 20ra arte.

Zazpi proiektu 2022an

Halaber, zazpi proiektu dira 2022an gauzatuko dituztenak: Makatzena eta Obenerrekako parkour parkea (200.000 euro), Musakolako Legarre Plazako parkea (80.000 euro), Santa Te- resako igogailuak (2.200.000 euro), San Andreseko Leintzibar ka- leko bidegorria (320.000 euro), Uribe auzoko parkea (40.000 euro), Gautxori eremuaren berrurban- izazioa (1.300.000 euro) eta Garagartzan Fibrocemento ho- diak aldatzea (460.000 euro). "Hasieratik garbi izan dugu

auzoetan inbertitu behar genuela; hori egin dugu agintean da- ramatzagun urte guztietan eta horretan jarraituko dugu aurre- rantzean ere", dio Ander Garay Ogasun zinegotziak.

Erdiguneari dagokionez, 2022an, zuntz optikoaren ezar- pen (220.000 euro) eta Egune- ko Arreta Zentroa (475.000 euro) egingo dituzte. Era berean, Jose Luis Iñarra kaleko eta Grupo San Juango berrurbanizazioak ere egin gura ditu Udal Gober- nuak: "Betiere, bizilagunen iri- tziak jasota eta partekatuta".

Berritu egin dute memoria partekatua helburu duen liburua

534 biktime gehiagoren giza eskubideen urraketak jaso dituzte Udalak eta Intxorta 1937 Kultur Elkartek

E.A. ARRASATE

Memoria partekatu baterantz. Arrasate 1936-1956. Gerra, erre- sistentzia eta frankismoa liburua- ren beste edizio bat egin dute Intxorta 1937 Kultur Elkartek eta Arrasateko Udalak, hainbat herritarren testigantza berriekin, eta 534 biktime gehiagoren giza eskubideen urraketak jaso dituz- te edizio berrituan. Modu horre- tan, liburuak 72 orrialde gehiago ditu, 96 argazki gehiago eta 34 dokumentu berri.

534 biktimei dagokienez, 57 matxinatu eta 477 erresistente

dira -92 preso, 32 gudari edo mi- liziano, erbestera ihesi joanda- koak, ardura politikoa zuten 10 pertsona eta abar-. "Haien bizipen eta askotariko kontakizunei esker, urteetan pairaturiko indarkeriak Arrasaten izandako eragina jaso ahal izan da, eta herriko biziki- detzan izandako eragina". Libu- ruak 333 argazki eta 88 dokumen- tu ditu jasota. Bigarren edizioak, berriz, 72 orrialde ditu, 96 argaz- ki eta 34 dokumentu berri.

Era digitalean dago, *www.arra- sate.eus* eta *www.intxorta.org*-en sartuta.



JULEN IRIONDO M. DE ZUAZO

'Askatu' liburua aurkeztu dute

Martxoaren 7an bete dira hamalau urte ETak Isaias Carrasco Arrasateko zinegotzi ohi sozialista erail zuela. Gertaera hura eta ordutik gaur egunera arteko urteak eta egoera oinarrian dituen nobela aurkeztu zuen joan den egubakoitzean Antonio Lara Ramos historialari eta idazle andaluziarrak Kulturaten: *Askatu. Portal número seis*. Informazio gehiago, *Goiena.eus*-en.

85.000 euro gizarte arloko talde eta erakundeetara

2021ean, Arrasateko Udalak ia 85.000 euro bideratu zituen di- rulaguntzetan gizarte arloko talde eta erakundeetara.

Gizarte arloko taldeek 21.591,6 euro jaso dituzte, eta hauek dira: Acabe, Ademgi, Affes, Atece, Atzegi, Atzegi (Txolarte), Fun- dacion Syndrome de Down, Goie- nagusi, Harreman, Hurkoa, Iturri- gorri elkarlana, Izan, MSH-

AMS, Banco Alimentos de Gi- puzkoa, Gautena, AECC, Ortza- dar, Sarea fundazioa, Gurutze Gorria, Nagusilan, SOS Arraza- keria, Inme, Adahigi, Katearen Loturak, Aspace, Alcer, Algara- klown eta Telefono Esperanza.

Garapen arlokoek 55.300 euro jaso dituzte. Honako hauek dira: AMSMSH, Amsogra, Garaibide, Harreman, Oscar Romero Soli- daritza Batzordea, Serso San Viator, ONG taupadak, Zaporeak Solidarios Garapenerako Elkar- tea eta Ndank Ndank.

Herritarren eskaeretara moldatuko dute TAO

Ordainpeko sistema kale gehiagotan ezartzea, aparkatzeko epeak luzatzea eta prezioak merkatzea daude Udal Gobernuak apirileko osoko bilkuran proposatuko dituen aldaketan artean. Egokitzen ari diren martxan jarri gura dituzte

Hasier Larrea ARRASATE

Urritik hona, aparkatzeko sistema berriarekin lotutako 194 eskaera jaso dituzte Biztanleen Arreta Zerbitzuan. Horietatik %40k dute zerikusia ordaintzeko sistema TAOrik gabeko eremuetan ezartzearekin, hala nola Erguingo Uriburu kalean, Zerrajeran eta Altamira Azpin.

Mugikortasun urriko pertsonen eta gremioen keak ere egon direnez, lehenengoei doako aparkalekua eta bigarrenek herrian zehar mugitzeko agiri berezi bat izango dute astelehenetik aurrera. Baimenok lortzeko, BAZera joan beharko dute, lehendabizi.

Epe luzeagoko eremu gehiago

TAO arina –marra zuri-urdin jarraituak– "ia erabat" murrizteko asmoa du Udal Gobernuak. Hala, Mondragones kaleko, Otalora eta Nafarroa etorbideko tarte batzuk TAO arruntarekin –urdina– eta luzearekin –urdin eta berdea– ordezkatzeko dituzte. "Aparkatzeko aukera malguagoa eskaini nahi dugu; hartara, ordu erdiz beharrean, bi orduz eman go dugu doan aparkatzeko aukera", adierazi du Maria Ubarretxena alkateak.

Ildo beretik, gune berde eta urdin gehiago sortuko dituzte



Uriburu kaleko aparkalekuak, autoz beteta. H.L.

Gudarien plazan, Arrasate pasealekuan, Bizkaia etorbidean, Otalora Lizentziaduna kalean eta Aprendices eta Txaeta kaleetan.

Araba etorbideko, Munarko eta Amaia antzoki alboko eremu gorriak ordu eta erdiko doako aparkalekuak izatetik bi ordukoak izatera pasatzea ere aurreikusi dute.

Prezio merkeagoak

TAO arruntan, bestalde, lau orduz aparkatzea baimendu nahi dute, hiru orduz beharrean. Bertan hirugarren eta laugarren

orduagatik ordainduko dute gidariei, 80 zentimo orduko. Merkeagoa izango da, baita ere, TAO luzea: euro bat balioko du goizez edo arratsalde aparkatzeak eta 2 euro egun osoz.

Hirugarren txartela

Etxebizitzetan hirugarren txartel bat ahalbidetzea da esku artean duten beste moldaketa bat. Bigarren ibilgailuaren txartelaren kostu bera izango du hura eskuratzeak. Egun, 2.484 egoiliar-txartel banatu dituzte, San Andres auzoan gehienak.

"Hirietako trafikoa"

TAO sistemak jasotako kritiken artean dago Arrasateri hiri baten antzeko trataera eman izana. Trafikoari dagokionez, bailara herriekiko ezaugarri desberdinak dituela adierazi du Ubarretxena, eta desplazatzen diren ibilgailuen eta aparkatzeko plazen arteko diferentzia jarri du fokua: "Arrasaten 13.483 auto daude errolatuta, 1,5 auto etxebizitza bakoitzeko, eta autoaren erabilera asko handitu da herri barruko desplazamenduak egiteko. Gainera, 5.000 auto sartzen dira zentrora egunero. Horri erantzuteko, Arrasaten 6.555 aparkaleku daude lur azalean –horietatik %91 libreak– eta 6.230 plaza lurrazetik kanpo".

Aldaketak, "normalak"

TAO ezarrita dagoen beste zenbait herritan unean uneko aldaketak egin izan dituztela argudiatu du alkateak, eta berdin gertatuko dela Arrasaten ere: "Trafikoa eta aparkalekuak ordenatzeko tresna bizia da TAO, etengabeko aldaketak egitea ahalbidetzen duena; hauek izango dira lehenak, baina, ziur aski, gehiago etorriko dira gerora".

Proposamen guztiak apirileko osoko bilkuran aurkeztuko ditu Udal Gobernuak, "TAO ordenantzen aldaketa puntual" gisa. Behin tramitatu, 20 egunez jarriko dute buletina jendaurrean, herritarrek alegazioak jar ditzaten, behar izanez gero. Aparkaleku asko berriz margo beharko direnez, lanok udan zehar egitea espero du Udal Gobernuak.

Beraz, dena ondo bidean, udatik aurrera, orain arte baino denbora luzeagoz eta merkeago aparkatzeko aukera egongo da Arrasaten.



NIRE USTEZ

MARIXE
RUIZ DE AUSTRI

Banaketez

Itsas-izarrek beso bat moztzen dute, eta banaketa horri esker erreproduzitzen dira. Zeluletan ere banaketak gertatzen dira, horri esker bizi eta hazten gara izaki bizidunok. Dibortzioa legala denetik ere, urte askotan bidaide izan direnen ibilerek norabide ezberdinak jarraitzen dituzte. Zatiketak ez du berez peioratiboa den ezer.

Errazagoa da zatiketa handia den zerbaitetan, paretak are eta pisu gehiago jasan arrakalatzeko arriskua areagotzen da. Feminismoan ere horrelako zerbait gertatu dela ikusten dugu; lau katu batzetik mugimendu masibo bat izatera igaro da, kaleak betetzera eta, kapitalismoak bere moldatzeko gaitasunarekin xurgatu duen zerbait izan eran, guztiz desitxuratu eta despolitizatu egotera. Badaude ororen gainetik batasuna beharrezkoa dela aldarrikatzen tematen direnak, ezberdintasunak guztiz erradikalak direla konturatu gabe, agian.

Nire ahizpak transak dira, zisak, arrazializatuak, heteroak, bisexualak, bollerak, altuak, aniztasun funtzionaldunak, baxuak, gizenak, argalak, ile motzdunak, luzedunak, ederrak, itsusiak... Baina ez burgesak.



RPS: 111/20

AMAGARA
Estetika Zentroa



**Eguraldi onerako
presta zaitez!**

Beltzaran-kolore argitsu eta uniformeak izateko:

- Peelinga eta gorputz hidratazioa
- Solariumerako bonua: 10 saio + 2 doan

*Etor
zaitez!*

Erdiko kale 54, behe 20500 Arrasate • 943 79 09 09 • www.amagaraestetikazentroa.es • facebook.com/amagara

"Ontzi-garbigailu barik hasi nuen Martxoaren 8a"

KAITIN ALLENDE ZALDUNBIDE IRRATI ESATARIA ETA BAKARRIZKETARIA

Gaur, egubakoitza, Kultureteko areto nagusian, 'Umore feminista oholtzara' izenburuarekin bakarrizketak egingo dituzte, 19:00etan hasita

Xabier Urtzelai ARRASATE

Kaitin Allende Zaldunbide, Bea Egizabal Ollokiegi eta Belen Nevado Mendez igoko dira gaur, egubakoitza, Kultureteko areto nagusiko oholtzara (19:00) jendea barrea eragitera. Emakume Txokoak Martxoaren 8aren bueltan antolatutako hitzordua da. Hala, bakarrizketak euskaraz eta gazteleraz egingo dituzte, baina Allendek GOIENARI aitortu dio gaurko hiru protagonistek elkarrekin ere egingo dutela zerbait.

Zelan bizi izan zenuen Martxoaren 8a?

Eguna aldrebestuta hasi nuen, ontzi-garbigailua hautsi zitzaidan-eta goizean; ja, ja, ja! Noiz eta Martxoaren 8an, halako gauzak gertatzen zaizkit niri... Baina arratsaldean bakarrizketa saio bat izan nuen Urduñan eta ederto ibili nintzen. Gainera, gazteleraz egin nuen saioa eta niretako erronka izan zen. Egunari buelta eman genion!

Autoan harrapatu zaitugu, beste bakarrizketa batera bidean, akaso?

Ez, ontzi-garbigailu bat erostera noa; ja, ja, ja!

Gaur Arrasaten egingo duzuen bakarrizketako edukia propio egokitu duzue?

Ez, esku artean daukadan bakarrizketa saioak emakumezkoen gainean egiten du-eta berba. Gero, saioaren nondik norakoak ikusita, posible da inprobisaziorako tartea ere egotea, joango gara ikusten.

Eta Bea Egizabalen eta Belen Nevadoren kasuan ere berdin, ala?

Aurreratu dezakedana da hirurok elkarrekin zerbait egingo dugula, baina, printzipioz, bakarrizketak bere bakarrizketa egingo du. Baina bai, sorpresak ere egongo dira.

Zailagoa da barrea eragitea ikus-entzuleak sarrera ordaindu egin badu? [Gaurko saioa doanekoa izango da]

Ez dut uste ezberdintasunik dagoenik, umorea beti da ber-



Kaitin Allende, bakarrizketan, Goienakide ekimenaren aurkezpenean. X.U.

"EMAKUMEZKO BAKARRIZKETARIEN ARTEAN 'BOOM' MODUKO BAT GERTATU DA ORAIN"

dina. Sarrera erosi edo ez, edo bakarrizketak barregura sortzen dizu edo ez. Alde horretatik, bakarrizketariak berdin-berdin prestatu behar du saioa, eta beti joan behar du onena ematera. **Martxoaren 8aren bueltan antolatutako saioa da gaurkoa. Umoretik errazagoa da aldarrikapena egitea?** Zalantza barik! Umoreak 1.500 aukera ezberdin ematen dizkigulako. Serio jartzen baldin bagara, eta gauzak zelan dauden ikusita, negargura sartzen zaigu, eta negarra eragitea oso gauza erraza da. Horregatik joan behar dugu erronka handiak gainditzera eta barrea eragitera; izan ere, umorea erabilita iristen gara beste inor iristeko kapaz ez den puntu horretara.

Eta gizonezkoek zelan joan behar dute bakarrizketa saio horretara? Barre egiteko gertu! Nire bakarrizketan, bereziki, neure buruaz

egiten dut barre, nire bizitzaren pasarteak kontatzen ditut, eta, alde horretatik, inor ez dadila arduratu. Mundu osoa dago saiora gonbidatuta!

Azkenaldian, geroago eta emakumezko gehiago ikusten ditugu oholtza gainean bakarrizketak egiten.

Bai, egia da; *boom* moduko bat gertatu da. Akaso, orain arte bakarrizketak egiten ibili direnei kasu gutxi egin diete, eta orain, plataforma gehiago dauden honetan, aukera gehiago daude.

Abian da liztor beltzaren aurkako tranpatze kanpaina

Arrasateko Udalak 44 puntutan jarriko ditu tranpak, herrian sakabanatuta, eta, horretarako, iazko kanpainaren emaitzak kontuan hartu eta habiak kendu ziren tokiak indartuko ditu. Horrez gain, borondatezko talde batek –erlezainak gehienak– herriko beste sei puntutan jarriko ditu 18-20 tranpa.

Ukrainari buruzko bi berbaldi antolatu ditu Askapenak

Ukrainan egunotan gertatzen ari dena izango dute berba. Lehen Arrasateko gaztetxean izango da, martxoaren 13an, domeka, 18:30ean, eta Ibai Trebiñok egingo du, *Donbass, gerra Europaren bihotzean* dokumentalaren egileetako batek. Hitzaldiarekin batera, 2022ko Askapenako brigaden aurkezpena egingo dute.

Euskal Herriko Mus Txapelketa domekan Irati tabernan

Euskal Herriko Mus Txapelketaren 13. edizioa izango da, eta Irati tabernan jokatuko dituzte Arrasateko kanporaketak, domekan, 16:00etan –20 euro bikoteko–. Hala, zazpi herrialdeetako finalak martxoaren 26an eta 27an jokatuko dituzte. Eta final nazionala Baigorriin jokatu dute, apirilaren 9an. Informazio gehiago, ehmus.eus atarian.

Dinamizatzailea kontratatu gura du Geikek

Arrasateko euskalgintza batzen duen Geike mahaiak pertsona bat kontratatu gura du 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo duten Euskaraldiaren antolaketa dinamizatzeko. Hautagaiek aukeraketa prozesu batean parte hartu beharko dute. Informazio gehiago, aed@aedel-kartea.eus helbidera idatzita edo 943 77 12 28 telefonora deituta.

Mabel Marijuanek berbaldia egingo du Kulturaten

Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta, *Erantzukizun pertsonala gure bizitzaren kudeaketan* berbaldia egingo du Mabel Marijuanek, Medikuntzako doktore eta EHUKo Bioetika irakasleak. Martxoaren 14an izango da, astelehena, 17:30ean, Kultureteko areto nagusian. Internet bidez ere jarraitu ahal izango da saioa, Youtube bitartez.

Perlatak 'Las barreras' bideoklipa aurkeztuko du Iratin

Arrasateko Perlata punk rock musika taldeak *Las barreras* izeneko bideokliparen aurkezpena egingo du domekan (12:00) Irati tabernan. "Eta domeka gauean Youtuben zintzilikatuko dugu bideoklipa", adierazi dute euren sare sozialetan. Hala, bideokliparen grabaketako *making-off*-eko erretratuak zintzilikatu dituzte Instagramen.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

beinke



Obrafo protagonista leihokarraturantz begira, eta bertan, imajinatzen ari den irudia. GERARDO SANZ

Haurren mundu-ikuskerazagutzeko leihok irekia

Paraiso antzerki konpainiak 'Leihok' ikuskizuna taularatuko du bihar, 17:00etan hasita, Amaia antzokian. Etxeko txikienei begira sortutako obra da, eta gauzak lehen aldiz ikustean sortutako zirrara landu gura du, eraikitako irudi eta soinu bitartez

Hasier Larrea ARRASATE

Arrasateko Udaleko Kultura Sailak *Leihok* haur antzerki saritua programatu du zapatu-rako. Hain zuzen, Espainiako haur antzerki sariketa garrantzitsuenetako batean, Gijongo Feten ferian, obrarik onenaren saria jaso zuten Paraiso konpainia gasteiztarreko antzerkigileek.

Antzezlanaren sorkuntza eta interpretazioko partaide Rosa A. Garciaren esanetan, azken emaitzara heltzeko "lan handia" egin behar izan dute proiektuko kideek: "Honako galdera hau proposatu genuen: *Nola irakurtzen dituzte haurrek irudiak?* Horri erantzuten saiatzen gara funtzioan zehar, leihotik isilean begiratzen dutenean ez dakizulako begien aurrean dutena edo imajinatzen ari direna ikusten duten". Hartara, oinarritzko sentsibiltateak landuko dituzte, "euria, elurra, zerua, itsasoa, landareak" eta halako elementuak gorputz mugimenduekin, objektuz, argiz eta itzalez eraikitako

irudiekin eta soinu zainduekin taularatuta.

Hitzik gabeko kontaketa

Ekaitzagatik etxetik irten ezin dagoen emakume batek –Garcia bera– eramango du kontaketa pisua, eta leihoken beste aldean agertuko den Jone Amezaga Calderon estilistarena eta Pedro Guirao musikariarena. Protagonistek ez baitute hitzik egingo, irakurketa ireki bat iradokitzea baita lanaren asmoa:

**EKAITZAGATIK
ETXETIK IRTEN EZIN
DEN ANTZEZLEAK
MUNDU BERRI BAT
DESKUBRITUKO DU**

"Kartelean 2 eta 5 urte artekoek zuzendutakoa dela esaten dugu, baina haur gazteagoak eta zaharragoak ere etor daitezke. Eta gurasoak, noski; beraiei konfinamendua etorriko zaie gogora, leihotik kanpora begiratuta konektatzen baikenuen orduan munduarekin".

"Lotura zoragarria"

Ildo beretik, haurren eta gurasoen artean sortzen den emozioa gauza ederra dela azpimarratu du Garciak, "gauzak lehen aldiz deskubritzearen kuriositatea" berreskuratzen baitute nagusiek. Aldiz, txikienei arreta bereziarekin jarraitzen dute kontaketa: "Intentsitate handiz begiratzen dute, gorputz osoarekin sentitu eta amaieran besarkatzen zaituzte. Bizi osoa daramat haurrentzako antzerkia egiten eta harrera hori da gehien gustatzen zaidana", ondorioztatu du.

Obra bera bezala, hitzik gabe geratu nahi duenak badaki non daukan hitzordu interesgarria.

Arrasate literatur lehiaketan 35. aldia martxan jarri du AEDk

Urtero bezala, sortzaile gazteek sei genero ezberdinetan trebatzeko eta parte hartzeko aukera izango dute

H.L. ARRASATE

2022ko Arrasate literatur lehiaketa abiatu du jadanik AED euskara elkarteak. Hori horrela, LH-5 eta DBH-2 mailen artean daudenek ilustrazioa, narrazioa eta bertso-paperak jorratu ahal izango dituzte eta DBH-3 eta batxilergoko bigarren mailaren artean daudenek, oster, komikia, mikroipuina eta poesia. Partaideek aed@aedelkatea.eus helbidera bidali beharko dituzte lanak, maiatzaren 8a baino lehen; epaimahaikideek ekainaren 21ean emango dute irabazleen berri, Kulturaren egingo den sari banaketa ekitaldian.

Bi artistaren laguntza

Sariketako aurreko aldietan parte hartutako bi artista gazteren kolaborazioa izango dute antolatzaileek aurtengo ere. Izan ere, Kattalin Linazisororen He-



lazio sari banaketa. H.L.

gan mikroipuinean oinarritutako dira ilustrazio lehiaketako partaideak; Libe Argoitiaren ilustrazioan, berriz, narrazioa lantzea aukeratzen dutenak.

Informazio osagarria eta oinarri orokorrak, *Arrasate literatur lehiaketak* blogean.

Helduentzako magia ikuskizunak unibertsitatean

Mondragon Goi Eskola Politeknikoak helduentzako doako magia zikloa abiatu du, hirugarren aldiz, Biteri ikastetxe egoitzan. Guztira, hiru ikusizuneko egitaraua atondu dute; joan den astelehenean egin zuten lehen saioa, Patxi magoaren eskutik. Datorren astelehenean, hilak 14, Eriz magoak izango du ikus-entzuleak txundituta laga-

tzeko ardura; eta martxoaren 21ean beste horrenbeste saiatuko da egiten Marsel magoa. Bi hitzordu horiei 18:45ean emango diete hasiera.

Aurtengo magia zikloak diziplinaren misterioetan murgiltzeko aukera ere eskainiko du, ikasi nahi dutenei begirako tailer didaktikoa antolatu baitute martxoaren 30erako, asteazkena. Saio hori Altrius magoak gidatuko du, 18:45ean hasita. Gehiago jakiteko, biteriin@mondragon.edu helbidera idatzi.

Irantzu Varelaren bakarrizketa datorren eguneko Koolturen

Portugaleteko kazetari feminista ikus-entzuleengan barrea eta probokazioa sortzeko helburuarekin igoko da gaztetxe ohol-tzara hilaren 17an, 22:00etan hasita. Kontzientzia politikoa handia duen emakumea da Varella, eta garrantza bere iritziak plazaratzean. Sistema patriarkala izan ohi dute jomugan haren diskurtsoak.



Irantzu Varela. I.V.

Kiroldegiko obrak esleitzea onartu dute

2022ko Aramaioko udal aurrekontua onartu dute, 2.670.882,19 eurokoa, EAJko zinegotzien aurkako botoekin. Partida handiena kiroldegiko obrak egitera bideratuko dute. Bilkurako eztabaida sutuena eraikinetako pintaketan harira izan zen

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Ezohiko osoko bilkuran onartu dute 2022ko Aramaioko udal aurrekontua: 2.670.882,19 euro. 2021eko ekitaldiarekin alderatuta, %46,92ko igoera izan du aurrekontuak. Arrazoi nagusiak bi dira: batetik, FOFELetik jasoko den partida handiagoa izango dela; eta, bestetik, bi inbertsio handi aurreikusten direla. "Kiroldegiko obrak egingo ditugu: batetik, teilatua konponduko dugu eta kanpoko frontoiari teilatua jarriko diogu. Jendaurrean ikusgai egongo da proiektua eta prozesu guztia pasa ondoren esleipena aterako dugu", azaldu zuen Lierni Altuna alkateak. Bestetik, kiroldegian instalazio bat jarri nahi dute eraikin publikoari argindarra emateko; hau da, autokontsumorako.

EAJk aurka bozkatu zuen

Aurrekontua EH Bilduko zinegotzien baiezko botoekin eta EAJko bi zinegotzien kontrako botoekin onartu zuten. Pedro Elozegi EAJko zinegotziak hau esan zuen: "Guk iaz proposatu genituen hainbat emendakin. Ez zituzten onartu; gobernu taldeak esan zuen batzuk egingo zirela, beste modu batean. Aurtengo gure planteamendua berbera izan da; eta proposamenak



Ezohiko osoko bilkuraren une bat. A.E.G.

ez dira ezta onartu ere egin. Gainera, iaz esandakoak ez dira egin urtean zehar. Hori horrela, gure botoa, argi eta garbi, kontrakoak izan da".

EAJko zinegotziek egindako proposamenak izan ziren, besteak beste: nagusiendako egoitza bat egiteko azterketa egitea Aramaion; Arrasatera doan kolektorea egitea; aparkalekuen egoeraren gainera azterketa egitea; eta herriko eraikinetako pintaketak ezabatzea. Alkatearen erantzuna izan zen hainbat proiektu egitea Foru Aldundia-

ren esku dagoela: "Aramaion erresidentzia bat egiteko bidea Foru Aldundiak itxi du. Udalak ezin du bere kargu hartu kostu hori". Aparkalekuen harira, aldiz, alkateak erantzun zion arazoa ez dela aparkaleku gutxi dagoela, arazoa dela "gaizki" aparkatzen dela.

Eztabaida pintaketan harira

Osoko bilkurako eztabaida sutuena pintaketan harira izan zuten bi alderdiek. EAJk herriko eraikinetan daude pintaketak ezabatzeko eskatu izan dio azken

Inbertsioak nagusiak

Zerbitzuak

Eraikin publikoen autokontsumo instalakuntza: 85.000,00 euro

Ingurumena

AFA Kruzeta bide zaharra konpontzea: 15.744,00 euro

AFA Kanadar pasoa: 11.000,00 euro

AFA Landaketak eta itxiturak, Arrimikilleta: 16.401,00 euro

Ibilbide seinalezapena eta panelak: 5.600,00 euro

Hirigintza

AFA Obra txikiak: 34.893,25 euro

AFA Auzolanak: 23.769,14 euro

Lurrak erostea: 2.000,00 euro

AFA Etxaguengo errota: 11.155,48 euro

Kiroldegiko zuzendaritza: 24.500,00 euro

Udal laguntza eskola: 43.094,10 euro

AFA Plan forala, kiroldegia: 494.625,65 euro

Oharra: Aramaioko Udalak emandako datuak.

hilabeteetan Udal Gobernuari; alkateak, aldiz, irizpide batzuk ezarri behar direla erantzun izan dio: "Eraikin publikoetako pintaketak ezabatzea bideratuta dago. Baina pribatuetoak? Uste dugu irizpide batzuk zehaztu behar direla... Beti garbitu behar dira denak? Egiten diren denak? Non dago muga...". Elozegi argi du: "Erabakia erraza da: kendu edo ez kendu".

Aurrekontuan aurreikusten ez diren bestelako premiak gautzeko partida berezi bat gorde dute, 107.271 eurokoa, hain zuzen. Lehenetsuna izango dute euriteek eragindako kalteak konpontzeko egin beharreko lanek.

Bestelako gaiak

Udal kiroldegia eta beste hainbat udal-guneren garbiketa, zaintza eta mantentze zerbitzua kontratazio publikora ateratzea onar-

tu zuten, aho batez. Kontratazio publikora aurkezteko epea martxoaren 17a izango da.

Talde soziokulturalak diruz laguntzeko deialdiaren oinarriak eta auzoetako jaiak diruz laguntzeko deialdiaren oinarriak ere onartu zituzten, aho batez.

Udalaren jabetzako landa-bideen eta karga-lekuen erabilera arautzeko ordenantza aldatzea ere onartu zuten: orain arte, karga-lekuek tasa izan dute, eta, aurrerantzean, fidantza ere izango dute. Karga-lekuen erabileraren jarraipena samurtzea da aldaketaren helburua.

UDALAREN KARGA-LEKUEN ERABILERAN ALDAKETA: FIDANTZA IZANGO DUTE AURRERANTZEAN

Emakumeek egindako ekarpena aitortu dute, erakusketa bidez

Martxoaren 8a aprobetxatu zuten kaleko erakusketa iraunkorra inauguratzeko, bisita gidatu bidez

A.E.G. ARAMAIO

Aramaioko emakumeen historia berreskuratzen erakusketaren bisita gidatua egin zuten martitzenean, martxoaren 8an. Herriari nolabaiteko ekarpena egin dieten hamabi emakume ekarri

dituzte gogora, eta euren izen-abizen eta biografia txiki batekin kaleko erakusketa iraunkorra muntatu dute.

Hamabi emakume horien bitartez, emakume guztien lanari balioa eman nahi diote.

Lierni Altuna alkateak eta Cristina Etxenausia zinegotziak gidatu zuten bisita; gainera, herritarren laguntza izan zuten emakumeen gaineko ekarpenak egiteko. Mari Tere Irasuegi, Felipa Etxebarria, Mari Cruz Guruzeta, Timoti Etxebarria, Lucia Arrieta, Margari Trojaola, Margari Arana... izan ziren omenduak eta gogoratuak. Etxabarriaren familiartekoak, adibidez, eskertuta eta hunkituta agertu ziren erakusketa osatzeko Timotirekin akordatu izanagatik.



Bisita gidatua egiten, ekonomatuaren aurrealdean. A.E.G.



Tessa Andonegi eta Ainhoa Aierbe aktoreak. GOIENA

Umoreari eustea beharrezkoa delako

Umorea ardatz izango duten ekitaldiak antolatu dituzte martxoaren 18tik 20ra. Ikuskizunetarako sarrerak 'entradium.com' atarian jarri dituzte salgai. Barikuko dantzaldia doan izango da, eta beste bi antzezlanak ordaindu egin beharko dira

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Umorez betetako asteburua antolatu dute Aramaion martxoaren 18rako, 19rako eta 20rako: AlgAramaio jaialdia egingo dute, barrez lehertzeko ekitaldi sorta.

Iaz hasi ziren umore asteburuarekin. "Pandemia egoeraren ostean, zerbait egin behar zela erabaki genuen. Zerbait berezia nahi genuen, jendeari barre eragingo ziona", azaldu du Kultura teknikari Itxaso Aspiazuk. Iaz egindako ekimenak arrakasta izan zuela ikusita, eta herri-tarrek erantzun ona eman zutela ikusita, aurtan berriro ere umore jardunaldi eustea erabaki dute. Formatu eta izaera bera izango du aste bukaerak; aldatuko den bakarra izena izango da: "Iaz Umore Asteburua izan zena aurtan AlgAramaio izango da".

Hiru ikuskizun antolatu dituzte: martxoaren 18an, barikua, Ind-Jones umeendako dantzaldia egingo dute, 17:30ean, kiroldegian. Hain zuzen, Gabon jaietarako

programatuta zegoen dantzaldia, baina egoerak behartuta atzeratu egin zuten.

Heldu zein familia

Martxoaren 19an, zapatua, helduendako *Me too* antzezlan egingo dute. Aitor Gabilondoren zuzendaritzapean, Ainhoa Aierbe eta Tessa Andonegi aktore ezagunak igoko dira taula gainera. Feminismoa izango da antzezlanaren ardatza: feminismoaren inguruko kontzeptu, berba eta gauzen inguruan jardungo dute. "Kaos informatibo" horren aurrean Aierbek eta Andonegik argibideak biltuko dituzte bizitza tokatu zaien "garai zoragarri" horri buruz. Sarrerak aldeztu aurretik

**BARIKUAN
GAZTETXOEI
ZUZENDUTAKO
DANTZALDIA EGINGO
DUTE KIROLDEGIAN**

erosi behar dira, *entradium.com* atarian.

Domekan, martxoaren 20an, familientzako Txus & Txu antzezlan egingo dute. Antzezlan dibertigarria, hurbila, keinu bidezkoa... izango da, 55 minutu inguru iraungo duena. Hain zuzen ere, Trokolo Teatro taldeko Aintzane Baleztena eta Ramon Marco aktoreak.

Aita Mari proiektua

Ikuskizunetako sarrerekin lortutako dirua Aita Mari proiektura bideratuko dute. Barikuko haurren dantzaldia doan da, zapatuko antzezlaneko sarreraren prezioa 5 euro da eta domekako antzezlanarena, 2 euro. Sarrerak online erosi behar dira.

Udaberriko Bertso Abentura egingo dute apirillean Espejon

Apirilaren 1era arte egongo da izena emateko aukera, Bertsozale Elkarteak online jarri duen galdetegian

A.E.G. ARAMAIO

Arabako Bertsozale Elkarteak Lautadako eta Gorbeialdeko kuadrillekin elkarlanean Udaberriko Bertso Abentura antolatuko du. Espejon izango da, apirilaren 20tik 22ra bitartean.

2011n, 2010ean eta 2009an jaio-tako gazteei zuzendutako abentura izango da. Gaztetxoek norbere herriatik gertuko lagun berriak egin, bertso munduan murgildu eta ondo pasatzeko aukera paregabea izango dute, beste behin. Euskaraz jolastu eta bertsoez gozatzeaz gain, in-

guruko natura eta kultura hobeto ezagutuko dute, gainera.

Interesatuak apirilaren 1era arte izango dute izena emateko epea zabalik. Online dagoen galdetegia bete beharko da, eta, edukiera mugatua izango denez, Lautadako eta Gorbeialdeko eskualdeetako haurrek izango dute lehentasuna, eta izen-ematearen ordena izango da bigarren irizpidea.

Bi eskualde horietako gazteen dako 45 eurokoa izango da prezioa; eta gainontzekoendako, 60 euro.

Maskulinitate tailerra egingo dute bihar eta hilaren 19an

Hiruki Larroako kideek gidatuta, maskulinitate tailerra egingo dute bihar, zapatua, eta martxoaren 19an. Gizonei zuzendutako saioak izango dira eta osoko bilkuren aretoan egingo dituzte, 10:00etatik 14:00etara. Izena emateko azken eguna gaur da; idatzi *berdintasuna@gorbeialdea.eus* helbidera. Zaintza zerbitzua egingo da.

Correosek 'Onarpen sistema' zerbitzua jarriko du martxan

Correosek landa-eremuetan ezarriko duen zerbitzu berria da *Onarpen sistema*. Bulegorik ez izan arren, postariak hainbat eginkizun beteko ditu banaketa zerbitzua egiten dabilen bitartean: besteak beste, paketeak eta gutun arruntak bidali; isunen ordainketa; zigiluen salmenta... Ordainketa eskudirutan edo Visa bidez egin daiteke.



ARAMAIOKO ESKOLA

Bulbo landareak landatu dituzte

Aramaio Herri Eskolako Ostadar taldeko umeek bulbo landareak landatu dituzte eskola ondoan. Arbel kooperatibak oparitutako landareak, hain zuzen. Landaketa egunean, gainera, Migel Angel Burgik bi eskultura jarri zituen eremu berean. Umeek Burgiren eta Ismael Herizen laguntzarekin landatu zituzten landareak. Landareak noiz loratuko zain daude orain.

Bakardadearen hormak eraisten hasteko gertu

Basotxo erretiratuen elkarteko parte den Aretxabaletako Lagunkoia taldeak adineko pertsonen bakardadearen gaineko hausnarketa egin du azken hilabeteotan; horri aurre egiteko Udalari laguntza eskatu dio eta elkarrekin hainbat ekintza sustatuko dituzte

Mirari Altube ARETXABALETA

Adineko pertsonen bakardadeari aurre egiteko hainbat ekimen jarriko dituzte abian Udalak eta Aretxabaleta Lagunkoia elkarlanean. Horien helburua izango da egoera horiek saihestea, batetik, eta herritarrek sentsibilizazioa, bestetik.

Pandemiak areagotu

Dagoeneko hamar urte bete dituen eta Basotxoko hainbat erretiratut osatuta dagoen Aretxabaleta Lagunkoia bakardadea izan du hausnarketarako gai azken hilabeteotan. Taldean egindako ekarpenak eta proposamenak Udalera bideratu dituzte eta lan hori interes handiarekin jaso dute han. "Udalaren helburua da adinekoen bizikaltatea eta ongizatea hobetzea. Aurreko agintaldian, bakarrik bizi diren aretxabaletarren diagnostikoa egin genuen, haien egoera ezagutzeko eta premien arabera erantzuna



Aretxabaleta Lagunkoia taldeko hainbat kide Karmele Uribarri zinegotziarekin. M.A.

emateko. Ildo horretan ari dira lanean Udaleko Gizarte Zerbitzuak, eta, horregatik, interes handiz hartu dugu txostena", adierazi du Karmele Uribarri Gizartegintza Saileko zinegotziak, eta gaineratu du konfinamenduak

bakardade egoerak areagotu egin dituela.

Aretxabaleta Lagunkoia taldeko ordezkari Juan Tomas Zabalak eta Pedro Etxebarriak berretsi egin dute azken hori: "Distantzia soziala gordetzera

bultzatu gaituzten zentzugabekeriak, familiarekin benetako harremanik ez izateak, kutsatzeko eta besteak kutsatzeko beldurrak, eta heriotzaren beldurrak isolamendura jotzea eragin dute, bakardadearen ernamuina".

Eta datu batzuk eman gura izan dituzte: "65 urtetik gorakoen erdiak baino gehiagok egoera hori igaro dute edo igarotzen dira. Aretxabaletan 65 urtetik gorako 1.500 pertsona baino gehiago bagara, 750 pertsona baino gehiago izan dira edo dira bakardadea pairatu dutenak. Beraz, arazo garrantzitsu baten aurrean gaude".

Sozializazioa erraztu

Erakundeen inplikazioa eskatu dute Aretxabaleta Lagunkoia kideek eta Udalak eragilean arteko lankidetzaren sare bat sortzea defendatu du; hala adierazi du Uribarri: "Sozializazioa eta zahartze aktiboa eta osasungarria bultzatzeko jarduerak abian jarriko dira, eta baita herritarrek sentsibilizatzeko ere, bakardadea eta isolamendu soziala denoi dagokigun arazoa delako". Bat etorri dira Zabala eta Etxebarria: "Guztion artean ahalegin indibidual eta kolektiboa egin behar dugu bakardadea jasaten dutenen sozializazioa errazteko, banaka edo taldeka". Eta prebentzioa lantzeaz gain gizarte harremanak eta parte-hartze aukerak sustatzea proposatu dute.

Horretarako zehaztutako ekintzei hitzaldi batekin emango diote hasiera. Adineko pertsonen arretan aditu Javier Yanguasek eskainiko du hori martitzenean, Arkupen. Horrez gainera, taldean egitekoak diren beste hainbat proposatu dituzte, ariketa fisikoa eta bizitza osasungarria sustatzea helburu duten ibilaldiak, esaterako, Atxabalta Mugik bideratuta.

Ekintzak

Hitzaldia

- Javier Yanguasen eskutik: *¿Qué nos ha enseñado el Covid sobre la soledad?* Martxoaren 16an, Arkupen (18:30).

Ibilaldi programa

- Aretxabaleta Mugirekin ariketa fisikoa ardatz.

Orgadun bizikletekin jardura

- Belaunaldi arteko ekimena, ALERen eskutik.

Ererikoen prebentzioa

- Atxabalta Mugik eta osasun etxeak antolatuta.

Beste batzuk

- Basotxok sustatutakoak: mahai-jokoak, kantu eta dantza saioak...



M.A.

Ixadebalde gazi-goza

Joan den asteburuko eguraldi eskasak merkatarien ilusioak zapuztu zituen; izan ere, askok ezin izan zituzten postuak denden aurrealdera atera ahal izan. Hala eta guztiz, barruan eskaintza onak izan zituzten bezeroen eskura eta herritarrek eskertu egin zuten hori. Eskaintza horiek jarraipena izango dute denda askotan jeneroa kendu artean.

GORA ETA BEHERA



Arratoiak kalean hara eta hona, lasai asko

Arratoiak kalean, inongo beldurrik gabe, zapatu arratsaldean, Andramari auzo inguruan. Halaxe atera die argazkia herritar batek, eta sarri ikusten dituzte inguru horretan.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Korrika girotzeko, besteak beste, mendi irteera eta musika

Korrika gero eta gertuago dago eta Aretxabaletako batzordea buru-belarri dabil antolatze lanean. Datozen asteotan gutunak banatuko dituzte herriko enpresa, komertzio eta ostalaritza zerbitzuetan ekimenari diru-ekarpenak egitera gonbidatuz.

Egitaraua ere hasi dira zehazten. Martxoaren 26an, esaterako, Muru mendira irteera egingo dute, eta 29an hitzaldia izango da Garabideren bitartez Hizkuntza Gutxiak Biziberritzeko Lankidetzaren ikasketak garatzera etorri diren Ameriketako eta Afrikako lagunen eskutik. Apirilaren 1ean, osteratzen, jolasak izango dituzte neska-mutikoen eta kontzertuak gazteek.

Migrazio dolua lantzeko erremintak, eskura

Migratzaileen ongizate emozionala hobetzeko helburuarekin, hamabi saioko tailerra antolatu du Udalak apiriletik ekainera egiteko. Era berean, Loramendi elkarteak gonbidatuta, Jon Maia bertsolariak solasaldia eskainiko du datozen bi eguenetan

Mirari Altube ARETXABALETA

Migrazio doluaren prozesuari erreparatu gura dio Udalak, eta migratzaileen ongizate emozionalean jarri du arreta. Horretarako, eskarmentu handiko bi-delaguna hartu du: esku-hartze psikosozialean aditu Jokin Ruiz Kortabarria psikologoa, hain zuzen ere. Hamabi lan-saio egingo dituzte hiru hilabetetan banatuta, apiriletik ekainera bitartean; eta zapatu arratsaldeetan elkartuko dira horretarako, 16:00etatik 18:00etara bitartean, Ibarra kiroldegian.

Izen-emate epea zabalik dago

Ekimen horren helburuak zeintzuk diren zehaztu du Udalak: migrazio doluari buruzko kontzientzia hartzea erraztea; emozioak lasaitzeko gune bat eskaintzea; antsietate eta depresio mailak murriztea; orainaldia beste era batera doitzea; eta laguntza sare bat sortzea.

Lan-saio horietan parte hartu ahal izateko, hainbat baldintza bete beharko dira: gutxienez, sei hilabete eramatea harrerako herrialde edo probintzian; 16 urte baino gehiago izatea; gaztelania menperatzea; eta saioetan parte hartzeko konpromisoa hartzea. 14 eta 16 lagun arteko talde itxiak egingo dituzte.



Jon Maia oholtzan, kantuan. IMANOL SORIANO

Izena emateko epea dagoeneko zabaldu dute eta mezu bat bidali behar da helbide honetara: myriam@aretxabaleta.eus.

Jon Maiaren solasaldiak

Bestetik, migrazio kontuak hizpide izango ditu Jon Maia Soria (Urretxu, 1972) bertsolari, idazle eta abeslari ezagunak datozen bi eguenetan, Loramendi euskara elkarteak gonbidatuta. *Extremaduratik bertsolaritza-Desde Extremadura al bertsolarismo* solasaldia eskainiko du martxoaren 17an –euskaraz–

eta 24an –gaztelaraz–; Arkupen izango dira biak, debalde, 18:30ean.

Extremadura eta Zamorako jatorriei buruzko bizipenak eta gogoetak kontatuko ditu Maiak. Izan ere, gurasoak Euskal Herriara iritsitako etorkinak dira. Hala, euskarara iristeko egingandako bidaia izango da solasaldiaren ardatz nagusia, punta-puntako bertsolaria izatera ailegatu arte, eta, horren baitan, migrazioa, integrazioa, hizkuntza, identitatea eta beste hainbat gai ukituko ditu.

Udaberriko haur parkerako begiraleak behar dituzte

Gabonetan atzeratutakoa apirilaren 11n eta 12an egingo da eta hamahiru lagun gura dituzte horretarako

M.A. ARETXABALETA

COVID-19ak hala behartuta, 2021eko Gabonetako parkea bertan behera utzi behar izan zuten. Orain, bestelakoa izanik egoera, udaberriko haur parkea antolatuko du Udalak; apirilaren 11rako eta 12rako, hain zuzen ere. Horretarako, hamahiru begirale behar dituzte, eta izena emateko epea zabalik dago; azken eguna martxoaren 25a da. Curriculumak udaletxean utzi behar dira, edo helbide honetara bidali: gazte-ria@aretxabaleta.eus.

Parkean begirale izateko bi baldintza eskatu dituzte: 18 urte beteta izatea eta euskaraz ondo jakitea. Era berean, honako hauek ere kontuan hartuko dituzte: ikasketak –umeekin zerikusia dutenak–, begirale titulua, Gabonetako parkean esperientzia, udaleku irekietan edo itxietan parte hartu izana eta EGA titu-



Ume bat puzgarria igotzen. MIRARI ALTUBE

lua. Aretxabaleako gazteek lehentasuna izango dutela adierazi dute Udaleko ordezkariak.

Parkea 3 eta 12 urte arteko neska-mutikoei bideratuta egongo da eta puzgarriekin batera eskulanak egiteko eta Wii-arekin jolasteko txokoak egongo dira.

Maite Francok ipuin kontaketa eskainiko die 4 urtetik gorakoei

Filomena musugorri, errege! saioa eskainiko die 4 urtetik gorako neska-mutikoei Maite Franco ipuin kontalariak eguaztenean, hilaren 16an, 18:00etan. Martxoaren 8aren bueltan antolatu du liburutegiak, ipuinetako genero estereotipoen kontra agertuz eta ipuin ez-sexisten alde eginez. Izena aurretik eman behar da liburutegian bertan.

Loaren gainean argibideak emango dituzte Kuku Mikun

Haurraren loa. Bere funtzioak eta ongizatearekiko lotura hitzaldia antolatu du Kukumiku guraso elkarteak –urtarrilean atzeratutakoa–, eta Nahia Alkorta gidatuko du. Martxoaren 15ean, martitzenean, izango da (17:30), egoitzan bertan. Aurretik eman behar da izena, helbide honetara idatzita: kukumikuelkartea@gmail.com.



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO
APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55



Matilde Sainz, Arantza Baskaran eta Amaia Aranzabal, margolanak esku artean dituztela. ANABEL DOMINGUEZ

Hiru emakumeren pintura lanak Arkupen

Arrasate Margo Taldeko kide Matilde Sainz, Amaia Aranzabal eta Arantza Baskaran margolariak pintura lanen sorta eraman dute erakusketa aretora; lehenengo biek akuarelak eta azkenak olioak izango dituzte ikusgai hilabetea bukatu bitartean

Mirari Altube ARETXABALETA

Hiru emakume arrasatearren pintura lanekin bete da Arkupeko erakusketa aretoa eta martxoaren Eskarmentu handiko margolariak dira, eta han eta hemen erakutsi izan dituzte pinturak. Oraingoan, aretxabaletarrei estilo erabat askotariko lanak erakusteko bat egin dute eta oso pozik agertu dira emaitzarekin; horregatik, herritarrak gonbidatu dituzte erakusketa ikustera.

Mendi zurituak

Paisaiak gustuko dituen Amaia Aranzabalek margotutako azken akuarelak jarri ditu ikusgai: "Udazkenean hasi nintzen Piriñotako mendiak margotzen. Paisaia horietan pertsonak irudikatzea pentsatu nuen, eta mendi zurituak margotzea erabaki, elurak eskaintzen dituen aukerei etekina ateratzeko asmoz: argiaren kontrastea, gizakiaren esfortzua, mendiaren bakardadea... Horiek guztiak erakutsi

gura nituen, eta uste dut lortu dudala".

Errealismotik abstrakturantz

Arantza Baskaranek, oster, olio lantzen du, eta, horregatik, hainbat tamainatako olio lanak jarri ditu aretoan; txikieneak, zortzi koadro, bilduma bat osatzen dutela adierazi du. Errealismotik abstrakturantz egin zuen salto orain dela urte batzuk Baskaranek, eta eboluzio horren berri eman du: "Figuratiboarekin hasi nintzen, aspaldi, baina gero, abstraktura egin nuen salto. Eta oso gustura nabil". Hain zuzen ere, horrek bete egiten duela adierazi du: "Ni eta koadroa bakarrik gaude, ez dago beste ezer; batzuetan, ni neu ere

harritu egiten naiz sortutakoarekin. Honaino iritsi naiz eta oso pozik nago".

Oteizaren apostoluak

Oteizaren Arantzazuko apostoluak margotu ditu Matilde Sainzek: "Figurak, dimentsio bikotiztekoak edo gehiagotakoak, plano batera ekarri eta irudikatu nahi izan ditut". Bukatu gabeko itxura dute askok: "Oteizak halako garrantzi handia eman zion hutsunea irudikatu nahi izan dut, zerbait erdi bukatua egin; marrak ondo islatu eta figurak iradoki".

Pozik dago erakusketak hartu duen itxurarekin: "Bata figuratiboa, bestea abstraktua, eta nirea, tarteko zerbait. Izan ere, nire lanak Oteizaren figuren interpretazio bat dira, bai koloretan, bai formetan. Oteizak zioen, gainera, haitzetan daudela apostoluetan erakutsitako forma horiek, eta nik ere bi margolanetan haitzen formak erakutsi ditut".

PAISAIK EKARRI DITU ARANZABALEK, APOSTOLUAK SAINZEK ETA BASKARAN EKARRI LAN ABSTRAKTUAK



Azken fasera iritsitako bikote guztiak UDAko presidente Agurtzane Elkororekin. UDA

Rubio eta Mañarikua elgetarrak nagusi frontenis txapelketan

Aretxabaleta kirol elkarteak zortzigarrenez antolatu du eta hamar bikotek jardun zuten nor baino nor gehiago

M.A. ARETXABALETA

Martxoaren 8aren bueltan zortzigarrenez jokatu den frontenis txapelketako sari nagusia elgetarrentzako izan da. Mireia Rubio eta Maitena Mañarikua bikoteak Goieritik etorritako Esti Markos eta Lierni Asurabarrena bikotea hartu zuen mendean finalean.

Elgetarrak goieritarren aurka

Aretxabaleta kirol elkarteak antolatutako txapelketa errotuz doa, eta, bikote kopuruak gora egin ez badu ere, aurreko aldetako jokalariek gustura hartzen

dute parte: "Giro polita egon da eta parte hartzaileek oso pozik jokatu dute". Zapatuko norgehiagoken ostean, lau bikotek egin zuten aurrera; horien artean, aretxabaletar bakarrak, Ibone Arrietak eta Lierni Zangituk osatutakoak. Baina beste konpromiso batzuk tarteko domekan ezin izan zuten jokatu.

Hala, azken fasean Goierriko bi bikote Elgetako beste biren aurka izan ziren nor baino nor gehiago. Finalera iritsi ziren Rubio eta Mañarikua eta Imaz eta Ezeolaza, eta elgetarrak nagusitu ziren, 22-12 irabazita.



MIRARI ALTUBE

Goio Arrieta, bola-jokoan onena

Aretxabaletako Sarek antolatutako Izan Bidea bola-txapelketa jokatu zuten joan den zapatuan, Gari Atxabaltara leloarekin, eta ia 40 lagun elkartu ziren bolatokian. Goio Arrieta aretxabaletarra izan zen nagusi, hamabi txirlo jota; haren atzetik geratu ziren Elgetako Sebas Aranzabal, bederatzi txirlorekin, eta Untzillako Jesus Agirre, sei txirlorekin.

Mendiko zinemagintza, jatorrizko bertsioan

Asteburu honetan, martxoaren 11n eta 13an, Mendi Tourreko zazpigarren edizioko sei pelikula proiektatuko dira Zaldibar antzokian; zapatuan, Adolfo Madinabeitia izango da 'Patagonizados' lana aurkezten eta egindakoaren azalpenak ematen

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Mendi Film nazioarteko jaialdiko pelikula onenen Mendi Tour izeneko zirkuitu ibiltaria Zaldibar Antzokira itzuliko da martxoaren 11n eta 13an. Mendi Tourren zazpigarren edizioa da, eta egunotan saioetara joaten direnek mendiko zinemarik onenarekin gozatuko dute.

Mendiko, abenturazko, muturreko kiroleko eta naturako pelikula zoragarriek osatuko dute egitaraua. Izan ere, BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia jaialdiaren 14. edizioko sei film eskainiko dira, Mendi Film jaialdian sariak jaso zituztenak guztiak; hau da, hango palmaresaren zati handi bat izango du Eskoriatzako aurtengo programazioak.

Mendiko jarduera oro

Eskoriatzako Udala eta Mendi Film Festival Elkarteak dira antolatzaileak. Laguntzaileak, berriz, Eskoriatza Kirol Elkarteak mendi elkarteak, Zineuskadi eta Madrilen dagoen Poloniako Kultura Institutua. Hala, egubakoitzeko eta domekako saioak 19:00etan hasiko dira, eta jatorrizko bertsioetan eskainiko dira pelikulak, Mendi Filmek sortutako azpitituluekin lagunduta. Bi eguneko proiektzioak direnez, eguneko sarrerak hiru euro balio du eta bi eguneko bonuak, bost euro. Horiek, hain zuzen, kiroldegian edo *bibe.me* webgunean erosi daitezke. "Mendiko askotariko jarduerak ikusi ahala izango dituzte gaur eta domekan Zaldibar antzokira joaten diren herritarrek. Bertan izango da, aurreko edizio guztietan moduan, Aitor Elduainen aurkezle lanetan eta ikus-entzuleen galderak erantzuteko prest. Gainera, beste edizio batzuetan bezala, Club Vasco de Camping-ek (CVEPHOTO) antolatzen duen argazki erakusketa jarriko dute antzokian. Mendi jardueraren



Patagonizados lanaren fotograma bat. 'PATAGONIZADOS'

Asteburuko proiektzioen egitaraua

Martxoak 11, egubakoitza

- **Action Directe** (16') 2021eko Mendi Filmeko Sail Ofiziala.
- **Mendiak** (85') 2021eko Mendi Filmeko ikuslearen saria.

Martxoak 12, zapatua

- **Patagonizados** (52') Solasaldia Adolfo Madinabeitiarekin.

Martxoak 13, domeka

- **Melting Landscapes Glaciares** 2021eko film labur onena.
- **Amagana** Euskarazko film onena (14').
- **The Traverse** 2021eko epaimahaiaren saria (34').
- **Black Ice** 2021eko eskaladako film onena (45').

nazioarteko argazki lehiaketako lanak izango dira, eta martxoaren 20ra arte izango dira ikusgai", adierazi du Maite Uribe, Eskoriatzako Udaleko Kirol zinegotziak. Gaineratu du edizio honetan, berritasun moduan, Mendi Tourreko pelikula-sortaren artean, zapatuan Adolfo Madinabeitia ere izango dela, 19:00etan, *Patagonizados* lana aurkezten.

Eskalada ardatz

Adolfo Madinabeitia gasteiztarak Argentinako Patagoniara egindako bost bidaietan eginda-

ko lau eskalada -Fitz Roy, Saint Exupery, Mocho eta Cerro Torre- oinarri dituen *Patagonizados* dokumentala aurkeztuko du. Ia ordubeteko lana ikusteaz gain, bertan bizitakoak kontatuko dizkie bertaratuei *big wall* edo pareta handien eskaladako espezialista handienetako bat den mendi-gidari profesionalak eta esperientzia zein bizipen ugari biltzen dituen Madinabeitiak. Gaztelaraz izango da saioa, eta sarrerak aldeztu aurretik erosi beharko dira, hiru eurotan, Manuel Muñoz kiroldegian edo *bibe.me* webgunean.

Korrikaren aurkezpena martxoaren 18an egingo dute

Egitarau zabala esku artean, Korrika Txikia egingo dutela iragarri dute; aurren, beste formatu batean

I.B. ESKORIATZA

Herriko hainbat elkarte, eragile eta norbanako ari dira lantzen Korrikaren bueltan Eskoriatzan egingo dituzten ekintzak. Horien berri martxoaren 18an emango dute, Zaldibar antzokian antolatutako hitzorduan.

Korrikaren aurkezpen egunean, 22. Korrikaren *Uhinak* izeneko dokumentala proiektatuko dute, 19:00etan. Txakur Gorriak-ek egindako gidoiarekin, bederatzi ahots entzun ahal izango dira ikus-entzunezkoan, eta bederatzi paisaia desberdin, bederatzi

errealitate linguistiko eta emozionalerik gozatu ahal izango dute bertaratzen direnek.

Korrika Txikia egingo dute

Aste honetan egin duten batzarraren, Korrika Txikia egitea erabaki dutela adierazi dute Eskoriatzako Korrika batzordeko kideek. "Formatu ezberdina izango du, eta apirilaren 1ean 10:30ean izango da, eta, haurrak burbuilatan banatuta daudenez, lekukoa eurengana iritsiko da, eurak herriko zenbait puntutan taldetan sakabanatuta daudela..."



Eskoriatzako Korrika batzordearen batzar batean batutakoak. KORRIKA BATZORDEA

GORA ETA BEHERA




Jose Aranaren estatuaren egoera

Gernika plazako Jose Aranaren estatua egoera tamalgarrian dagoela adierazi du herritar batek. "Hobeto egingo litzateke zaharren egoitzako lorategietan, behar bezala konponduta".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus edo

688 69 00 07.





Eskoriatza futbol taldeko jokalariei ohiak, udal ordezkariak, Kirol Elkartearen kideak eta senideak 2018ko omenaldian. IMANOL SORIANO



90eko hamarkadako erretratu bat. ESKORIATZA KE



Taldekideekin ateratakoa. ESKORIATZA KE

Gregorio Palacios futbol entrenatzaile ohia hil da

Eskoriatza Kirol Elkarteak futbol taldea zuen garaiko entrenatzailea martitzenean zendu zen, 70 urterekin. Klubeko ordexzkariak animo mezuak bidali dizkiete senideei eta lagunei, eta Palaciosen klubarengatik egindakoak eskertu dituzte

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Martitzenean hil zen Gregorio Palacios arrasatearra, 70 urte zituela. Eskoriatza Kirol Elkarteak futbol taldea zuen garaiko entrenatzailea izan zen, eta do-luminak eman nahi izan dizkiete Eskoriatzako klubeko kideek senideei eta lagunei, sare sozia-len bitartez. Horrekin batera, Eskoriatza futbol taldearen aspaldiko zenbait argazki zahar argitaratu dituzte.

Futbol taldea desegin arte

Futbol entrenatzaile ohia eta kirol elkartearen lan asko egin-dakoa zen Palacios, eta horren adierazle da 2018an, Eskoriatza Kirol Elkartearen eguna ospa-tu zenean, egin zioten omenal-di hunkigarria. Hala gogoratzen du Jabi Corbalek, Eskoriatzako Kirol Elkartearen presidentea: "Ni oso gaztea nintzen Gregorio Palacios entrenatzaile zen ga-raian, eta 2018an, klubaren

eguna ospatu genuenean, egin genion omenaldian ezagutu nuen. Ni saskibaloia sailetik nator, baina badakit Eskoriatza futbol taldean urte asko eman zituela entrenatzaile, asko hitz egin didate bere inguruan. Hogei urte eman zituen Eskoriatza futbol taldean entrenatzaile; urte haietan, denboraldiren bat edo beste inguruko talderen bat entrenatzen aritu zen, baina Eskoriatzarekin bazuen harreman berezi bat, eta bueltara ibili zen. Hala, 1993. urtean, Eskoriatza futbol taldea desegin zen, eta ordura arte aritu zen klubarengatik borrokan, eta hori mirestekoa da".

20 URTE INGURU EMAN ZITUEN ESKORIATZA FUTBOL TALDEAN ENTRENATZAILE

2018ko omenaldi berezia

2018ko maiatzaren 26an Eskoriatza Kirol Elkartearen eguna ospatu zen, baina, beste urte batzuekin alderatuz, berezia izan zen ekitaldia. Izan ere, gaztetxoek betiko jolasez gain, 200 lagun inguru batu ziren paella jateko, areto futbolako gazte mailakoek Euskal kopa irabazi zuten, eta I. eslalom txapelketa ere izan zenez herrian, lasterketako auto ugari ere joan ziren Fernando Eskoriatza plaza parera.

Horrekin batera, Gregorio Palaciosi omenaldia egin zioten egun berean. Joseba semeak eramane zuen aita plazara, eta inguruan elkartu ziren haren esanetara jardundako hainbat jokalariei ohi eta Udaleko eta kirol elkartearen ordezkariak. Lore sorta eta txapela jaso zituen Gregoriok, eta eskerrak eman zizkien guztiei Josebak, aitaren izenean.

Mus Txapelketako lehenengo kanporaketa etzi, domeka

Inkernun jokatu da XIII. Euskal Herriko Mus Txapelketako lehenengo kanporaketa, 16:00etan hasita

I.B. ESKORIATZA

Keinu ugari, hordagoak eta bikoteen arteko pike sanoak aurreikusten dira domekan Inkernu tabernan jokatu den Mus Txapelketarako. Euskal Herriko XIII. Mus Txapelketako lehenengo kanporaketa izango da jokatu dena, eta unean bertan izena eman behar den arren, bost bikote adierazi dute jokatzearen intentzioa, antolatzaileen esanetan. Irabazleek finalerdietarako pasea irabaziko dute, baina egutegiaren eta bestelako arauen informazioa nahi duenak

ehmus.eus webgunean kontsultatu dezake.

Bikoteka 20 euro ordaindu beharko da Mus Txapelketan parte hartzeko, eta sariak hauek izango dira: lehenengo bikote sailkatuarentzat, 100 euro, Mus Federazioko bi kamiseta eta hiru ardo botilako bi kutxa; bigarren bikote sailkatuarentzat, Jakion produktuen bi kutxa eta hiru ardo botilako bi kutxa; eta hirugarren eta laugarren bikote sailkatuentzat, bi ardo botilako bi kutxa. Gainontzekoek oroigarri bat jasoko dute.



I.B.

Feminismoa zer den adierazi dute

M8ko manifestazioa amaitzeko, *Femideo* bideo-lehiaketako lanen proiektzioak egin ziren plazan, eta sariak banatu zituzten. *Egan* lana izan da irabazlea; bigarren saria *Gazte borroka* lanak jaso du; eta hirugarren saria *Abestia* lanarentzat eta Arizmendik hirugarren mailakoentzat izan da. Azken hauek saria ukrainarrei laguntzeko erabiliko dute.

OHARRAK

Intxaurtxuetako aparkalekuko lanak

Atzo hasi zituzten Apotzaga eta Eroski arteko aparkalekuan oinezkoentzako bidea egokitzearen eraberritze lanak. Bihartik aurrera, baina, aparkatzeko erabilgarri egongo da.

Udal ortuak erabiltzeko erregelamendua

Udalbatzarrek otsailean hasierako onarpena emanda, aste honetan Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu da, eta erreklamazioak aurkezteko epea apirilaren 25ean bukatuko da.

Eskoriatza Kirol Elkarte

Klubak kide berriak lortzeko kanpaina hasiko du zapatuan. Zozketak izango dira partiduen atsedendaldietan, besteak beste.

Aita-semeak kenpoan borrokan, domina bila

Jose Antonio Garcia 'Mondra' eta Ion Garcia aita-semeak Espainiako kenpo txapelketan izan ziren joan den asteburuan Granadan. Gaztea urrezko dominarekin itzuli da eta nagusia, berriz, beteranoen mailan lan ona eginda

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA

Ion Garcia 20 urteko eskoriatzarra eta bere aita Jose Antonio Garcia *Mondra* duela hiru urte hasi ziren Eskoriatzako Atama taldearekin kenpoa eta kirol honen barruan dauden modalitateak praktikatzen. Denbora gutxian biek aurreratu dute asko, baina azken txapelketan urrezko domina lortu du Ion Garciak. Ez zen nolanahiko txapelketa izan; izan ere, Espainiako kenpo txapelketa jokatu zen Granadan, eta bere kategorian urrea lortzea bezalakorik ez dagoela dio eskoriatzar gazteak.

"Bost modalitate jokatu ziren Espainiako kenpo txapelketan; zapatuan, semikenpo kategorian hartu nuen parte, hain zuzen ere, gizonezkoen 21 urteko azpikoetan eta 80 kilotik beherakoetan, eta urrezko domina lortu nuen. Domekan, berriz, semikenpo modalitatean aritu nintzen, eta, kasu horretan, brontzeko domina lortu nuen. Beraz, emaitza paregabea izan da niretzat, eta horrek indarrak eman dizkit borrokan jarraitzeko. Hirugarren aldia izan da Espainiako txapelketan parte hartzen dudana: iaz, Guadalajaran brontzea lortu nuen; eta orain, lehenengo postua. Ikusten da egiten dugun lanak eta es-



Ion Garcia eta Jose Antonio Garcia, Espainiako kenpo txapelketan, Granadan. I. GARCIA

fortzuak fruituak ematen dituela", adierazi du Ion Garciak, borrokalari eskoriatzarra.

Beteranoena, bertan behera

Jose Antonio Garcia eskoriatzarrak, berriz, beteranoen kategorian lehiatu behar zuen Espainiako kenpo txapelketan, baina bertan behera geratu zen. "Kategoria ezberdinetakoak nahastu eta jokatu zituzten zenbait borroka, baina ez zuten dominarik lortzeko aukerarik izan. Jokatuz gero seguru nago dominaren bat lortuko zuela.

Oso ondo ari da, eta asko ari da aurreratzen".

Aurrera begirakoak

Ekainerako edo uztaileko txapelketa bat antolatzea gustatuko litzaieke Atama Eskoriatza taldeko kideei, Eskoriatzan. Oraindik ez dira prestaketa lanetan hasi, baina hori dela euren asmoa adierazi du Garciak. "Abenduan Galizian izango gara txapelketa batean, baina ordura arte gustatuko litzaidake zerbait antolatu eta beste txapelketaren batean parte hartzea".

LEINTZ GATZAGA 25

Korrika datorren aitzakian, hitanoa praktikatzeko saioak

Korrika Kulturalaren baitan, hitanoa ikasteko saioak ari dira eskaintzen Rosa Urreta eta Joxerra Agirreurreta

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Leintz Gatzagan hika ikastaroa eskaintzen hasi dira asteen. Hain zuzen ere, Rosa Urreta eta Joxerra Agirreurreta irakasleen eskutik, ordu eta erdi iraungo duten hiru saio izango dira, guztira. Martxoaren 10ean, eguenean, egin zuten lehenengo saioa, eta hilaren 17an eta 24an 18:30ean hasita izango dira gainontzekoak. Saio guztiak kultura etxean egingo dituzte, eta parte hartzera animatu nahi dituzte herritarrek.

Korrika Kulturalaren barruan

Leintz Gatzagatik apirilaren 1ean, egubakoitza, pasako da Korrika, eguerdi aldera, eta, hain zuzen ere, eguna iritsi aurretik Korrika Kulturalaren barruan antolatutako egitasmoetako bat da. Orain arte, Korrikako arropa salmenta izan dute ekintza nagusi, eta beste zenbait jarduera ere badituzte esku artean. Hala ere, ekintza honekin, euskarari balioa eman nahi diote, eta, hitanoaren arlo teorikoa lantzeaz batera, praktikan ere jarriko dute. Hori horrela, teoria eta erabilera lantzeko ari-

ketak izango dituzte parte hartzaileek.

Gazteengan eragiten

Hika ikastaroa antolatzearen helburu nagusia hitanoaren erabilera jendearen arteko harremanetara eramatea da. Azken batean, hitanoaren praktikatzeari beldurra kentzea.

Lan horretan, batez ere, gazteengan eragin nahi dute antolatzaileek, eta hasi direla urratsak egiten adierazi du Joxerra Agirreurretak, Leintz Gatzagako hika ikastaroko irakasleak: "Emaztea eta biok ari gara saioak ematen. Elkarren arteko elkarbizketak egiten ditugu, zalantzak argitu... Batez ere, balioa eman nahi diogu hitanoari. Laster, Korrika pasako da, eta euskara bultzatzeko asmoz prestatu ditugu saio hauek. Batez ere, gaztetxoei zuzenduta daude saioak, baina irekia da, eta nahi duena etorri daiteke saioetara. Herriko gaztetxo batzuk hasi dira dagoneko praktikatzeko, gainera, eta hori poztekoa da. Soilik hiru saio prestatu ditugu, baina bukatzen denean baloratuko dugu, eta ea jarraipena izaten duen..."

Hamabi domina Espainiakoan

Espainiako kenpo txapelketan lan aparta egin zuten Atama Eskoriatza taldeko borrokalariak. Guztira, hamabi dominarekin bueltatu ziren: urrezko hiru domina, zilarrezko bat eta brontzeko zortzi.

Rafa Carriet entrenatzaileak adierazi duenez, 2007. urtetik txapeldunak dira kategoriaren batean, eta bide horretan jarraitu nahi dute.



Atama Eskoriatzako borrokalarien talde argazkia, Granadan. R. CARRIET



AINHOA BARANDIARAN

'Sorginen' urteroko bazkaria

Leintz Gatzagako Sorginak Emakume Elkarteko kideek, ohitura onei eutsi guran, Martxoaren 8aren bueltan urteroko bazkaria egin dute Gure Ametsa jatetxean. Bapo bazkaltzeaz batera, elkarrekin egoteko aprobetxatu zuten eguna, eta musika ere izan zuten hitzordua goxatzeko.



Mari Karmen Ayastuy eta Jose Luis Elkorro, etxeko egongelan; atzo jaso zuten Monzon-Ganuza Euskal Utopikoei Saria. J. BEREZIARTUA

"Maitasunetik egin dugu lan herriarentzat, ez eginbeharretik"

MARI KARMEN AYASTUY ETA JOSE LUIS ELKORO MONZON-GANUZA SARIA 2022

Euskal Herriaren eta euskararen alde egindako lana aitortu diote Olaso Dorrea Fundazioak eta Bergarako Udalak Ayastuyri eta Elkorori; adierazi dute sorpresaz hartu zutela albistea

Jokin Bereziartua BERGARA

Atzo jaso zuten Mari Karmen Ayastuyk (Bergara, 1943) eta Jose Luis Elkorok (Elgeta, 1935) Monzon-Ganuza saria, Laida Lertxundi artistaren *Landscape plus* artelana: "Egongelako lekurik ederrenean jarriko dugu", diote. Egongela horretan hartu dute saridunek GOIENA, patxadaz.

Nola hartu zenuten Monzon-Ganuza saria jasoko zenuten albistea?

Mari Karmen Ayastuy: Hasieran, harritu egin nintzen eta zergatik ematen ziguten galdetu nuen. Lehen ediziooko sari banaketan egon ginen, eta halako

sari bat guretzat izan behar zenik pentsatzea ere... Baina onartzen dugu, nola ez. Oso pozik gaude.

Jose Luis Elkorro: Olaso Dorreko eta Udaleko ordezkari bana etorri ziren saria zergatik eman behar diguten azaltzera. Sorpresa izan zen... Gero, gogoeta egin ostean, konturatzen zara erabatu

"BENETAKO AGINTE POSTUETAN EMAKUME GUTXI DAGO ORAINDIK"

MARI KARMEN AYASTUY

kia hartu dutenek ondo pentsatuta hartu dutela.

M.K.A.: Herriarentzat egin dugun lana ez dugu eginbeharretik egin, maitasunetik baizik.

Maitasunetik bazuelako Maria Josefa Ganuzarekin eta Telesforo Monzonekin eraikitako harremanak...

M.K.A.: Harreman oso estua sortu genuen. Gogoan dut bereziki Telesforo hil ostean [1981eko martxoaren 9a], Maria Josefak ia egunero deitzen ninduela. Gaur egungo ikuspegitik oso pozgarria da ikustea, Telesforok nahi moduan, Olaso herriarena dela.

J.L.E.: Olaso dorreagatik eza-gutu genituen Telesforo eta Maria Josefa, euren etxeaz arduratzea tokatu zitzaigulako. Handik aurrera, maitasun harreman estua sortu genuen. Euren asmo eta helburu aberatsekin bat egin genuen eta horrek indar handia eman zigun asmo horiekin konprometitzeko.

M.K.A.: Maria Josefa nolakoa zen ulertzeko anekdota txiki bat kontatuko dizut, inori kontatu ez diodana: Telesforo hil ostean, esan zidan pentsatzen ari zela *mojazaharretara* joan behar zuela bizitzera, eta erantzun nion hori astakeria hutsa zela. Galdetu zidan zergatik eta erantzun nion bera ate batetik sartu ahala *mojazahar* guztiak beste atetik irtengo zirela [barre]. Nortasun handiko emakumea zen.

J.L.E.: Maria Josefa benetan nolakoa zen ezagutu genuen Telesforo hil zenean.

Martxoaren 8ak zaintzan jarri du arreta bereziki. Horretaz jakin badakizu, Mari Karmen.

M.K.A.: Urrats garrantzitsu asko egin dira, baina asko dago egiteko. Benetako aginte postuetan emakume gutxi dago oraindik. Eta etxeko askotariko lanak, zaintza bera ere, emakumearengan daude. Hori bai, garai batekin alderatuta... Ama izan nintzenean pentsaezina zen, adibidez, nire senarra umearen kotxearekin paseatzen ikustea. Gaizki ikusia zegoen orduan, halakoa zen gizartea, eta ez dira horrenbeste urte pasatu. Beste detaile bat: 20 urte nituenean gidatzen hasi nintzen –Bergarako bakarrenetakoa izango nintzen, orduan falangistek kontrolatzen zuten Olaso dorrean egin nituen azterketak–, eta aitajaunak esan zidan hori gizonetzkoen kontua zela, ez sartzeko gizonetzkoen kontuetan. Lana ere etxe azpiko dendan, 15 edo 16 urte nituela, eta listo; emakume izanda, orduan ezin genien ikasketei garrantzirik eman. Urte batzuetara ezkondu, eta 30 urte nituenerako lau seme-alaba.

"BEHAR-BEHARREZKO OINARRIA IZAN DA NIRE IBILBIDE OSOAN, ZALANTZARIK GABE"

JOSE LUIS ELKORO

J.L.E.: Beharrezko oinarria izan da nire ibilbidean, zalantzarik gabe. Askok eztabaidatzen dugu, baina 55 urte daroatzagu eskutik...

Publikoki, Jose Luis lehen planoan.

J.L.E.: Hala da. Atzera eginda, Alkartu Nai aipatuko nuke, bereziki ikuspegi sozialetik lortu genuenagatik: Bergarako lehen anbulantzia, erretiratuaren egoitza, alargunen elkarteak, gorrendako Arasgi elkarteak, Aspace, Gureak tailerrak, Elbarrilan... Gerora etorri zen jardun politikoa.

Eta baita, besteak beste, espetxea.

J.L.E.: Espetxetik irtengo ez nintzela ere pentsatzeraino.

M.K.A.: Espetxealdi eta eraso guztiek ez dute ez hankarik ez bururik izan. Mehatxu-dei telefoniko asko izan ditugu; ikurri-na plazan jarri genuen egunean bertan jaso genuela lehen deia. [...] Oroitzapen gogorrenen artean, semea ihes eginda egon zenekoa datorkit; bost urte egon zen kanpoan eta hiru urte eta erdiz ez genuen jakin non zegoen. Oso gogorra izan zen.

Asmatu da transmisioan?

M.K.A.: Uste dut ezetz. Bergarako adibide bat jartzearen, Olaso dorrearen beraren garrantzia ez dugu transmititzen jakin. **J.L.E.:** Monzonek eta Ganuzak suposatuta zutenaz harago, gatazka bizi ez dutenei, orokorrean, ez zaie interesatzen. Trantsizio batean gaude, aldaketa sakon eta garrantzitsu batean. Arlo guztietan. Eta ez naiz ausartzen esatera nola irtengo garen...

Beti bizi izan zarete euskaraz?

M.K.A.: Euskara debekatuta zegoen... Hori bai, seme zaharrena 3 urterekin sartu genuen sortu berri zen Aranzadi ikastolan; ez genekien zer zen hura, baina argi genuen semea euskaraz hezi nahi genuela.

J.L.E.: Nire kasuan, umetan, eskolan, barre egiten zidaten gaztelaraz ez nekielako... Gero, baina, euskaraz idazten ikasteko barnetegien beharra izan nuen. [...] Mirari moduan gogoratzen dut, adibidez, Elay enpresa [Elkorro eta Ayastuy] erabat euskaldundu izana.

Ezer gaineratu nahi?

J.L.E.: Askok baloratzen dut herri honek, lana oinarri, jakin duela arazoei erantzuten.

M.K.A.: Datozenentzat: jarraitu dezatela Olaso dorrearen oinarrian dauden euskararen eta Euskal Herriaren hariari tiraka.

Emakume baserritarrei omenaldia Aroztegin

Martxoaren 8ko egitarauko azken ekintza da herriko emakume artistek gaur Aroztegin irekiko duten erakusketa (18:00), emakume baserritarrei eskainia: 'Bertatik bertara, emakume baserritarren bizitza'; aurten, 18 artista batu dira ekimenara, askotariko lanekin

Jokin Bereziartua BERGARA

Martxoaren 8ko egitarauak martitzenean hartu zuen indar berezia, Itaiak eta Martxantere deitutako mobilizazioetan herriar askok hartu zuten eta parte (Ikus 2. orria). Eguneko mobilizazioez harago, baina, hainbat ekintza antolatu dituzte azken bi asteotan; tartean, urteroko klasiko bihurtu den emakume artisten erakusketa. Aurten, emakume baserritarren jarri dute arreta, izenburuak berak argi islatzen duenez: *Bertatik bertara, emakume baserritarren bizitza*. Emakume baserritarrak gai moduan hartzeaz gain, euren eskaini diete erakusketa: "Erakusketa honen bitartez emakume baserritarrei omenaldi bat egin nahi izan diegu".

Erakusketa gaur irekiko dute, 18:00etan, eta martxoaren 27ra arte bisitatu ahalko da, honako ordutegi honetan: martitzetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara.

Aurten, 18 artista

Aurtengo erakusketa 18 artista izan dira ekimenara batu direnak, eta honako hauek izan



lazio erakusketa, Aroztegin: *Edertasuna emakumearen bi ikuspuntuetatik*. GOIENA

dira Aroztegi aretoan aurten artelanen bat jarriko dutenak: Alicia García, Amaia Santamaria, Ana Abajo, Arantzazu Arregi, Cecilia Dulanto, Eli, Idoia Etxarri, Jone Albeniz, Justina Elempuru, Kontxi Idigoras, Madi Martin, Maite Azkargorta, Mari Carmen Laskurain, Mari Tere Goñi, Mari Cruz Andueza, Marilu Unzurrunzaga, Nerea Kerejeta eta Usua Mendikute. Esker on mezua izan dute antolatzaileek: "Eskerrik asko erakusketa honetan parte hartzen duten artista guztiei eta beste

urte batez proiektu polit hau aurrera ateratzea posible egin duzuen guztioi".

Hainbat belaunaldi, bat

Urte urte errotzen doan ekimen honen bereizgarrietako bat da hainbat belaunalditako emakumeak artearen bueltan elkartzeko dituela: "Adin askotariko emakume talde bat izanda eta arte diziplina ezberdinak landuta ere, oso ondo ulertu dugu elkar hasieratik. Harremana oso ona da talde barruan. Erraza egiten zaigu ideia bat sortzea eta ideia



Leire Moñux musikari bergarra, promoziorako argazki batean. L.M.

Leire Moñux, gaur, Seminarixoa

Martxoaren 8ko egitarauaren barruan, Leire Moñux musikari bergarra bakarlarri moduan igoko da gaur Seminarixoko oholtzara (20:00); sarrera zortzi euro da. Bakarlarri moduan emango duen lehen kontzertua izango da gaurkoa; Indai laukoteko kide da, eta, taldekideen babesean "gustura" dagoela aitortu arren, bakarkako bidea hastera ausartu da etxean muntatu berri duen estudio txikian. "Ez nuen inondik inora espero Bergarako Udaren partetik halako eskaera bat jasoko nuenik. Garatu nahi dudana ibilbide musikalerako babes handia da, bakarlarri hazteko aukera ematen dit. Aurrerapauso garrantzitsua izatea espero dut; ea dena ondo irteten den...", adierazi du Moñuxek. Pianoarekin eta gitarrarekin igoko da Moñux, eta askotariko doinuak eskainiko ditu; artista gonbidatuak ere egongo dira.

hori gauzatzea". Izan ere, artista bakoitzaren koadro, eskultura edo argazkiez harago, ekimenak ezinbestean eskatzen du koordinazio lan bat; iaz pandemiak sortu zituen arazoak gainditu dituzte aurten, baina iaz baino artista gutxiago batu dira.

Bedelkarren maskara moreak

Erakusketaz gain, Martxoaren 8aren bueltan askotariko ekin-tzak egin dira Bergaran. Besteak beste, Bedelkar elkartek maskara moreak banatu zituen mar-

titzenean, *Elkarrekin geldiezinak gara* lelopean. Eguaztenean, berriz, Zinegoak jaialdiak geldialdia egin zuen Seminarixoa. Pandemiaren etenaldiaren ostean, indarberrituta itzuli da gizarte parekide baterako aldarraren garra.

ERAKUSKETA GAUR IREKIKO DUTE, ETA HILAREN 27RA ARTE EGONGO DA IKUSGAI, AROZTEGI ARETOAN

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurira
Ateak · Eskailerrak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

121
KALITATEA

Enpresa Registrada N°90/625

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behe - BERGARA



Jesus Zabaleta, Itxumendiko tontorrean. JESUS ZABALETA

Presidente berriarekin, aldeko haizea nabari

Pol Pol mendi taldeak zuzendaritza batzordea berritu du asteon, eta Jesus Zabaleta izendatu dute presidente. Elkartearen bilakaeraz eta erronkez jardun du Zabaletak: "Aurreko zuzendaritzak lan bikaina egin du, eta orain, gazteak erakarri nahi ditugu"

Hasier Larrea BERGARA

Pandemia aurreko dinamikara heltzeko asmoa erakutsi du Jesus Zabaletak, Pol Pol mendi elkarteko presidente berriak: "Iaz, pare bat irteera egin genituen, baina ohikoa hamar inguru egitea izaten da. Aurtengo urtean kopuru horretara gerturatzeke aukerak ikusi ditugu, eta jadanik programatu ditugu zenbait ekin-tza". Horietako batek astebete iraungo du, Pentekosteetan Gironara joateko intentzioa baitaukate. "Bizpahiru eguneko" irteera laburragoak ere gehituak dituzte dagoeneko Pol Polen egutegian. Alde horretatik, "esperantzaz" azaldu da Zabaleta, "mendi-ibilaldi ederrak" egitera itzuliko direla iritzita.

Iraganeko arazoak gaindituta

Hori horrela, "pozik" dago orain arte zuzendaritzak egindako kudeaketarekin. Duela "10-15 urte" sortutako arazoak dauzka gogoan: "Lokal txiki bat genukan, baina taberna ere bazen.

Erakunde moduan kosta egiten zitzaigun gure izaera behar bezala definitzea. Orduko zuzendaritzak lan handia egin zuen diru kontuak, aseguruak edota elkartearen izapide legalak uztartzerakoan, eta gure lokal propioa izatea bakarrik falta zitzaigun. Azkenean, lortu genuen San Pedro kaleko 10. zenbakian lokal eder bat eskuratzea".

Gazte taldea indartu nahian

Bada, ordea, kezkatzen duen kontu bat: 30 eta 40 urte arteko Pol Poleko gazte taldeak mendiko lasterketetan eta irteeretan parte hartzen duen arren, adin horretako "jende gehiago erakartzea beharrezkoa" ikusten du elkartek. Zabaletak

uste du "eurei begirako irteera gehiago antolatzea" izan daitekeela konponbideetako bat.

"Elkarte irekia"

Duela mende laurden zeukaten sentsazioa atzean utzi dutela ere adierazi du Pol Poleko presidente berriak, orduan elkartea bera "nahiko itxia" zela uste baitzuten bazkideek. Denborarekin, "adin guztietako bergararren gara iristea" lortu dute, hein handi batean, "Udalarekin eta herriko hainbat eragilarekin eginiko elkarlanaren ondorioz". Horren seinale da, gaur-gaurkoz, 480 bazkide inguruk osatzen dutela mendizale taldea. Izan ere, "pandemiarekin mendiko federatu txartela eskuratzeko interesa" piztu egin da herrian.

Aldeko ufada hori baliatuko du Pol Polek aurrera begirako ekintzetan. Lehenengoa, martxoaren 26an, Lokatzarekin eta Udalarekin batera bigarren eskuko kirol materialen azoka egingo baitute egun horretan.

PANDEMIA AURREKO IRTEERA KOPURUETARA HELTzea DA AURTEN POL POLEN HELBURUA



NIRE USTEZ

JOANES PLAZAOLA

Zergatik ari gara kulturaz?

Espresio estetikoetatik harago, mundu ikuskera oso bat definitzen du kulturak. Ondorioz, berorren analisiak paper garrantzitsua jokatzen du edozein pentsamendu kritikoren baitan. Erritmo bizkorretan bizi gara. Etxetik lanera, lanetik etxera, gainontzeko eginbeharrei presaka erantzunez eta lasai egoteko denbora zirrikituren batetik lortuz; posible denean. Gainera, sare sozial, komunikabide eta partekatutako espazio desberdinetatik jasotako informazio bonbardaketak ez digu ideiak ordenatu eta garatzeko abagune handirik uzten. Mundu globalizatu honekiko dugun ulerkera, norbanakoon eta gizartearen arteko harremanak, ohiturak eta jokabideak ez dira hausnarketa eta irizpide pertsonaletatik jaiotzen, egitura ekonomiko eta sozial oso batetik baizik. Errealitatea interpretatzeko eta antolakuntza forma eraginkorrek garatzeko, sentsazio pertsonaletatik aldendu eta perspektibaz begiratu beharra daukagu. Horregatik, kulturaren inguruko eztabaida ez da kapritxo hutsa, edozein mugimendu politikoren norabidea zehazteko ezinbesteko elementua baizik.

OHARRAK

Labegaraieta kiroldegiko taberna ustiatzea

Taberna-jatetxearen ustiaketa, instalazioen kontrola eta garbiketa zerbitzua esleitzeko prozedura ireki dute. Lizitazioan parte hartzeko eskariak hilaren 14ko 13:00ak baino lehen aurkeztu behar dira: www.bergara.eus. Kontratua urtebeterako izango da.

Botatzeko duen egurra doan banatuko dute

Udalak 2022an eta 2023an bere mendi edo basoetako lanetan sortu duen edo sortuko duen egurra doan emango du, eta eskaerak egiteko epea zabaldu du. Eskaera aurkeztu ahal izango dute Bergaran erroldatutako pertsona fisikoek eta irabazi asmorik ez izan eta Bergaran egoitza duten pertsona juridikoek. Azken eguna, martxoaren 15a: www.bergara.eus.

Trakzio mekanikodun ibilgailuen zerga

Zergaren 2022. urteko erreziboak ordaintzeko epea maiatzaren 10ean amaituko da. Ordainketa egiteko lekuen eta medioen berri jasotzeko: www.bergara.eus.

Orfeoia eta orfeoi gaztea Mariaren Lagundian

Ikastetxeko elizan izango da kontzertua; domekan, 19:00etan. Sarrera doakoa izango da, edukiera bete arte.

Askotariko ekintzak izango dira Basoen Astearen barruan

Udalak eta Kukubasok egitaraua antolatu dute hilaren 21eko Basoen Nazioarteko Egunaren bueltan. Gaur, *Zuhaitzak landatzen zituena gizona* antzezlan izango da Seminarixoa (18:00). Hilaren 22rako, hitzaldia antolatu dute Seminarixoa (18:30): *Non dago gure basoa?* Azkenik, umeendako tailerrak izango dira Usondo parkean hilaren 25ean (17:00).

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Egitaraua prest, Korrikaren etorrera berotzeko asmoz

Korrika Kulturala ekimenaren baitan, helduentzako eta haurrentzako hainbat ekintza eta emanaldi antolatu ditu Bergarako Korrika batzordeak, datorren asterako; asteburuan bertan, Korrikako materiala eskuratzeko aukera egongo da kalean

Jone Olabarria BERGARA

Apirilaren 1ean, egubakoitza, iritsiko da Korrika Bergarara. Osintxutik sartuko da, 11:30 inguruan, eta, herrigunetik igaro ostean, Arrasaterako bidea hartuko du. Korrikaren etorrera berotzeko, hainbat ekitaldi antolatu ditu Korrika batzordeak datozen asteetarako, Korrika Kulturalaren baitan.

Ipuin kontaketa eta dokumentala

Martxoaren 16an, eguaztena, 18:30ean, Irizar jauregian helduentzako ipuin kontaketa izango da, Isabel Agirresaroberen eskutik. Udal liburutegiak antolatutako ekintza da.



Bergarako Korrika batzordearen bileretako batean, talde argazkia. KORRIKA BATZORDEA

Martxoaren 17an, eguna, *Uhinak* dokumentala izango da ikusgai Irizar jauregiko ganbaran. AEK-k Korrikaren inguruan sortutako dokumentala da; Euskal Herriko hainbat txokotan barrena bederatzi paisaia eza-gutzeko aukera ematen du dokumentalak, hain zuzen ere, bederatzi errealitate linguistiko eta emozional aurkeztuz. Guztira, 33 minutu iraute du, eta 19:00etan emango dute, Irizar jauregian.

Saskigintza eta dantzak

Egun berean, hilaren 17an, umeentzako saskigintza tailerra ere egingo dute, udaletxeko arkupeetan. 17:30etik 19:00etara arte izango da, eta Aspaceko kideek gidatuko dute saioa. Martxoaren 18an, egubakoitza, 18:30ean Euskal dantzen ekitaldia egingo dute San Martin plazan. Moises Aspiazu dantza taldeak antolatutako emanaldia izango da.

Era berean, Korrikako materiala erosteko aukera egongo da asteburuan: gaur, Osintxun, 18:00etan hasita; eta bihar, eguerdian, Irala kalean.

Erosketa-bonuek 150.000 euro mugitu zituzten Bergaran

2021. urte amaieran, Gabonen testuinguruan, egin zen Bergarako herritarrei zuzendutako erosketa-bonuen azken kanpaina, eta 150.000 euro baino gehiago mugitu zituen. Udalak 30.000 euroko laguntza bideratu zuen ekimenara, eta herritarrek %20 ko deskontua izan zuten 75 euro arteko erosketetan. 47 establezimenduk hartu zuten parte.

Katxalin elkartearen loteria kobratzea, hilaren 21era arte

Katxalin elkartearen Gabonetako loteria saritua izan zen abenduan, eta jokotutako txartel bakoitzagatik 15 euro kobratuko dituzte parte hartu zutenek. Elkartekoek gogorarazi dute hilaren 21a dela diru jasotzeko azken eguna. Astelehenetan 17:00etatik 19:00etara dago kobratzeko aukera, Oxirondoko parroikia-etxeko lokalean, Sierbetan.



DEBAGOIENEN GREMIOAK



AROTZEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA / Telleria 19 802-803
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL

ARRASATE / Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE / Gipuzkoa etorbidea 39, behe
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA / Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA / Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA / Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.



Eskalada ikastaroa Eguzki auzoko rokodromo berrian. MAIDER ARREGI

Beldurrei eta erronkei aurre eginda, gorantz

Harrera bikaina izan du Arrolak antolatuta asteon abiatu den emakumezkoen eskalada ikastaroak. Martxoko eguaztenetan elkartuko dira rokodromo berrian, eta, ondo pasatzeaz gain, emakumeak kirolaren esparruan ahalduntzea ere badute helburu

Maidar Arregi ANTZUOLA

Aste honetan abiatu da Arrolak, 50. urteurrenaren baitan, emakumezkoendako eskalada ikastaroa rokodromo berrian. Orain arte erabiltzaile gehientsuenak gizonezkoa izanda, emakumezkoendako ikastaroa antolatzea erabaki dutela dio Deiane Zubikarai eskalatzaile eta irakasleak. "Rokodromoa nahiko berria da eta gizonezko asko dabil; emakumezkoen erabile- ra sustatzeko asmoz antolatu dugu ikastaroa. Egia da, ordea, geroz eta emakume gehiago dabilela bai arroketa eta baita boulderrean ere. Nire asmoa da bakoitza ezagutu eta nola moldatzen den ikustea; taldea egin eta ondo pasatzea, hain zuzen ere", adierazi du Zubikarai irakasleak.

Izan ere, ikastaroaren xedetak bat ere bada emakumeak kirolaren esparruan ahalduntzea eta elkarrekin beldurrei eta erronkei aurre egitea. Ikastaroak harrera bikaina izan du,

eta kanpoan geratu denik ere izan da. Dena den, Zubikarai dio aurrerago beste ikastarobat antolatzeko asmoa ere badutela.

Askotariko eskalatzaileak

Hamaika bat emakumek abiatu dute ikastaroa. Adin tarte askotarikoak ez ezik, batzuk kanpoan, arrokan, ibilitakoak dira; beste batzuk, aldiz, inoiz eskaladan ibili gabeak. Baina motibazio eta gogo bera dute, eta horrek egiten du taldea sendo, zeren inoiz ibili gabeko batzuek betidanik izan dutela eskaladarekiko interesa aitortu dute. Orain arte, ordea, aukerarik ez zaie sortu, eta ikastaroari esker animatu egin direla diote. Hala,

DOMEKAN, ZUHAIKAZ LANDATUKO DITUZTE GENTILAITZEN; 09:00ETAN ABIATUKO DIRA PLAZATIK

taldean ikasi eta babesa bilatzea dutela helburu gaineratu dute. Martxoko eguaztenetan batuko dira rokodromoan.

Arrolaren ekintzak

Bestalde, Arrola 50. urteurrenean murgilduta dago, eta domekarako, hilak 13, zuhaitz landaketa eguna antolatu du. Haritzak eta pagoak landatuko dituzte, eta herriari eta elkarteko kideei omenaldia egingo diete. Guztira, 50 "gehi bat" zuhaitz landatuko dituzte. "50 zuhaitz, Arrola kideei eta herritarrei eskerrak emateko; eta 'gehi bat' hori elkartearen jarraikortasunaren isla izango da", dio Sara Arietaleanizbeaskoa presidentea. Domekan 09:00etan Herriko Plazatik abiatuko dira Gentilaitzera. Bertan egingo dute landaketa.

Azkenik, hilaren 24an, eguna, Arrolaren ibilbidea eta hainbat testigantza jasotzen dituen *Arrola 50 urte mendiz mendi* liburua aurkeztuko dute Torresoroan, 18:30ean.

HAPOn gaineko bilera irekia egingo dute hilaren 15ean

Hiritik At kooperatibak gidatuko ditu prozesua aurrera eramateko herritarren hausnarketa saioak

M. A. ANTZUOLA

Antzuolako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) garatzeko partaidetza prozesua abian da, eta dagoeneko talde eragilean aritu dira lanean zenbait herritar. Hala, hilaren 15ean, eguaztena, herritar guztiendako bilera irekia egingo dute, Torresoroa aretoan, 18:30ean hasita.

"Saio horretan, Antzuolako ingurunearen, mugikortasunaren eta hainbat arloren argiuneak eta hobetzekoak identifikatu dituzte, eta etorkizunera begirako erronkak irudikatzen hasi gaitezke", jakinarazi du Udal Gobernuak. Hala, prozesuarekin jarraitzeko, partaidetza saio zabala egingo dute: "Herritarren ekarpena interesgarria izan daitekeela uste dugu. Saio zabal horren helburua da Plan Orokorra zer den azaltzea, nolako



Antzuolako erdigunea. M.A.

tramitazioa izango duen eta zer-nolako prozedura abiatu den horren idazketarako. Ondoren, talde teknikoak talde eragilearekin batera egindako aurre-diagnostikoa aurkeztuko dugu, partaideek osa dezaten". Hiritik At-ek gidatuko ditu saioak.

Bueltan da berriro mus-zaleen txapelketa gustukoena

Bihar, Euskal Herriko Mus Txapelketako Antzuolako kanporaketa jokatu da Ongi Etorri jatetxean

M. A. ANTZUOLA

Bi urteko etenaldiaren ostean, bihar, martxoak 12, ekingo diote berriro herriko mus txapelketari, Ongi Etorri jatetxean, 16:00etan hasita. Izena egunean bertan eman beharko dute parte-hartzaileek –20 euro bikoteko–.

Sailkatzen direnek Gipuzkoako txapelketarako txartela eskuratuko dute eta martxoaren 26an eta 27an Seguran jokatu dute kanporaketa fasea. Dena ondo bidean, Euskal Herri mailako finala, berriz, apirilaren 9an Baigorri izango da. Bertan batuko dira lurralde guztietako mus jokalaririk onenak.

Bete beharreko baldintzak

Antzuolako txapelketa lau erregetara jokatu da. Herritarrek soilik parte hartu dezakete –baita partaideetako batek herrian lan egiten badu edo senidetza



Pandemia aurreko partida bat. GOIENA

lotura badu–; inoiz ez bikotea kanpotarra den kasuan.

Hala, Euskal Herriko Mus Federazioak dena gertu du txapelketari hasiera emateko. Era berean, herrietako emaitzak Twitter bidez jakinaraziko dituzte: @mustxapelketa.

"Emozioak azaleratzeko tresna da gure gorputza"

BLANCA CARRASCO DANTZARIA

Nork bere gorputza ezagutu eta entzun dezan, dozena bat ikaslerekin jardungo du bihar dantzari madrildarrak. M8ko ekimenen baitan antolatutako ikastaroa da

Maidar Arregi ANTZUOLA

15 urte daramatza Antzuolan Blanca Carrasco dantzari eta aktore profesionalak. Euskal Herrian dantzari, koreografo nahiz aktore moduan hainbat proiektutan parte hartu du. Irakasle lanetan ere badihardu; Bergarako Camden Town akademian, besteak beste.

Dantzaren bitartez gorputza bestelako modu batean adierazi daitekeela diozu.

Bai, noski. Gorputza espresatzeko tresna bat da; garraiobide bat. Gure espresioa hizkuntzara mugatzen dugu maiz, eta ahaztu egiten zaigu gorputza ere sentimenduak adierazteko tresna dela. Gainera, egiatik lan egiten duen garraiobidea da. Izan ere, adierazi nahi dugunaren arabera, hitzak apaindu egiten ditugu. Baina gorputza ardatza den lanetan ezin dugu itxurakeriarik egin, gorputzak egia esaten baitu. Eta horrek badu ere osagai terapeutikoa. **Biharko dantza tailerrak badu osagai hori, ezta?**

Bai; nik ez ditut dantza terapia eskolak ematen, baina biharko ikastaroak badu faktore terapeutikoa, zeren norberak dituen bestelako jarrerak adierazten laguntzen digu, eta bestelako gauza batzuk lantzen laguntzen du. Biharko dantza tailerra, konkretuki, Emakumeen Nazioarteko Egunaren baitan antolatua da, eta dantzatik emakumeen gorputzek diotena kontatzea da asmoa.

Gorputz espresioaren bitartez emakumeek beren istorioa kontatuko dute, beraz.

Emakume bakoitzak bere ibilbidea dauka egina eta gainditu beharreko oztupoekin istorio propioak. Azkenean, badakigu emakumea izateak dakarrela ginkana estilora bizitzea. Horregatik, barrura begira jarriko gara eta bakoitzak esaldi edo gainditu -behar- duen oztupo



Dantza garaikidea dantzatzen Carrasco. BLANCA CARRASCO

"DANTZA KULTURA DA ETA HERRIARI GERTURATZEN SAIATZEN NAIZ NIRE TAILERRETAN"

bat idatziko du. Inprobisaziotik landuko dugu, eta gero, nik gidatutako dantza teknika bidez taldekako koreografieta landuko ditugu erronka horiek. Talde sorkuntza bat egingo dugu bata bestearengandik jasotako edukiarekin.

Indarrak batuta, bat izatearen sentsazioa, alegia.

Hori da; interes handia daukat tribu izatearen sentsazioan, talde energian eta babestua eta ahaldundua sentitzean.

Gorputzak dioskuna ere entzun behar dugu, ala?

Oro har, gutxi entzuten zaio gorputzari. Dantzan asko lantzen dugu gorputza entzuteko teknika. Lankideekin lan egitean, bestearen gorputza entzuteak daukan garrantziaz jarduten dugu. Entzuteak sentitzen dugunarekin eta bestearen gorpua erantzunarekin zerikusia

izatea, alegia. Askotan, esparru emozionalean zerbait ondo ez doanean, gorputzak seinaleak ematen ditu eta entzun egin behar zaio. Gutxi egiten da, baina belaunaldi gazteek landuagoa dute arlo hau. Nagusienei, aldiz, gorputza landu ez dutela igarri egiten zaie.

Adin askotariko ikasleekin lan egingo duzu.

Camden Town akademian ematen ditut eskolak, bai ballet klasikokoak, eta baita dantza garaikidekoak ere. Askotariko jarduerak lantzen ditut 5 eta 65 urte arteko emakumeekin. Egia-ri zor, gizonezko gutxi ematen dute izena, baina, pixkanaka, hasiak dira animatzen.

Dantzarekiko sentsibilizazioan ereiten duzu.

Herritarrak dantzara eta horren une latza bizi duten arte eszenikoetara gerturatzea nahi izaten dut. Dantza kontsumitu dezaten eskatzen diet ikasleei; nire helburua dantza herrira gerturatzea da, eta horretan ahalegintzen naiz. Bihar, hamarretan hasita, dozena bat emakume batuko gara Torresoroan gorputza hobeto ezagutzeko eta entzuteko [izen-ematea itxita dago].

Sexua eta aurreiritziak eztabaidagai jarriko dituen lana

'Sexberdinak' antzezlanaren martxoaren 25ean izango da ikusgai, Torresoroan; sarrera 5 euro da

Maidar Arregi ANTZUOLA

Udalbiltzaren *Geuretik sortuak* ekimenaren baitan, *Sexberdinak* antzezlanaren estreinatuko dute Antzuolan martxoaren 25ean, egubakoitza, Torresoroan, 19:15ean. Sarrera 5 euro da eta labur.eus/antzuolasarrerak atarian nahiz liburutegian eskuratu daitezke. Maitasuna, sexua, bakardadea eta jendearen aurreiritziak izango ditu hizpide antzezlanak.

Zuzendari lanak Mireia Gabi-londo bergararrak egin ditu. Gidoiaren egileak, berriz, Kepa Errasti arrasatearra eta Telmo Irureta zumaiarrak dira. Akto-reak Telmo Irureta bera eta Aitziber Garmendia dira.

Sinopsia

Garun-paralisia duen kazetariak eta kontraesanetan erdi itota dabilen gozoki saltzaileak beren



Irureta eta Garmendia. TANTTAKA

bizipen afektibo sexualak azalduko dituzte, inolako konplexurik gabe, gutako bakoitzak, norbere paralisiaarekin, beldur, amets eta ilusio ezberdinak ditugula erakusteko. Bi lagunak istorioa umorez eta minez tindatuta dago.

Uzarragako igoera martxoaren 26an egingo dute

Aurtengo gazte mailako Uzarragako igoera martxoaren 26an, zapatuan, jokatu da Antzuolan. Osasun egoerak hobera egin duela ikusita, Aia-tui taldeak lasterketa berriro martxoan antolatzea erabaki du. Aurten, gainera, eta iaz ez bezala, arratsaldez abiatuko dira txirrindulariak, 16:30ean. 57 kilometroko lasterketa izango dute ziklistek

aurretik, baina azken urteetako ibilbidea derrigor aldatu behar izan dute antolatzaileek; izan ere, Udanako mendatea itxita dago, gaur-gaurkoz.

Hala, Bergara, Osintxu, Bergara, Elorregi, Zubillaga, Elorregi eta Bergarako zirkuituari bi itzuli emango dizkiote parte-hartzaileek, azkenean Antzuolara bidea hartu eta Uzarragako gainera igo aurretik. Unax Errasti txirrindulari antzuolarra ere bertan izango da, Ulma taldeko elastikoarekin.

'Papicha, sueños de libertad' filma ikusgai domekan

Emakumeen Nazioarteko Egunaren baitan, *Papicha, sueños de libertad* filma izango da ikusgai domekan, 18:00etan, Torresoroan. Sarrera 3 euro da. Pelikula Aljerian dago girotuta, 90eko hamarkadan. Aljeriako gerra zibileko gertaera tragikoek bizitza normala izatea galaraziko diote estilista izan nahi duen 18 urteko ikasle Nedjmari.

Martxoaren 20an egingo dute Basabere baserrira irteera

Pandemiak eraginda atzeratu beharra izan zuen Idolaz Aisialdi Elkarteak Basabere baserri eskolara antolatutako irteera. Orain, egoera hobetuta, data berria jarri dute: martxoaren 20a. 6 eta 12 urte arteko gaztetxoei zuzendutako irteera da. Lezaun herrian dago Basabere, naturaz patxadaz gozatzeko aukera eskaintzen duen eskola.

Aspaldiko partez, Ibiltarien Jaia Elgetan

Bi urteko etenaldi luzearen ostean domekan Elgetan egitekoa den mendi martxarekin berreskuratuko du iraupen luzeko ibilbideen zirkuitua Euskal Mendizaleen Federazioak. 24 kilometroko martxa da, eta irekia parte hartu nahi duen ororentzat



Elgetar talde bat 2019ko Ibiltarien Jaiko mendi buelta egiten. GOIENA

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA Mendizaleek hitzordu garrantzitsua dute domekan Elgetan; izan ere, bueltan da Ibiltarien Jaia. Euskal Mendizaleen Federazioak (EMF) antolatzen duen urteroko hitzordua da, baina pandemia kontuak tarteko azken bi urteotan egiterik izan ez dena. "Oso garrantzitsua da guretzat poliki-poliki hala-koak berreskuratzen joatea", azaldu du EMFko zuzendari tekniko Iñaki Garayk. "Ez gara oraindik betiko normaltasunera bueltatu, baina, bi urteko etenaldiaren ostean, iraupen luzeko ibilbideen zirkuituaren itzulera dakar honek, eta gure mendizaleak irrikaz daude".

Librea da martxan parte hartzeko aukera, eta egunean bertan ere eman daiteke izena. Antolatzaileek, dena den, izena emateko aukera eskaintzen dute *Zirkuitua.com* atarian, eta eguen goizerako 141 lagun zeuden apuntatuta. "Beti izaten dira azken orduan animatzen direnak. Beraz, talde polita elkartuko gara Elgetan", aurreikusi du Iñaki Garayk.

Elgetako hitzorduari Ibiltarien Jaia esaten zaio aurreko urteko zirkuituko sari banaketa ekitaldia egiten delako bertan. "Jendea saiatzeko da

ahalik eta martxa gehienetan parte hartzen, erregulartasunari eusten, ahaleginak neuritzen, eta laguntasuna sustatzen duen ekimen bat da honako hau. Mendi elkarte asko daude egitasmo honen atzean, eta inplikazio handiko jende asko".

Domekako martxa 08:00etan abiatuko da, Bolatoki ingurutik. Elgetan izango ditu irteera eta helmuga. Guztira, 24 bat kilometroko ibilbidea izango da parte hartzaileak herriko tontor garrantzitsuenetara eramango dituenak –Intxorta, Erdella, Egoarbitza eta Azkonabitza–. "Betiko ibilbidea izango da. Dena prest dute Elgetan".

Behar duten mendizaleek dutxa zerbitzua izango dute amaieran. Aurreikuspena da 14:00etarako proba amaitutzat ematea.

Elgetako Udalak eta Kantsatzeke Mendi Taldeak laguntzen dute antolakuntzan. Ibilbidea ondo seinaleztatzea izaten da

HITZORDU HONEKIN BERRIZ AKTIBATUKO DA FEDERAZIOAREN IBILBIDE LUZEKO MARTXEN ZIRKUITUA

"Betidanik izan da berezia Elgetako hitzordua, eta aurten, bereziagoa"

IÑAKI GARAY EMF-KO ZUZENDARI TEKNIKO

Askotariko lekuetatik etorritako mendizaleak izango dira domekan Elgetan. Martxa klasikoa egingo dutela azaldu du Iñaki Garayk.

Zergatik da berezia Elgetako martxa?

Elgetako hitzordua betidanik izan da berezia. Pandemiaren erruz aurten ez dira egingo ohikoak izaten diren bazkaria eta sari banaketa, baina 140 bat lagun espero ditugu, eta jendea gogotsu dago. Ez ahaztu hau dela pandemiaren ostean antolatzen den lehen martxa, eta, azken finean, ibilbide luzeko martxen zirkuitua berriz aktibatzea dakarrela.

Berezia da zirkuitua bera, ezta?

Zirkuitua da Euskal Mendizale Federaziotik antolatzen den jarduerarik garrantzitsuenak. Euskal Herri osoko bazter asko ezagutzeko aukera ematen du. Esango nuke



EMF

esperientzia bakarra dela. 2022ko zirkuituak 22 martxa izango ditu, eta egitasmoaren atzean mendizaleak, mendi elkarteak eta lan handia daude.

Elgetan dena prest?

Esango nuke baietz. Kantsatzeke taldeak badu nahikoa esperientzia, eta ez da arazorik izango, alde horretatik. Animatzen ditut mendizale guztiak domekako mendi martxan parte hartzera.

zereginen artean garrantzitsuenetako bat.

Elgetakoaren ondotik etorriko dira 2022ko iraupen luzeko ibilaldien zirkuituko gainerako guztiak. Hurrengoa, hilaren 27an, Villabona inguruan.

Kantsatzeke ere, berriz martxan

Etenda egon da, baita ere, Elgetako mendi taldearen jarduerak nagusia. Berriki jakinarazi dute, ordea, hileroko irteerak antolatzen hasiko direla berriz. Hain zuzen ere, hilaren 20rako iragarri dute lehena. "Mendi buelta eta sagardotegirako plana daukagu. Irteera ez da gogorra: 15,5 kilometro inguru. Arantzazutik abiatu eta Biozornio ingurura joko dugu. Handik, berriz, dena behera Zeraineraino". Zeraingo Oiharte sagardotegian izango da bazkaria. "Eguraldi txarra eginez gero, Elgeta aldean egingo dugu bueltatxo bat, eta gero, sagardotegira joango gara". Garrantzitsua da ohiko bideak erabilita izena aurrez ematea.

140 LAGUNETIK GORA ESPERO DITUZTE DOMEKAN ELGETAN EGITEKOA DEN MENDI MARTXARAKO

Garbiketa lanetan sakon

Elgetan lehen aldiz egingo den Ahuntzen mendi lasterketa ate joka da; izan ere, hilaren 27an jokatuko dira Intxortako Ahuntzak Mendi Trail taldeak antolatutako bi probak –nagusiak eta 16 urtetik beherakoak–. Ibilbidea garbitzeko lanetan aritu dira azken asteotan hainbat lagun. Webgune berria ere martxan dute antolatzaileek: *Intxortakoahuntzaktrail.es*



INTXORTAKO AHUNTZAK TRAIL

Xalbadorpeko erretiratuek urteko batzarra egingo dute

Elgetako erretiratuen elkarteak zuzendaritzak batzar orokorrean deitu ditu bazkideak. 2021eko batzar orokorra da deitu dutena. Hilaren 17an –eguna– egingo dute, 17:00etan, Ozkarbi elkartean. Diru kontuak, 2022rako egitasmoak eta zuzendaritzarekin lotutako gaiak landuko dituzte, besteak beste. Nahitaezkoa izango da maskara.

OHARRAK

Korrika batzordea

Elgetako lantaldea apirilaren 1erako herri mailako Korrika antolatzen ari da. Hurrengo batzarra hilaren 16an izango da, 18:30ean, udaletxean.

Podologoia

Erretiratuendako kontsulta hilaren 21ean izango da. Ezinbestekoa da aurrez txanda hartzea: 667 80 70 06 (Olga Fernandez).

Gutxienez, bost etxetan sartu dira lapurrak

Domingo Iturbe kaleko etxe atxikietan ez dakite zer gehiago egin. Azken hiru asteotan, gutxienez, bost etxetan sartu dira lapurrak. Lapurreta txikiak egiten dituzte; nabarmen handiagoak dira kalteak eta bizilagunen artean zabaldu den kezka

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Aste gutxiko epean bi aldiz sartu dira Iker Irazabalen etxean. Domingo Iturbe kaleko etxe atxikietako batean bizi da, eta ez da kasu isolatua; izan ere, hiru asteko epean, gutxienez, bost etxetan sartu dira lapurrak. "Saiakerak gehiago izan dira. Lapurrek eramandakoagatik baino kezka handiagoa dut azkenaldiko gertaerek auzotarren artean sortu duten kezka eta beldurragatik", esan du. Auzotarrek ziurtatu dute lapurrak bariku eta eguen iluntzeetan joaten direla.

San Roke aldeko parketik lorategietara salto egin eta etxez etxe ibiltzen direla diote. Egon-gelako ateko kristala apurtuta sartu ziren lehen aldiz Irazabalen etxean. Palanka batekin goiko solairuko leihoa indarrez zabaldua sartu ziren aurreko eguenean. "Salaketak jarrita daude", azaldu du.

Lapurrak diru bila sartzen direla dirudi. Ez dituzte baliozko etxetresnak eta gailu elektronikoak eramaten. "Sukaldeen ez dira sartu ere egiten. Gainerakoan, tiradera eta armairu guztiak begiratzeko dituzte. Alabetako baten itsulapikoko dirua eraman dute azkenengo", esan du Irazabalek.



Iker Irazabal, lapurrek indarrez zabaldutako leihoak dituen markak erakusten. L.Z.L.

LAPURRETAK EGUE ETA BARIKU ILUNTZEETAN IZATEN DIRA, ETA KEZKATUTA DAUDE AUZOTARRAK

Kezka du, baita ere, Idoia Sernak. "Ez dira gure etxean sartu, baina barikua iristen denean beti pentsatzen duzu ea etorriko diren, ea sartuko diren... Uste dut hiru asteotan bost salaketa jarri direla. Auzotar batzuk oso

aztoratuta daude, eta normala da. Guk alarma daukagu jarrita, beste batzuek bideo-kamerak ipini dituzte. Badira pertsiana autoblokeatzaileak jarri dituztenak ere". Auzotarrek nahiko lukete atzealdeko parkean argiteria hobea egotea. "Oso ilun dago. Udalari aspaldi eskatu genion hor argia ipintzeko. Baietx esan ziguten, baina, oraingoz, ez dago ezer ipinita", azaldu du Sernak. Salaketak daudenean ertzainak sarriago pasatzen direla dio, baina denborarekin joateari utzi egiten diotela.



L.Z.L. ETA ELGETAKO LUDOTEKA

Gogoetarako proposamenak

Martxoaren 8ko bilkurarekin batera (Ikus 2. orria), Dorleta Kortazarren *80 Amandre* saioa eta ludotekako jarduera bereziak izan ziren martitzenean Elgetan. Globo lehiaketa eta emakume historikoen errepasoa egin zuten umek. Kortazarrek askotariko emakumeen bizi-esperientziak eraman zituen; pasarte goxoak kontatu zituen, baina baita ere oso gogorrak.

Parketik egiten dute salto lorategietara

Heskai handiak daude, baina lapurrek aurkitzen dute lorategietara salto egiteko modua. Hiru etxe atxiki multzo daude Domingo Iturbe kalean. Horietan izaten dira lapurreta saiakera gehienak. "Abenduko lehen asteburuan hasi ziren lapurretak. Urtarrila lasai joan da, baina orain, ia astero gertatzen da zerbaite", diote auzotarrek.



Etxe atxikien atzeko aldean dauden parkea eta pasealekua. L.Z.L.

Errigoraren kanpaina berria martxan da Elgetan ere

Errigoraren udaberriko kanpainak *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* du izena. Martxoaren 30era arte egongo da auktura eskatzeko Agerreko -Nafarroa hegoalde eta erdialdeko- oli-ba-olio birjina estra eta kontserbak, arroza, pasta eta lekale-sortak. Olio bidoietan eskaintzen da, eta gainerako produktuak hamabi unitateka. Banaketa

maiatz erdialdera izango da, eta Elgetan Goibeko Euskaltzaleen Topagunea arduratuko da. Erosketak *Errigora.eus* webgunean egin daitezke.

Errigorak euskararen aldeko mugimendua sortu nahi du Nafarroa hegoaldean. Herrigintza eta auzolan ariketa handia da. 2013a ezker, 1.400.000 euro baino gehiago bideratu dira euskarra sustatzera. AEK, Ikastolen Elkarte, Sortzen Elkarte eta Agerraldia ekimena dira bide-lagun nagusiak.



German Barrena, Mirari Ibabe, Izaro Elorza eta Xabier Igartua eguazten arratsaldean Araotzen. ARGAZKIAK: OIHANA ELORTZA GOROSTIZA

Araozko ostatua: auzotarren topaleku, bisitariendako zerbitzu

Taberna, 40 bat lagunendako jatetxea eta lau apartamentu turistiko ditu, eta horien ardura hartuko duen ostalaria hartzeko fasea hasiko da orain: azken fasea. Ekainean zerbitzua esleitu eta ostatua udan zabaltzea da Udalaren eta auzotarren nahia

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI
Bukatu dituzte Araozko ostatu- ta egiteko lanak. Eraikina ego- kitu egin dute, barrua altzariz hornitu eta inguruan ibilgai- luendako tokia prestatu. Osta- lari lana esleitzea falta da orain, eta pleguak prestatzen hasita dago Udala horretarako. Ekai- nean adjudikatu eta udan zer- bitzua martxan egotea da Uda- laren eta auzotarren asmoa.

Lau apartamentu eta taberna

Bi pisu ditu Araozko ostatuak: behean daude 40 bat lagunendako tokia duen taberna eta jangela eta apartamentu bat – egokitua –, eta goian beste hiru apartamentu. Gela batekoak eta bikoak dira apartamentuak eta erabat hornituta daude: mikrouhin-labea, hozkailua, sua, ikuzgailua, mahaia eta aulkiak dituzte sukaldeek, telebista eta

sofak daude egongeletan, dutzak komunetan eta horma-armairuak logeletan. Taberna eta jangela zerbitzuak dituen espazioa mahai errektangularrak eta borobilez hornituta dago, eta leiho bat baino gehiago hormetan. Sukal-

dea industrialia da, biltegi txiki bat ere badago hornigaiak gordetzeko, komunak eta baita telebista handi bat ere tabernako barraren parean. Barrura sartzeko, berriz, bi sarrera ditu eraikinak: apartamentuetan

Ate irekiak datorren asteburuan

Datorren asteburuan, martxoaren 18an, 19an eta 20an, ate irekiak egingo dituzte Araozko ostatuan. Herritar guztiak daude gonbidatuta ostatua nolakoa den ikustera joateko; bereziki, zerbitzua hartzeko interesa dutenak. Talde txikietan egingo dituzte bisita gidatuak eta auzotarrak izango dira gidariak.

Martxoak 18, egubakoitza

- 17:00etatik 20:00etara, arratsaldean.

Martxoak 19 eta 20, zapatua eta domeka

- 11:00etatik 13:00etara, goizean.
- 16:00etatik 20:00etara, arratsaldean.



Mahai errektangularrak eta borobilak daude jangelan.



Bi ohe edo ohe bakarra daude logeletan.



Apartamentuetako bateko sukaldea, egongela eta komuna, logelatik.

daudenek erabiliko lukete bat eta tabernara edo jangelara kanpotik datozenek bestea. Barrutik, baina, elkar komunikatuta daude bi aldeak.

Zerbitzu hori nork emango duen lotzea da orain falta dena. Udala hasi da lizitaziorako pleguak prestatzen eta esleipena ekainean egingo litzateke, ostatua udan zabalik egoteko.

Finantzaketa, hiru zatitan

Lehenengo nesken eskola izandako eraikinean ostatua eta hiru apartamentu turistiko egiteko proiektu hau auzotik bertatik sortutako proiektua da, bertakoek ikusten dutelako horrek biziberritu egingo lu- keela auzoa eta kanpotik dato- rrenari ere zerbitzua emango liokeela. "Luzera begirako egi- tasmoa da, plan estrategikoa", auzoarendako.

Proiektua Udalari erakutsi, ondo iruditutako hari, eta nola fi- nantzatu eta zelan gauzatu edo nork eta nola kudeatu lantzen hasi ziren elkarrekin alde biak, hitzarmenak faseka eginez. Jaur- laritzarekin ere jarri ziren ha- rremanetan auzotarrak, proiektua erakutsi eta diru laguntza lortzeko. Eta lortu zuten; kan- titate osoaren erdia jarriko du Eusko Jaurlaritzak, gutxi gora- beheara. Izaro Elorza alkateak emandako datuen arabera, 900.000 euroko inbertsioa izan da proiektua; 200.000 euro jarri dituzte auzotarrek, beste horrenbeste

**PILOTARIEI,
ESKALATZAILEEI ETA
MENDIZALEEI
ZERBITZUA EMANGO
DIE OSTATUAK**



Etxetresnez hornituta daude sukaldeak.



Beheko pisuko apartamentuko komun egokitua.



Tabernako barra, mahaia eta telebista.



Parrokiaren aurrean eta bolatokiarene ondoan dago ostatua.



Sukalde industrialak tabernarako.



Taberna eta jangela, elkarren ondoan.

Udalak, eta gainerakoa Jaur-laritzak; zati txiki bat Aldundiak. Eraikina, berez, auzoarena da, baina dirulaguntzen eskaerak Udalak egin behar zituen, auzoak ez duelako ezagutza instituzio-nalik eta horrelako eskaera bat erakunde ofizial batekin egin behar duelako. Hala, auzoa behartuta egon da Udalari hamar urterako uztera eraikina. Denbora hori pasatutakoan auzoarena izango da berriz eta beste hogeitau urtean, behintzat, helburu bereberekin kudeatuko du auzoak.

Zerbitzua eskaintzeko
Proiektu honekin, auzotarren asmoa ez da turista gehiago ekartzea. Diote egun ere jende asko dabilela auzoan, baina non zer hartu ez dutela. Izan ere, ez dago tabernarik orain Arao-tzen. Pilotan egitera frontoira, eskalatzerak, mendi buelta bat

egitera edo Arrikruz Kobak bisitatzerak, adibidez, jende asko joaten dela diote, eta horiei zerbitzua ematea litzateke ostatuaren helburuetako bat. "Asko poztuko ginateke zerbitzua har-tzen duen ostalaria auzoaren izaerarekin bat etorriko balitz. Hau da, esaterako, kanpotik etorri eta inguruan dabilenari mendi buelta nondik egin aholkatzea edo behar duen infor-mazioa eskaintzea", dio German Barrena auzotarrak. Auzotarren elkargune izatea da beste helburua, auzotarren topaleku bihurtzea.

HAMAR URTEAN UDALAK KUDEATUKO DU, ETA GERO, BERRIZ BUELTATUKO DA AUZORA

Interesa erakutsi dute
Martxoaren 18an, 19an eta 20an, datorren aste bukaeran, ate irekien jardunaldiak egingo dituzte ostatua erakusteko. Edozein herritar joan ahal izan-go da ikustera, baita zerbitzua hartzeko interesa dutenek ere. Dagoeneko, gainera, jendeak agertu du interesa proiektua-rekiko. Bi lagun, gutxienez, egon dira bertan eraikina no-lakoa den ikusten eta instala-zioak bisitatzen, baina hornitu gabe zeuden espazioak orduan, altzariak jarri gabe. Ostatu bihurtu duten eraikina 1934koa da, auzoko nesken es-kola izandakoa. 1970ean, alda-ketak etorri ziren, eta auzoko eskolak itxi eta kalera joan ziren ikastera. Ordutik hona, hutsik egon da, eta, proiektu honekin, eraikina ez ezik auzoa bizibe-rritzea da asmoa.

"Zerbaitengatik da erakargarria Araotz, eta zaintzea da helburua"

MIRARI IBABE ARAOZKO AUZO ALKATEA

Hasieratik hartu du parte auzoak proiektuan. Lan handia egin dute auzotarrek. Ate irekietan ere eurak egongo dira ostatua erakusten. **Zer ikusiko dute datozenek?** Taberna, jangela eta lau apartamentu daude. Ea norbait animatzen den ostalari lana hartzerak. **Alokatzeko dira apartamentu guztiak?** Posible da zerbitzua hartzen duena horietako batean bizitzea ere, batean bizi eta beste hirurak alokatzea. Edo laurak alokatu.

Zerbitzua hartzen duenak erabakiko luke hori. **Aparkatzeko tokia ere badago inguruan.** Auzoan lehenetik zegoen arazoa zegoen. Ostatuak behar du aparkalekua, eta auzoak bere gain hartu zuen arazo hori. Auzolanean egokitu dira aparkalekuak. 60 bat ibilgailurendako tokia egongo da.

Ostatu ondokoak bertara datozenendako izango dira eta kaminoz beste aldera daudenak, auzotarrendako, pribatuak. **Ez da auzotarrok egin duzuen lan bakarra, baina.** Aurretik, eraikinaren teilatua konpondu genuen, jausi ez zedin. Baserri bakoitzak 1.000 euro jarri zuen horretarako. Gero etorri zen proiektu honen ideia, eta hori lantzen ere ibili da. Hau egiteko, eraikinak lurraren parean, zero kotan, egon behar zuen, eta, horretarako, barrutik lurra ateratzen ere bertakoak ibili ziren; auzolanean egin zen lan hori ere. **Zein da proiektuaren helburua?** Auzoari bizitza ematea, batetik, elkartzeko tokia izatea eta, era berean, bisitariei zerbitzua eskaintzea. **Baina ez turista gehiago erakartzea, ezta?** Ez. Egun ere jende asko dabil auzoan. Guk gura duguna da oreka bat egotea mendira edo aisialdiaz gozatzerak datozenen eta ostatuaren artean. Ez dugu masifikaziorik ekarri gura; lehenetik ere etortzen da jendea, eta proiektua era ordenatuan kudeatzea gustatuko litzaiguke: ondo aparkatzea, sartu-irtenak erosoak izatea... eta bertakoen egunerokotasuneko lana eta bizitza ez oztopatzea. Denon artean zaintzeko tokia da, zerbaitegatik da erakargarria, eta zaintzea da gure helburua. Ostatua auzotarrendako topaleku izango da eta bisitariei emango die zerbitzua. **Zein litzateke, auzotarrendako, ostalari idilikoa?** Bertan biziko den familia bat, adibidez.



Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.

Gaztetxean egingo du estreinakoa Motz taldeak

Aurrez hainbat taldetan ibilitako bost musikari elkartuta sortu dute Motz. Hamaika kantu egin dituzte eta zapatuan Antixenan emango duten lehen kontzertuan entzun ahal izango dituzte abestiak estreinakoz ikus-entzuleek; diskoa ere grabatu nahi dute

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI

Besteak beste, Golpe de Estado, Sospechosos, CC627, Drakes, Ixilik eta Larru Beltzak taldeetan ibilitako bost musikari hauek osatzen dute Motz talde berria: Xabi Elortza *Txirli*-k, Jabi Bujanda *Txebi*-k, Joseba Azkaratek, Xabier Pascual *Pasku*-k eta Imanol Ugartek. 2021ean hasi ziren proiektuari forma ematen eta bihar, zapatua, gaztetxean eskainiko dute euren lehen kontzertua izango dena.

Taldearen izena nondik datozen galdetuta, hauxe erantzun du *Txebi* taldekideak: "Hitz joko bat da, Ingalaterran 1960ko hamarkadan egon zen *mod* mugimendu kulturalari erreferentzia egiten diona".

Hamaika kantu, eta euskaraz

Punk-rock estiloko hamaika kantu sortu dituzte, oraindik publiko egin ez dituztenak. "Melodia eta indar handiko kantu freskoak sortu ditugu", azaldu du *Txebi*-k. Eta euskaraz, gainera: "Orain dela 10 edota 15 urte, uste dut erreferentzia kontuengatik abesten genuela gaztelaniaz. Orduan ez zegoen horrenbeste musika euskaraz, eta, agian, ez zitzaigun hain natural irtetzen. Baina gaur egun, zorionez, egoera aldatu egin da eta edozein arlotan daukazu euskarazko musika –reggaetonean, punkean eta beste hainbat estilotan–, eta, askotan, ez duzu joan behar euskararen bila, uste dut modu naturalean irten behar duela, eta kasu honetan horrela irten da eta oso gustura gaude".

Hitzak *Pasku* taldekideak idatzitakoak dira eta hainbat gai landu dituzte kantuetan: "Gure gogoeta pertsonalak egin ditugu abesti batzuetan, mundu zoro honi kritika ere bai, bizitzako pasarteak kontatu ditugu eta umorezko kantu bat sortzera ere ausartu gara oraingo honetan, *Mozolo* izenekoa".



Motz taldea osatzen duten taldekideak. JOSEBA AZKARATE

LEHEN ALDIZ SORTU DITUZTE ABESTIAK EUSKARAZ, ETA GUSTURA DAUDE EMAITZAREKIN

Publikoarendako ere berriak

Diskoa grabatzeko asmoa eta gogoa ere badute taldekideek, baina, horren aurretik, ikusi nahi dute ea herritarrek zein harrera egiten dieten kantuei. Izan ere, bihar, zapatua, zuzenean entzun ahal izango dituzte



Juan Valls musikaria. A. ARANBURUZABALA

ikus-entzuleek lehen aldiz kantutak. "Ez dakigu jendeak nola erreakzionatuko duen abesti berriekin, eta hori ikustea ere oso polita izango da", aitortu du *Txebi*-k.

Kontzertua Ernai gazte antolakundearen euskal preso politikoen eta iheslarien aldeko Gabonetako egitarauaren baitan egin behar zuten, baina atzeratu egin behar izan zuten. Orain, taldekideak "urduri, baina gotsu" daude.

Ramada Inn ere agertokian

Motz taldeaz gain, Juan Valls musikariak gidatutako Ramada Inn taldea ere igoko da Antixeneko oholtzara kontzertua eskaintzera bihar, zapatua. *Pills for horses* izena du Vallsen kantutak batzen dituen laugarren bildumak, hain justu ere, Ramada Inn taldearen izenean sinatutako lehenengo lanak. Eta berarekin lagun ditu Iñigo Ugarte –gitarra–, Ander Etxaniz –baxua– eta Mikel Marco –bateria–.

19:30ean hasiko dira zuzenekoak eta 19:00etatik aurrera erosi ahaliko dira sarrerak; soldata dutenek 5 eurotan eta ez dutenek, 3 eurotan.



Aurreko asteburuko partiduetako batean, beteranoen bi talde Azkoagainen. I. SORIANO

Herriko futbol txapelketa amaiera fasera iritsi da

Asteburu honetan jokatu dira kopako finalerdiak; hurrengoan, ligakoak; eta hilabete bukaeran, finalak

A.T. OÑATI

Momentu honetan, taldekako fasea bukatu dute herriko futbol txapelketako beteranoek, eta orain, azkenengo kanporaketak gelditzen zaizkie. Sailkapenak dagoeneko behin betikoak dira.

Finalerdiak eta finala

Asteburu honetan jokatu dituzte kopako finalerdiak, eta lau talde hauek lehiatuko dira: Zalaparta eta Albok taldeak eta Sasquatch eta Tutelatratu.

Hurrengo asteburuan, berriz, ligako finalerdiak jokatzeko unea iritsiko da, eta lau talde hauek

sailkatu dira: Iturritxo eta Txuskos eta Mazedonia eta Shatoken Motira. Irabazleak hilabete bukaeran, hau da, martxoaren 26an eta 27an jokatu diren bi finalerako sailkatuko dira.

Guztira, hamar taldek hartu dute parte, eta beteranoetako batzordeko kide Iker Jimenezek balorazio positiboa egin du: "Aurreikusitako datetan jokatu ahal izan da guztia, partiduetan ez da egon jende faltarik, jokalariek erantzun egin dute, txapelketa ondo joan da, eta animatu egin nahi dut jende gaztea datorren urtera begira izena eman dezan".



NIRE USTEZ

AITOR UGALDE

Nuklearra

Arrisku nuklearra berpiztu da. Berlingo harresia erori ondoren baretu egin zen gerra nuklearra gerta zitekeen ustea; aldi berean, munduan energia nuklearraren erabilera ere murriztuz zihola zirudien. Denbora gutxian aldatu da dena, Ukrainako gerrak arma nuklearrak erabiltzeko mehatxua ekarri du eta zentral nuklearrak borroka-leku bihurtu. Baina, gerra hasi baino lehen, krisi energetikoari aurre egiteko energia nuklearra erabiltzearen aldeko joera piztuta zegoen, energia berde izendatzeraino.

Ezaguna da politikari abertzale batek Lemoizko zentral nuklearrak esandakoa, egiten ez bazen jateko azak besterik ez genukeela izango. Energia nuklearra bultzatzean istripu nuklearra izateko arriskua handitzen da, giza hutsegitez, naturaren eraginez edo sabotaje bategatik. Eta orduan ez aza eta ezta lur horretatik sortutako beste ezer ere ezingo genuke jan. Tentsio nuklearraren garaia itzuli denean, aspaldian oso gutxi ikusten den energia nuklearraren aurkako eguzkiaren logoa berreskuratu beharko dugu. Nuklearrik ez.

Okm:

*batzen gaituen
distantzia*

Egin zaitez goienakide!

**goiena[“]
kide**



www.goiena.eus/kideak



Xabier Urtzelai OÑATI

Iokin Garai (Oñati, 1983) euskal selekzioan aholkulari lanetan dabil, Oier Ariznabarretarekin eta Josu Juaristirekin batera. Ardura polita da mendiko lasterketetan 15 urte hauetan esperientzia galanta batu duen lasterkariarendako. Edo, hobeto esanda, korrikalari ohiarendako. Izan ere, irailean medikuek mokorreko desgastea zeukala baieztatu ziotenean, segituan hartu zuen erabakia, ez du korrika egiten jarraituko. Erronka berrira, baina, ekaitza lehertu ostean iritsi da, zuzendaritza berriaren eta selekzioko lasterkari askoren -18, guztira- artean liskarra dago eta. Azken horiek ez dute begi onez ikusi eurekin lanean ibili diren teknikariak kalera bidali izana -tartean dago Iñaki Uribe-etxeberria eskoriatzarra-, eta abenduan adierazi zuten, gutun bidez, ez dutela selekzioaren dortsala gehiagotan jantziko. Ez, behintzat, zuzendaritza talde hau dagoen bitartean.

Kanpotik ikusita, saltsa ederrean sartu zara, lokin...

Batek baino gehiagok esan dit hori... Abenduan jaso nuen batzorde berriko kide baten deia, eta aholkulari lanetan hasteko proposamena egin zidan. Ordu-rako, banuen gertatutakoaren berri, eta, hala ere, ez nuen zailtzarik izan. Hain zuzen, egoera zuzentzen laguntzeko asmoarekin eman nuen baiezkua, eta gauza polita delako selekzioari lagundu ahal izatea, ilusioa badut. Mendi lasterketak alde batera utzi ditudan honetan, lasterketa giroan sartuta jarraitzeko modua ere badelako onartu nuen proposamena.

Haserre dauden mendi lasterkari batzuk gertukoak izango dituzu...

Ia hamabost urte egin ditut lasterketetan, pentsa... Bai, lagunak ditut tartean. Baina, halako arazo baten aurrean, nahiago dut zezenak kanpotik ikusi baino barrura sartu eta ekarpen positiboa egiten ahalegindu. Asmo horrekin nabil, baina ikusi dut oraindik denbora behar dela.

Zer ikusi duzu?

Lasterkarien partetik oraindik min handia dagola, eta denbora behar dela gauzak bere onera ekartzeko. Uler nezake haserre hori, uste dut egungo zuzendaritza taldeak komunikazioan ez duela asmatu, gauzak, segu-

"Egoera zuzentzen laguntzera nator selekziora"

IOKIN GARAI EUSKAL SELEKZIOKO AHOULKULARIA

MENDI LASTERKETAK Oñatikoak zuzendaritza berriaren proposamena onartu du, jakinda euskal selekzioko teknikariak aldatu izanak haserre sortu duela batzuegan



Iokin Garai, aste barruan Oñatin. X.U.

ruenik, beste modu batean egin zitezkeela, baina gauzak ez dira ez beltzak eta ez zuriak. Zuzendaritza talde berriak lana beste modu batean egin nahi du, beste lantalde batekin, eta halako erabakiak ez dira inoiz errazak hartzen, ezta barneratzen ere. Gainera, orain arte egon diren lana ona izan da, emaitzak hor daude. Baina batzorde berriak irizpide garbi batzuekin egin nahi du lan, eta hori ere errespetatu egin behar da.

Egin duzue mendi lasterkari horiekin berba?

Saiatu gara batzuekin egoten, baina, oraingoz, ez da posible izan.

Ez duzu esperantzarik galdu?

Ez, lasterkari horiek ez egotea selekzioarendako galera handia delako eta beharrezkoak direlako. Baina beharrezkoak ez dira eurak bakarrik. Euskal Mendi Federazioan 40.000 federatu baino gehiago daude, eta teknikarien irizpideak betetzen duen orok du selekziora joateko eskubidea. Hain zuzen, irizpide horiek garbi zehazteko ahalegina egin du batzorde berriak. Hasi gara lasterketetara joaten,

"SEGURUENIK, KOMUNIKAZIOAN EZ DA ASMATU, BAINA AURRERA BEGIRATU BEHAR DUGU"

jende gaztearekin osatu da selekzioa, eta, nik dakidala, oso giro onean ibili dira. Eta horiek ez diote inori baimenik eskatu behar selekzioan egoteko.

Zer lan egiten du, baina, aholkulari batek?

Aholkularion lana da mendi lasterketetan korrikalarien jarraipena egitea. Eta jaso dugun informazio hori, gero, hautatzaileei pasatzea, eurek erabaki dezaten lasterketa bakoitzera nork joan behar duen. Horrekin batera, lasterketa batzuetan laguntzaile lanak ere egingo ditut. Esaterako, bi aste barru, Espainiako ultra txapelketa egongo da, eta hor laguntzaile egongo naiz. Eta horrekin batera, lasterketetan korrikalarien ondoan egon nahiko nuke, euren sentimenduen berri izan, zelan dauden ikusi, eta gero, lantaldera transmititu. Korrikalari izan naizen aldetik, badakit horrek ze garrantzi daukan, eta hor sakondu nahiko nuke.

Bide batez, erabaki gogorra hartu zenuen iaz...

Bai, baina poliki-poliki barneratzen joan naizen zerbait izan da. Etxean aitzak ere arazo berbera izan du, mokorreko desgastea, eta ni duela pare bat urte molestia batzuekin hasi nintzenean segituan konturatu nintzen zer izan zitekeen. Aitarekin egiten nuen berba, eta sintomak antzekotasun handia zuten. Hala, irailean medikuek argi esan zidaten mokorrean desgaste handi samarra neukala. Eta nire erabakia ere berehalakoa izan zen; inpaktuzko kirol jarduerak alde batera uzteko momentua iritsi zela, alegia. Hala, bizikletan ibil naiteke, etxeokokin mendira joan naiteke oinez ibiltzera, baina lasterketak amaitu dira niretako.

Lasterketen batzordea

Batzordea zazpi pertsonak osatzen dute: Mireia Trigueros -EMFko ordezkaria-, Arrate Bastida eta Aideko Lopez de Arbina dira hautatzaileak eta aholkulari lanetan dabilta Oier Ariznabarreta, Josu Juaristi, Joseba Usabiaga eta Iokin Garai.

Dorletako Amarengana, errepidean babes ditzan

ZIKLOTURISMOA Joan den domekan, martxoko lehenengoan, ehunka zikloturistak egin zioten bisita Dorletako ama birjinari Arlabango gainean. Ohitura da lore eskaintza egitea, urte osoan errepidean babes eskatzeko; ofizialki hor hasten dute denboraldia

Xabier Urzelai ARRASATE
Orokorrean, zikloturista belau-naldi gazteak beterranoen ohitura onak galtzen dabiltza. Esaterako, bizikletan taldean ibiltzeko ohitura –klub baten babesean edota hainbat kilometrotako ibilbidea egin eta gero goiza mokadutxo batekin errematatzea. Indarrak errekupeatzeko gel eta barratxo energetikoak erabiltzen dituzte egungo gazteek, eta potentziometroetan oinarritzen dira geroago eta gehiago, txirrindulari profesionalak bezala, bizikleta gainean egindako kilometroak eraginkorrak izan diren ala ez ikusteko. Kontrara, erretratuko kuadrillak arrautza pareta janda eman zion amaiera domekako irteerari, aurretik Dorletako Amari lore eskaintza egin eta gero. Hori bai, beterrano izanda ere ondo baliatzen dituzte teknologia berriak: errepideko bizikleta elektrikoarekin azaldu zen bat baino gehiago. Jakinekoea da Dorletako Ama ziklisten ama birjina ere badela. Lore eskaintzak egitearekin batera, ohikoa da maillotak ikustea, bizikletako ur-poteak, edo istripuren batean apurtutako kaskoren bat edo beste ere, eskertza moduan. Ehunka istorio batu izan dira ama birjinaren oinetan utzi izan dituzten oroi-



Lokatza zikloturista bergararekin igaro zuen GOIENAK goiza. J. IRIONDO

garrietan, nahiz eta domekakoa loreak eramateko eguna zen. Hala, Dorletako Ama Txirrindulari Elkarteko lagunak ibili ziren aste barruan inguruak txukuntzen, eta egunean bertan ziklistei salda beroa eskaintzen.

Goiza, Bergarakoekekin batera
Lokatza zikloturistek 09:00etarako egin zuten hitzordua, San



Lokatza koeen erreportajea ikusteko, eskaneatu QR kode hau telefonoarekin.

Martin plazan. Hala, ofizialki domekakoa izan zen urteko lehenengo irteera, eta GOIENAK lehenengo kilometro horiek errekin partekatu ahal izan zituen. Urrira bitartean, domekero elkartuko dira, abuztuan izan ezik, ondo antolatuta duten egutegia betetzeko asmoz, eta hilabeteak aurrera joan ahala irteera horiek geroago eta zorrotzagoak izango dira. Zabalik dituzte klubeko ateak, bai eurek eta baita gaitz nontzeko taldeek, bizikleta gainean kilometroak lagun artean hobeto egiten dira eta.



JUAN MARI OLABARRIA
LOKATZAKO ZIKLOTURISTA

"Egun berezia izaten da gaurkoa, talde moduan egiten dugun lehenengo irteera izaten da. Eta Dorletako Amarengana joaten gara, guztiondako babesa eskatzera. Arlabanera joan-etorria egingo dugu, han erretratuko aterako ditugu, lore sorta eramango dugu, eta gero, Tartufon egingo dugu hamaiketakoa".



ALBERTO ALTUBE DORLETAKO AMA ELKARTEKO KIDEA

"Azken bi urteetan hasi gara, gaurko egunez, zikloturistendako salda beroa prestatzen, eta bertaratzen direnek izugarri eskertzen dute. Goxoa zegoela esan digute, dena banatu dugu; baina, goxoa egoteaz batera, gaurkoa moduko egunetan bero egotea da eskertzen dena!".



JESUS MARIA OLABARRIA
LOKATZAKO ZIKLOTURISTA

"Duela 38 urte hasi nintzen bizikletan ibiltzen; mokorreko minagatik hasi nintzen bizikletan, eta gaur arte, ez dut urte batean ere kalerik egin. Orain, taldean behar ditugunak gazteak dira. Urrira bitartean domekero egiten dugu hitzordua; elkarrekin bizikletan ibiltzea izaten da asmoa, giro onean".



JOXERRA AGIRREURRETA
DORLETAKO AMAKO KIDEA

"Debagoienetik etorri dira zikloturistak, bergararrak, arrasatearrak... Baina gehiago espero genituen; esaterako, eskoriatzarrak igarri ditugu faltan! Ikustekoa da Arabatik zenbat txirrindulari etorri diren. Dorletako Amarengana etortzeko ohitura ere Araba aldean sortu zen, eta igarri egiten da".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA O.ERREGION. GIZ. Eibar-Mondra Zap. 15:30. Unbe. Oiartzun-UDA Zap. 15:45. Oiartzun. Mutriku-Bergara Zap. 16:30. San Miguel. Aloña Mendi-Zarautz Dom. 16:30. Oñati. O. ERREGION. EMAK. Bergara-Urola Zap. 12:15. Ipintza. Amaikak Bat-Leintz Ariz. Zap. 18:30. Deba.	GOIRENGO M. IRAUPEN F. Mondra-Pasaia Zap. 16:30. Mojategi. Antzuola (atsedena). GAZTEAK, EUSKAL LIGA Aretxabaleta-Betioño Dom. 16:30. Ibarra. ARETO FUTBOLA MAILA NAZIONALA Tolosala-Mondrate Zap. 16:00. Tolosa. Eskoriatza-Elorrioko Zap. 18:00. M.Muñoz.	EUSKADIKO TXAP. GIZ. Aretxabaleta-Otxartabe Zap. 17:00. Ibarra. GIPUZKOAKO TXAP. GIZ. Mondrate-Zarautz Zap. 17:30. Musakola. GIPUZKOAKO TXAP. EMAK. Eskoriatza-Laskorain Gaur. 22:00. M.Muñoz. ESKUBALOIA EUSK. TXAP. GIZON Fagor Indust.-Basauri Zap. 18:00. Zubikoa.	Corazonis.-Mugarri Ingou Zap. 20:00. Gasteiz. EUSK. TXAP. EMAKUM. Cons. Aloña Mendi Atsedena. GIP. SENIOR 1 MAILA SoraluceBKE-Aritzatalde Zap.19:30.Labegarieta. SASKIBALOIA EBA Santurtzi-MU Zap. 19:00. santurtzi.	LEHEN NAZIONALA Urgatzi-MU Zap. 18:00. Gasteiz GIZON. BIG. MAILA Getariako-Mekalki Aloña Zap. 20:15. Getaria. EMAK. BIG MAILA Mungia-MU Zap. 18:00. Mungia GIPUZKOAKO TXAP. Bergara Soraluce-Azkune Gaur. 20:30. Labegari.	GIP. SENIOR. GIZ. Bergara Sora.-La Rioja Zap. 16:00. labegarieta. PILOTA Oñatin, egubakoitza (18:30) bost partidu. Aretxabaletan, egubakoitza, (18:30) hiru partidu. Antzuolan, egubakoitza, (19:00) partidu bat. Bergaran, egubakoitza, (19:00) lau partidu. Eta zapatuan (11:00) partidu bat. Arrasaten, egubakoitza, (20:00) partidu bat.
---	--	--	--	--	---

"Fabula hiperboliko bat da; fantasia zoro bat"

ANDONI URZELAI IDAZLEA

Elkar argitaletxearekin argitaratu duen 'Ametsen trafikatzalea' eleberria aurkeztu du gaur, egubakoitza, Donostiako udal liburutegian; Urzelaiaren bosgarren liburua da

A. Aranburuzabala ARETXABALETA

Bi urteko lanaren ostean, helduentzako *Ametsen trafikatzalea* argitaratu du Urzelai.

Zure bosgarrena da; pozik?

Liburu bat argitaratzea beti da pozgarria; azken finean, publikoak irakurri dezan idazten du batek. Berez, ez du aurrez idatzi ditudan nobelekin zerikusi handirik, baina imajinatzen dut autore baten lanetan badaudela gai edo kontzeptu errepikakor batzuk. Orain dela hamar urte publikatu nuen *Demencia* artefaktuarekin, akaso, badauka lotura apur bat.

Zeri buruzkoa?


Premisa sinplea da: hilezkortasuna amets duen Andoni Etxanoz psikiatra makur eta handinahi batek ametsak errealak balira bezala gogoratzen laguntzen duen droga bat sortu du. Noski, gizartean inpaktu itzela du horrek, herritarrek bezperan amestutakoa berregiten ematen baitute biharamuna. Gertakari horren harira doa eraikitzen trama osoa. Edozelan ere, nobela honetan gauzak ez dira ematen dutena, delirioaren azpimunduan gertatzen baita guztia.

Zelakoa da Etxanoz eta zein beste pertsonaia ditu alboan?

Egokitu zaion patu ziztrinaren aurka borrokan ari den gizon



Andoni Urzelai idazlea. A.U.



AMETSEN TRAFIKATZAILEA

- Egilea Andoni Urzelai.
- Generoa Eleberria.
- Argitaletxea Elkar.

anker eta moralik gabekoa da. Loria eta entzutea lortzea du amets, eta edozelako bitartekoak erabiliko ditu bere helburuak lortzeko. Bidaideak behar ditu bere asmoak gauzatzeko, jakina, eta horretarako erakarriko du bere aldamenara txoropito tropa heterogeneoa: Mafalda izeneko andrazko bat, *Kanika* deitzen dioten gizon endredatu bat eta narrazioan sartu-irtenean dabilizan beste hainbat pertsonaia xelebre.

Nola dago liburua banatuta?

Hiru zati nagusi ditu, eta bakoitza kapitulu laburretan egituratua dago. Nobela, bere horretan, fabula hiperboliko bat da, fantasia zoro bat, eta iruditu zitzaidan egitura hori oso ondo zetorkiola kontakizunari, marko egokia jartzen baitio narrazioari. Istorioak sinesgarritasuna edukitzea zen nire kezkarik handiena; izan ere, kontatzen dena oso muturrekoa da. Beraz, edo sartzen zara istorioan edo irakurtzen ari zarena kintenkeria bat iruditzen zaizu. Hori, behintzat, lortu dudala uste dut. **2019an Eusko Jurlaritzaren dirulaguntza bat jaso zenuen eleberria idazteko. Zelakoa izan da idazte prozesua?**

Nahiko modu konbultsiboan idazten dut; idazten ari naize-

nean, une oro nobela buruan daukat. Urte eta erdi eman nuen nobela idazten, eguneroko lan bezala, laneko parentesiak baliatzen baititut idazteko. Ezingo nuke beste ezertan nabilela ezer idatzi. Alde horretatik, beka, diruz eskasa izan arren, sekulako laguntza da, denbora osoz idazten jarduteko aukera ematen dizulako. Pena da beka gutxi eta diruz pobreak direla, 7.500 euro ematen dizute eta nobela idazteko; baina zerbait da, sikiera, eta urte bat idazten emateko bultzadaxoa ematen dizu, gutxienez.

Liburua idatzi eta argitaratu bitartean bi urte pasa dira. Zailtasunak izan dituzu argitaratzeko orduan?

Tamalez –lan gorrotagarria delako diot–, idazle baten benetako lana liburua amaitu eta gero hasten da. Sortzaile ugari gaude eta ez dago merkaturik horrenbeste idazlerentzako. Ondorioz, argitaletxe batean lekua egitea zaila da *izen eta itzalik* ez daukagun idazleontzat. Eta behin argitaletxe bati zure lana interesatzen zaionean ere, prozesua motela da, aurrerapen askorekin edukitzen dituztelako argitalpenak programatuta.

Pandemiak literatura arloan eraginik izan duela sumatzen duzu?

Ez dut uste pandemiak askorik eragin dionik, eta, sorkuntzari dagokionez, izatekotan, alderantziz: idazle askok idazteko baliatu baitute egoera sanitarioa eta konfinamendua. Liburu eder asko argitaratu ziren iazko urte amaieran. Beste kontu bat da nola eragin duen COVIDak gu guztion psikean, inpresioa baitaukat denok ere goibelduago atera garela egoeratik. Eta horrek, literaturan barik, irakurleengan du eragina, kultura kontsumitzen dugunongan.

Feminismotik eta gorputz aniztasunetik, sormen-gunea

Catarsi Feminista ekimena sortu du Amaia Txabarrik, gorputz guztien aldeko aldarria egiteko asmoz

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Ogibidez filmatze espazioen eszenatokiak sortzen jarduten du, eta mugimendu feministako kide da Amaia Txabarri Badiola arrasatearra; bi arlo horietatik sortutako kezkatik jaio da Catarsi Feminista, sormen argazkien bidez transmititutako sormen-espazio kritikoa.

Bartzelonan bizi da, eta han egin zituen lehenengo argazki saioak, baina Euskal Herrian ere gauzatu gura izan du ekimena, eta gertu izan ditu jaio-terriko eta, orokorrean, Euskal Herriko zortzi emakume ezagun: Olaia Murua, Arrasateko AEKko irakaslea; Iraitz Agirre, antropologoa; La Furia, rap abeslaria; Itziar Ituño, aktorea; Onintza Enbeita, bertsolaria; Irantzu Varela, Faktoria Lilako kazetaria; Ainhoa Vitoria, Gazteako kazetaria; eta Ana Goitia, ETBko kazetaria.

'#Catarsi Feminista'

Arrasateko gaztetxean aurkeztu zuten egubakoitzean, eta Instagram, Facebook eta Twitter plataformetan dituzten *#Catarsi Feminista* izeneko kanaletan ari dira egunotan ekimeneko argazkiak, bideoak eta bestelakoak partekatzen.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

IOSU DIAZ

REALEKO IKUSKATZAILEA

MARTXOAREN 16AN, EGUAZTENEAN,
21:30EAN ETA 23:30EAN
ARANZADI IKASTOLAKO IKASLEAK PLATOAN
ELKARRIZKETATZAILE
'GALDEGAZTE' SAIOA

goiena
Zu hemen zaude.



Eñaut Zubizarreta, Iban Galanek eta Jon Garciak sortu dute *Desitsatsi* ekimen artistikoa. IBAN GALAN

Margolanak, zuzeneko musikarekin jantzita

Iban Galan ilustratzailearen ideiatik abiatuta eta agertokian lagun dituen Jon Garcia eta Eñaut Zubizarreta musikariak proiektura batuta sortu dute 'Desitsatsi' ikuskizuna; bihar, zapatua, bi emanaldi egingo dituzte Irati Topagunean, 19:00etan eta 20:00etan

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Ikuskizun-erakusketa moduan definitzen du Iban Galan arrasatearrak *Desitsatsi*. "Kontzeptua zera da: zentzumenen aldetik kultura zelan jasotzen dugun erakustea; hortaz, aurrez egin ditudan lau margolan eramango ditut, eta ikuskizunean zehar banan-banan erakusten joango naiz, bakoitzari buruzko azalpenak edo istorioak kontatuta. Margolan bakoitza zentzumen batekin lotuta dago".

Ilustratzaileak alboan ditu Jon Garcia (gitarra, sintetizadoreak) eta Eñaut Zubizarreta (biolon-txelo) musikariak. "Koadro bakoitzarendako abesti bat egin dute, eta nire azalpenekin tar-

tekatuko ditugu musika-une horiek. Aurrez prestatutakoak, edo, nolabait esanda, gidoian jasota dauden musika tarteak izango dira batzuk, eta musika tarte-inprobisatuak beste hainbat. Eskarmentu handiko musikariak dira biak ala biak eta euren konfort-gunetik atera dira; izan ere, musika eta soinu esperimentala egiten dute ikuskizunean".

Ikusleekin feedback zuzena

Bartzelonan bizi zela sortu zitzaion ekimena sortzeko gogoa, eta herrira itzulitakoan proposatu zion aspaldiko lagun duen Jon Garciari bere obren soinu banda sortzea. "Bakarkako era-

kusketak egin izan ditut, baina sentsazio hotz samarrarekin geratu izan naiz askotan. Erakusketetan, orokorrean, apenas egoten da ikuslearen eta artistaren artean harremanik, eta, horregatik, zerbait berezia egin nahi nuen ikusleengana gerturatzeko. Emaiztarekin oso pozik nago, hasierako nire ideia da oinarrian, baina Garciak eta Zubizarretak ondo jantzita. 45 minutu inguru dituen erakusketa bizi bat da".

Bi emanaldi bihar

